

320. Zenb
2022-4
Urria - Abendua

karmel



NON ZER**Kultura**

- Bertsolarien arteko norgehiagokak, guduak, desafioak,
Luis Baraiazarra Txertudi 3
- Lekukotasun arkeologikoak Errioxan. Erromatarren
presentzia. Mapa berria, *Julen Urkiza - Patxi Uribarren* 25
- Egüntto batez nindagoelarik* kantuen gainean,
Jabier Kaltzakorta 44

Gizartea

- Eukaliptoaren gizartea, *F. Javier Arrieta Idiakez* 77

Eliza

- Santa Teresaren eta honen lau lagun kanonizazioaren
laugarren mendeurrena (1622-2022). Prozesuen bidea,
Julen Urkiza - Luis Baraiazarra 85

Iritziak

- Amorebieta-Etxano. 1936-1945., *A. Olea* 105
- Askatasunaz hainbat komentario, *Roman Garmendia* 114

Literatura***Kontu-Kontari***

- Muskildiko Simone Veil pastoral, *Joseba Aurkenerena* 120
- Mamaita, *Joxemari Urteaga* 128
- 2022ko KARMEL aldizkariaren urteroko batzarra eta
oturuntza. Markina gainean *beti ala!ñ*, *Ainara Maia* 132

Olerkiak

- Libre, berriz ere. / Lilia. / Amodioaren hatsa,
Xerar Urrutia Jorajuria 134
- Oreneta, *Ainara Maia* 137
- Etorkin, *Lontzo Zugazaga* 138

Bertsoen txokoa

- Konstituziñotik kontzeziñorako zubia,
Karlos Ibarzabal 142

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina-Xemein
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 18€
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga
"Harryarts / Freepikek diseinatua"

Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestuak daude.



Eratzikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.

Erabiltzaileak Karmel aldizkariako elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian ailtortuz gero*. Karmel aldizkariako edukia baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiek birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste egintza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** aldez aurretiko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

Diruz lagundutako aldizkaria:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina-Xemein.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

BERTSOLARIEN ARTEKO NORGEHIAGOKAK, GUDUAK, DESAFIOAK

Bertsolaritza, berez, ezagutzen den historia edo garai zaharretara begira jarritz gero, euskararen basoko zuhaitz sustraitua delakoa dugu. Azkenaldiko garapen eta eboluzioan, kaleko baratzeetako zuhaitz apain eta jori izateraino iritsi dena. Hau da, bertsolaritzak badu bizi-indarrrik gizarte modernora ongi ekandurik eratzeko.

Baserri-mundura, bertsolaritzaren sehaskara, begira jarri naiz. Ez da harritzekoa, jende batzuk, ez gehiengoa noski, egiten duten guztian perfekzioaren edota gutxienez goi-gailurraren bila aritzea. Lanean ere ingurukoak baino hobeki jardun nahi eta, beste hainbatek ere desira eta jomuga bera izaten dutenez gero, berez-berez sortzen dira norgehiagokak, guduak, desafioak. Horra herri-kirolen sorrera, gehienetan apustu-airean mamitzen dena. Bertsolarien guduak eta desafioak ere ingurumari berean eta bertsozaleen giro bero eta grinatsuan garatu ohi dira. Zerbaitegatik deritza X. Amurizak “Hitzaren kirol nazionala”. Berez hitzezko jostaketa edo jolas antzera sortua, entzuleen eta herriaren berotasunean, joko eta borroka bihurtua.

Bertsolari-gudua

Honela dio Aitzolek Joseba Zubimendik idatziriko *Bertsolari-Guduak* liburuxkaren sarreran:

“Bertsolaria, geienean, ez da bakarrik jarduteko jaioa. Ingu-ruan adiskidea bear du, arerio antzean, guda bizian aritzeko. Orduan sormena arrotu, adimena zorroztu eta irudipena aberasten zaizkio.

Koplakarien arteko jardun oneri, antziñetik, *gudua* deitzen zaio. Etzaigu atsegin bertsolarien alkar jarduketari *batzaldi*, *jo-kualdi* eta kideko itzez ezagutzea, jatorrizko itz egokia dun ezker; izen egoki bakarra *bertsolari-gudua* bedi betirako”.

Behin, orain dela hainbat urte, Donostiako Anoetako belodromoan egin zen Euskal Herriko txapelketaren finalaz idaztean, honelako gogoeta egiten genuen paragrafo batean:

“Benetan lan gaitza zuten bertsolariek. Egun osoko lana. Luzea bezain zaila. Goizean hasterakoan bat-batean gainera zetorkien zama begiratzuz gero, beldurtzekoa! Oso urrun ikusiko zen amaiera, eta iraupenaren kezka. Egun osoan zehar trenpu onean eta burua argi dela iraungo ote den zalantza. Aita Martin Uriarte karmeldar sermolari eta euskal idazleak esan ohi zuena etortzen zait noizbehinka gogora. Sermoiak ongi egin ahal izateko honelako baldintzak behar zirela zioen hark: “bularra sendo, samea garbi eta buruan zer esan ugari”. Bertsolariek ere Anoetako plaza nagusi honetan beharko dute hortik pixka bat baino gehiago...

Antzinako bertsolarien gorabeherak irakurriz, haien sagardotegietako desafio luzeen berri izatean, maiz pentsatu izan dut neure baitan, halako bertso-guduetan bertsolari ona izatea ez zela aski, osasuna eta gorputzez ere sasoi ona beharko zela ezbairik gabe. Gauak ordu asko emanda gero, bietarik bat leher eginda erretiratzen zenean bukatzen baitziren. Gainera, eskuarki, ez ziren askoren arteko norgehiagokak, buruz buruzkoak baizik. Anoetako belodromokoak buruz buruzkoak ez dira, baina iraupen luzekoak bai. Leher egin artekoak direla esango nuke, espiritua egun osoan erne eta argi izatea ez baita batere erraza...”.

Bertsolari-guduen kronika zaharrak

Buruz burukoak zirela diogu aurreko lerroetan; hala ziren gehienetan, kronika horietan agertzen denez, baina inoiz bi biren kontra ere izaten ziren edo herri bateko bikote bat beste herri bateko bikotearen kontra.

Joan Ignazio Iztueta zaldibiarra eta Paulo Gorosabel tolosarra ageri zaizkigu bertsolari-guduen lehen kronikari. Kronika zaharrak diogu, baina tamalez gutxi dira eta berandukoak haien berri ematen digutenak, ordurako bertsolaritza Gipuzkoan oso landua eta zabaldua baitzegoen. 1801ean jokatu zen Billabonako Bertsolari-gudua. Antonio Zabalak *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* liburuan gai honetaz dioena, neu-re erara, euskaraz hona aldatzen saiatuko naiz.

Iztuetak kontatzen digu, Billabonako plazan nor baino nor jardun zutela Joan Ignazio Zabala Amezketakoak eta Jose Joakim Erroizena “Txabalategi” Hernanikoak. Dirudienez, bi herrien arteko bide-erdiko plaza hautatu zuten. Zabalak Iztueta bera begiz jo zuen epaile. Osasuneko gaitzen batek eragotzi zion hara joatea. Orduan Zabalak Fernando Amezketarra eramane zuen epaile. Jose Joakim Erroizena “Txabalategik”, berriz, Aizarnazabalgo sakristaua. Billabonako alkateak, birugarrentzat, Jose Mendizabal Tolosako apaiza hautatu zuen mahaiburuko.

Eraturik zegoen bezala egin zen, eta bi orduan bertsozko gudu bizian jardun zuten 4.000 entzule baino gehiagoren aurrean. Egiaz saiatzen zen bakoitza, bertsozko borroka aurkariarentzat gairik zailenetara eramaten eta lakioan harrrapatu, katigatu eta nahasten. Honela dio hitzez hitz Joan Ignazio Iztuetak: “batak besteari asmatu al zitzaten itz gairik nekezenac irikiaz, nondik eta nola alkar naspilatuko zuten alegiñic audienak egiten zituztela”.

Bertsolariak isildu zirenean, epaimahaikoak bildu aurretik, entzuleak oibuka hasi ziren esanez, bi-biek kantatu zutela ezin hobeki eta biak berdinduak gera daitezela nabi zutela.

Orduan Aizarnazabalgo sakristaua jaiki zen, eta biak berdindurik uzten zituztela adierazteko bertso bat kantatu zuen, honela amaitzen dena:

“Bata adinbat egin
bear degu bestea”.

Fernando Amezketarrak erantzun zion, bera ere iritzi bereko zela esanez; honela amaitzen da ahapaldia:

“Utzi bear ditugu
biak berdin-berdin;
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegin”.

Azkenik, Jose Mendizabal, mahaiburukoak, bi aurrekoen iritziarekin bat zetorrela adieraziz beste bertso bat kantatu zuen eta azken puntua honela zen:

“Bata bezin bestea
kantari onak daude”.

Entzuleak asebetterik eta poz-pezik geratu ziren, eta bi lehiakideen artean adiskidetasun sakon eta iraunkorra sortu zen. Eta Iztuetak amaitzen du esanez, Virgilioren Eglogetan ere horrela gertatu zela, Platon epaile zutela, Tirsis eta Damon-en artean.

Hau noiz gertatu zen Iztuetak diosku bere liburuan; hogei-ta bi urte izango direla datorren otsailean dio. Haren libu-

ruak 1824an ikusi zuen argia, baina ez dakigu liburua idatzi zenetik edo inprimatu zenetik diren hogeita bi urte. Zalantza bori Paulo Gorosabelek argitzen digu “Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa” liburuan, gertakari bera kontatzen baitigu, 1801. urtean izan zela esanez.

Beste gertaera bat ere kontatzen digu Joan Ignazio Iztuetak Fernando Amezketarraz. Behin, San Sebastian egunean, Azpeitira joan zen Fernando bertsolari azpeitiar baten aurka lehiatzera; azpeitiar hau, ordea, ez zen plazako norgehiagokara agertu, baina gaueko orduetan etorri zitzaion Fernando ostatzuz zegoen etxeko atera lagun batzuk ondoan harturik. Fernando isilik geratu zen une hartan, baina, biharamunean, bere aurkaria kalean aurkiturik, zortzi puntu edo erri-mako bertso hau kantatu zion:

“Lagunak arturikan
guzizko tirrian,
nere billa enbillen
bart gau erdian,
erronkak botatuaz
prestuezkerian,
ez dik ongi ematen
nork bere errian;
egunazko argian,
euskara garbian
jokatu nai nian,
bañan ez nauk ifini
iñon premian”.

Iztuetak dio gero, goi-mailako bertsolarien artean obikoak zirela honelako abapaldiak: “Zazpi ots ideko edo konsonante berdiñekiko itz neurtu mota oek kantatzea usuan jarririk dago Gipuzkoako itz neurtulari bikañen artean”. Baina oker diosku “zazpi”, zazpi errima, zenbatzen dituen nornabik egiazta de-zakeenez, aipaturiko bertsoa zortzi errimakoa baita.

Iztuetak dio, hau “orain ogeita lau urte” gertatu zela, beraz, 1800ean jarri beharko da, gutxienez.

Bai Iztuetak eta bai Gorosabelek beste bertso-jardunaldi baten berri ere ematen digute.

Antonio Zabalak Gorosabelen testua aipatzen du hitzez hitz, gaztelaniaz; nik neure erara euskaraz moldaturik dakart hona:

Beste horrelako norgehiagoka bat egin zen hurrengo urteko –1802ko– inauterietako hirugarren egunean, aipaturiko Zabalak, Fernando Bengoetxea Amezketakoaren, eta era berean aipaturiko Erroizena, eta Joan Bautista Altamira Tolosakoaren artean. Norghehiagoka lehen bien beste bien kontra izan zen azken hiribildu honetako plaza zaharrean. Laurak bi taulatan elkarren aurrez aurre jarririk, Gipuzkoako doinu herrikoi batean kantatu zuten arratsalde osoan; eta askoz luzeago ere jardungo zuketena, gauak amaiara eman ez balio jostaketa hain atseginari. Begira zeudenek ez zuten garbi zein bikote izan zen onena, hau da, trebetasun poetiko handiena erakutsi zuena.

Iztuetak dio, bestalde, Udalak deituak izan zirela eta lau hauek zirela une hartako Gipuzkoako bertsolaririk onenak, lauak letragabeak: “lauak letra bat bakarra ere ezagutzen etzutenak”. Eta uste du, goizaldera arte kantatzen jarraitu bahlute ere, entzuleetako inork ez zukeela alde egingo.

Lau kontu hauetaz gainera Iztuetak beste berri jakingarri batzuk ere ematen dizkigu:

Haserre bizian jartzen da, esaterako, harroputz eta sasile-traduen kontra, bertsolariek kantatzen zuten bitartean, baien keinu eta jarreraren imintzioak eginez, iseka egiten baitzuten. Dirudienez, antzinakoa izan behar du gure artean kanpoe-der izatea, hau da, kanpokoa imitatzea eta etxekoa gutxiestea.

Haserre bizian jartzen da, era berean, bertsolari bat pla-zan kantatzen entzun orduko debekatzen zioten alkateen aurka. Dirudienez bazen alkaterik, igande gauean bere etxe-ra itzultzean “irrintzi” edo oihu alaien bat egiten zuen “base-rritar” jatorra bederatzi egunerako kartzelan sartzen zuenik ere.

Amezketan, ordea, bertsolariak norgehiagoka aritzea bi-dezko jotzen zen. Iztuetak uste zuen, borregatik zeudela herri bonetan hainbeste bertsolari eta hain onak, eta inguruko be-rrietan ere hala izango zela, kantatzeko askatasun bera izan balute: “Amezketan zillegi da itz neurtuetan kantuz aritzea, eta beragatik irteten dirade andik, ainbeste itz neurtulari, eta ain egokiak. Auzo errietan ere berebat izango lirake, baldin kan-tatzea lokabe balute”.

Hau dio, gero, Antonio Zabalak: Iztuetaren albiste hauek guztiak aipatu nahi izan ditut, “Guipuzcoaco dantza gogoan-garrien condaira edo historia” liburuan “Itz neurtulari edo bersolarien jostaketa” izeneko kapituluan datozenak, oso gora handikoak baitira. Aipaturiko daten aurretik gauza ilunak eta puskak bakarrik datoz. Egonarrizko ikerketek ekar dezake-te nolabaiteko argia, baina gaur-gaurkoz dena dugu oso ilun. Iztueta da gure herria gebientsuen maite izan duena, bat-batean argi-turrusta bat botatzen duena eta Bertsolaritzaren Historiaren aitzindaria izatea merezi izan duena, baren Pre-historia dei genezakeenari amaiera emanez.

Iztuetarengan oso argi ikusten dena, bere garaian, bertso-laritzea antzina-antzinakoa zela eta denboraren oroipenetan galtzen zena.

Azkenik, gogoeta hau dakar Antonio Zabalak: *Egiaz tristuraz betetzen zaigu arima, bertsolaritzaren mende asko eta asko ilunpean dautzalako, Otaño, Xenpelar eta Txirrita askorekin eta baiek kantaturiko milaka ahapaldiekin, gure aurrekoen bizitza apala eta egunerokoa kantatuko zutenak, gure itsasgizonen eta gerrarien egintzak baino ere gehiago.*

Berriro garai zaharretako desfioetara etorritz, Antonio Zabalak, Gregorio Mugikak idatziriko *Pernando Amezketarra* liburuan datorren Txabalategiren ahapaldi bat dakar; hernaniar honek, izenik ez dakigun beste hernaniar bat lagun zuela, Fernando eta Zabala Amezketako bertsolariei erronka botatzen die, honela:

*Pernando ta Zabala
erri batekoak,
badakit zeratela
koplari bapoak.
Ez izanagatikan
zuek añakoak,
gu ere egin ginduzen
zerbait Jaungoikoak;
lengo apustukoak,
Napar-errikoak,
Lekunberrikoak,
etziran pijoak;
askoz obeak gaituk
Ernanikoak.*

Ezaguna da Ardotx Oiartzungoak Exkerra Berakoari bota zion erronka, baita Patxi Bakallok Xenpelarri bota ziona ere. Hona Patxi Bakallok bi bertsotan botatzen dion erronka eta Xenpelarrek beste hainbat bertsotan ematen dion erantzuna:

PATXI BAKALLO

*Iñork baldin badaki
Oiartzungo berri,
eskumiñak Ardotxi
eta Xenpelarri;
dibersiyo polit bat
nai genduke jarri:
birez erdi bezela
dago Bentaberri;
gonbidatzen ditut nai
badute etorri.*

*Desafiyo ori da
Bentaberrirako,
konpormatzen badira
birez erdirako;
ezpazaie egiten
gogorik arako,
lagun bat artuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Errenterirako.*

XENPELAR

*Pazko bigarren goizian
artu nuben karta,
bestek firmatuba da,
ez da gure falta;
suma ederra dezu,
eztarriya alta,
abiyatuko nazu
itz abek esanta:
gizona serbitzia
dibersio bat da.*

*Xenpelar probatzeko
egin dute masa,
gizon baten itzari
eman diyot traza;
ez Astigarratikan
onuntzago pasa,
bertara juango naiz,
egon zaitez lasa,
nai dezun ordurako
eska zazu plaza.*

Antonio Zabalak *Xenpelar Bertsolaria* liburuan hau dio hitzez hitz: “Bertso oiek desafioa dirala esan izan oi da bein baño geiagotan. Baditeke noski ola izatea, bañan alkarrekin bertso kantari arratsalde goxo bat igarotzeko deia ere izan ditezke”.

Xenpelarren eta Muxarroren artekoa ere oso ezaguna eta bertsozalearen oroimenean betiko finkatu dena da. Bertsolariak ez zuten behar izaten kanpoko inoren bultzadarik. Beren artean berotzen ziren bertso-gudurako.

Muxarro honen zenbait argibide emanez hasten zaigu Antonio Zabala. Bizente Retegi Iriberri zeritzala dio eta Oiartzun 1838ko uztailaren 13an jaioa. Eta Luis Jauregik idatzirikoa *Xenpelar Bertsolaria* liburuan datorren paragrafo hau dakar hitzez hitz:

“Xenpelar eta Muxarro alkarrei zirika eta eztenkadaka bertsoan maiz aritu arren, adiskide mami-mamiak izan ziran beti. Xenpelar baztangak jota zegoala oso gaizki, gau batean ixilik eta izkutuan –estu-estu galazita baitzegon–, Muxarro zintzoa kutsatzeko beldurak aldamenara botata, bere laguna ikustera etorri egin zan gero. Ortik antzemango diozu zenbateraño alkar maiteak ziran biak”.

Muxarro eta Xenpelar fabrika handiko langileak omen ziren, ehuleak; Muxarro langile soila, eta Xenpelar enkargatua. Fabrika handian erretzea debekaturik zegoen. Muxarro, orde, erretzaile handia izanik, komunera joan eta hantxe erretzen zuen. Xenpelarrek, zertan ari zen igarri, eta, enkargatua baitzen, zerbait esan behar. Antonio Zabalak dio, fabrika handiko liburuetan Xenpelar eta Muxarro fabrikako langile soilak zirela, eta bertso horietarako hartu zuela Xenpelarrek enkargatu-ofizioa.

Hona batak kontuak eskatuz eta besteak bere burua babes-tuz eginiko bertso-saio ospetsua:

XENPELAR

*Aizak i, mutil mañontzi,
nagusiari goraintzi,
ez al akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?
Jeniyo txar oiek utzi,
bestela ezurrak autsi,
gizalegia nola bear dan
ezin erakutsi!*

*Ziri bat sartu dit neri,
orain bestia berari,
abillidade gutxi duela
ez esan iñori;
azala dadukak lori,
mamirik ez duk agiri,
ezur igarra austen zailla duk,
bazekiat ori.*

*Gaztelaniya geroko,
ardua berialako,
nagusiari ejenplo onik
ez diyok parako;
gogua daukak arako;
paraje ona dalako,
eskola dezu txikiegiya
tertuliyarako.*

MUXARRO

*Nik badet gizalegia,
Prantxiskok baño obia,
beste tatxarik etzait arkitzen:
arlote pobria;
nik jeniya noblia,
kortesi paregabia,
neri ezurrak austeko nun dek
abillidadia?*

*Kunplitzik nere ordenak,
ez dik kalterik barrenak,
bestela parra egingo ditek
aditzen daudenak;
ik mundik dauzkak kemenak
menderatzeko gallenak?
ezur igarrak autsitzen dizkik
Indarra duenak.*

*Arrazoi txarra abian
dezu seitatik lauian,
egongo zera errespuesta
aditu nayian;
gabero nabil galdian,
ikusi nai nau aldian,
zuk baño obeki ematen det nik
Ango sukaldian.*

*Ardo guzien jueza,
maiz erateko promesa,
ofiziale ederra zera,
irudi inglesa;
zertako daukak grandeza?
txikia ikusi nai eza,
yo buen hombre, usted no vale,
hermoso cabeza.*

Antonio Zabalak hainbat ohar dakartza bertso hauetaz: “Dana dala, saio polita egin zuten. Zenbat bertso kantatu zuten? Auskalo! Aditzen zeudenak-edo ikasi eta gorde izan diranak, emen aurkituko ditu irakurleak. Bañan Xenpelarren illobak etxean zeukan eskuz idatzitako orri batean, zazpi arkitu ditugu. Eztakigu zazpiak alkarren segiran kantatu ziran, bañan paper ortan ala daude”.

Azkenik, Erretereriako Luis Mitxelenaren lekukotasuna aipatuz, hau esaten digu Antonio Zabalak: “Luis Mitxelena Jaunari entzun izan diogunez, berak txikitan entzuna omen du Muxarro etzala gauza Xenpelarri bat-batean erantzuteko, eta etxera joan, patxaraz pentsatu eta biaramonean kantatu oi ziola berea. Bai Xenpelarrek bereala erantzun ere, eta Muxarro osterata etxera. Onela egin omen zuten. (...) urte asko igaro da, txee-tasun hauek danak argitzeko”.

Xenpelar eta Iparragirre

Gauza guztiz jakina da Xenpelarrek eta Iparragirrek elkarrekin harremana izan zutela eta Xenpelarrek bertso ospetsu haiek kantatu zizkiola hari.

Nola gertatu zen hori kontatzerakoan, ordea, bi bertsio daude, bata bestearen osagarri antzera direnak. Bata Manuel Lekuonak, 1930ean, Bergaran “La Poesía Popular Vasca” izenarekin egin zuen hitzaldi batetik dator. Honela kontatzen da, bertsio honen arabera:

Xenpelarren ospea Donostiaraino iritsi omen zen. Hiri horretan bi bertsolari omen zeuden gailurrean: Ixkiña eta Bilintx, baina Erreneriako ehule harengan aurkari gogor bat ote zuten errezeloa sortu zitzairen eta probatu gabe ez zuten onik. Erronka bota behar zitzaion.

Eta igande batean donostiar batzuk Erreneriara joan ziren. Sagardotegi batean bildu ziren... Lehenik Bilintxek kantatu zuen eta ondoren Xenpelarrek.

Norgehiagoka estua zen. Baina herria Xenpelarren aldera makurtu zen. Ezbairik gabe, erreneriarak etorri eta agudezia zorrotzagoa erakusten zuen. Donostiarrek sentitu zuten eta airtortu behar. Xenpelar bertsolariagoa zen, baina honen kantatzeko erak ez zituen asetzen donostiarrak. Beraiek ekarriko zioten bertsoak musikaz hobeki kantatzen zekien kantari aparteko bat: Iparragirre.

–Iparragirre aipatu duzu? Eta zer doinu? Azken boladan kantatzen den eta jendeak hain gogoko duen hori? Hor doa...

Eta kantuari ekin zion Xenpelarrek:

Iparragirre abilla dela
askori diyot aditzen,
eskola ona eta musika
ori oiekin serbitzen.
Ni enazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komediante moduan;
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika,
bertsolariya gañera,
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen bagera.
Atoz gure kalera,
baserritar legera,
musika oiek utzita;
Erreteriyen bizi naiz eta
egin zaidazu bisita.

Beste bertsioa Luis Jauregiren *Xenpelar Bertsolaria* liburuan kontatzen dena da; hona hitzez hitz:

“Bein, Iparragirre eta Xenpelar Donostiako sagardotegi batean arkitu omen ziran, eta Iparragirrek esan:

–Etorri nai al dek nerekin? Nik soñua jo eta ik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk.

Xenpelarrek ezetz. Orduan Iparragirrek esan omen zion:

–Ik beti doñu zarrean kantatzen baitituk bertsoak. Ez izan gauza nere doñu berriaz bertsoak egiteko. Argatik ez dek nerekin etorri nai.

Xenpelarren erantzuna auxe izan zan: doñu berri-berri onekin bertso eder auek abestu. Doñu onei geroztik Iparragirrenen doñua esan oi zaio”.

Antonio Zabalaren *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* liburuan beste desafio baten berri ere badator. Euskaraz neure erara jarririk ekarriko dut hona:

Behin, Uztarri eta Kortazar, Azpeitia-Azkoitia inguruko bertsolariak, Lezoko herriko jaietara zihoazen. Uste dut Odria, Etumeta, Iturrioz, Andazarrateko bide zaharretik joango zirela, gero Zizurkilerantz jaisteko. Otañotarren etxe ondotik, Errekaldetik, igarotzean, bertso hau kantatu zuten:

“Besuan txaketa ta
eskuan makilla,
Santa Kruz bezperan
nua Zizurkillan,
lagun bat ere badet
kantari abilla,
aproposito irten naiz
kontrariyo billa,
artarakorik bada
agertu dedilla”.

Bertso honen beste aldaerarik ere badela dio Antonio Zabalak eta hala jasotzen du berak *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)* izeneko liburuan. Hona hemen aldaera:

*Bizkarrean txamarra,
eskuan makilla,
Santa Kruz bezperatik
gatoz Zizurkillan.
Erri ontan omen da
gizon bat abilla,
kantatzeko badago
etorri dedilla.*

Uste da Errekalde Zaharrak bidaliko ziola erantzun hau:

*“Atia kox.kox jota
egin zazu galde,
etxian ote dagon
Pedro Errekalde.
Ez izanagatikan
almazenan jabe,
etzerade joango
erantzunik gabe”.*

Usurbilko Joan Jose Alkain “Udarregi”ren biografian, Antonio zabalak badakar bertsolarien arteko desafioetako gertakari bat. Ez bestek eraturikoa, beraien artean sorturiko bertso-gudua baizik.

Haren aitak Joan Migel Alkain zeritzan eta aiarra zen. Bertsolaria zen; ez semea bezain puntakoa, baina bertsolari on samarra, Antonio Zabalak dioenez. Behin, igande goiz batean, tristuraz etxeratu omen zen. Eta semeak galdetu:

–Zer duzu, aita?

Eta aitak erantzun: –Egundokoak eman dizkidate gaur.

–Jo egin al dute, bada?

–Jo ez, baina Ollokik bertsotan gaizki erabili nauk.

–Etxean daukagu gauza horren erremedioa, aita, ez kezkatu.

Etxean zeukaten erremedio hori Udarregi bera zen. Eta Olloki, Udarregitarren auzoan bizi zen beste bertsolari bat, orduko bertsolari onen arteko bat.

Bazekien ilunabarrean ailorbetara etorriko zela. Hala, ilunabarrean, bat egin zuten Ollokik eta Udarregi gazteak, eta honek honela ekin zion:

*Aspaldiyan arro zabiltz,
Manuel Olloki,
gure kontra mintzatzen
zerade galanki;
zu nagusi zinake
bestek ezpaleki,
gu ´re bizi gera ta
zabiltza poliki.*

Saio luzea egin omen zuten, baina goizean nagusi izan bazen ere, ilunabarrean mendean zen Olloki, aitarene partez Udarregi semeak azpiraturik.

Pastor Izuela

“Pastor Izuela” izenaz da ezaguna bertso-munduan; horrelaxe, gaztelania-erara. Joan Agustin Arruti Larragoien zerritzan, Aiako Altzola auzoko Izuela baserrian jaioa, 1780ko otsailaren 8an eta Aiako Urdaneta auzoan hila 1837ko ekainaren 6an.

Beraren ogibidea artzantza eta ganadu-tratua zen. Bertsolaritzan, bai bat-batekoan eta bai bertsopaperak idazten oso oparoa dugu. Negu gogor batean hotzak ardi guztiak hil omen zizkion. Bertsopaperak herriz herri salduz, artalde berri batez jabetzea lortu zuen. Bertso jarrietatik askotarikoak ditu; garai hartako gainerako bertsolarien antzera, gai erlijiosoa dabiltenak eta bestelakoak.

Behin, beste bertsolari batekin desafioa egin omen zuen, epaimahaiko eta guzti. Bakoitzak berrogeita hamarna bertso kantatu behar zituen. Bukatu zutenean, mahaikoak epaia ezin emanik gertatu ziren. Orduan bi bertsolariei galdetu zieten ea lehen kantatutakoak berriro kantatuko zituzten. Besteak ezetz esan zien eta Izuelak baietz; baita kantatu ere. Orduan epaimahaikoek Izuela eman zuten irabazle.

Antonio Zabalak, *Bosquejo de Historia del Bersolarismo* liburuan dio, Pastor Izuelaz hainbat argibide eman ondoren: *Oraindik baren irudia lauso geratzen zaigu. Hala ere, bidegabeki ahaztua den bertsolari baten aurrean gaudela uste dut. Horregatik adierazi egin nahi izan dut.*

Pello Errota eta Txirrita

Izen hauek aipatzean, bien arteko bertso-borrokak eta elkarri botatako zirikadak datozkigu gogora. Bata-besteak ikusi

orduko, bor-bor jartzen zitzairen barrua eta irudimena piztu. *Pello Errota ikusi eta / nik hartzen dudak kolera*, dio Txirritak. Ez dakigu ziur non izan zen; Andoainen izan zela diote batzuek; Tolosan, feria egun batean izan zela, beste batzuek; Goizuetan izan zela diotenak ere badira. Txirrita goian zen, balkoian; Pello Errota, berriz, behean, kalean, plazan. Txirritak ikusi zueneko botatzen dio gezia:

TXIRRITA

Bertso polit bat kantatuko det
balkoi ontatik kalera,
Pello Errota ikusi eta
nik artzen dedan kolera!
Asteasutik etorri eta
erronkan asi al zera?
Laster uxatuko zaitut nik zu
jaitsitzen banaiz or bera.

PELLO ERROTA

Arrazoi batez ez dek egundo
ezagututzen personik,
poliki xamar asi aiz baño
ez dek egingo gauz onik;
sekulan iñork etzidak esan
erronkosua naizenik,
balkoi ortatik ez dek jaitsiko
ni uxatzeko gizonik.

Beste behin, Txirrita harro agertu omen zen plazara, bi alkandora soinean zituela eta Pellok hortik oratu zion:

PELLO ERROTA

Ari naizela, ari naizela
or ikusten det Txirrita.
Eta zein ez da arrituko gaur
gizon ori ikusita?
Dударik gabe egiña dio
andregaiari bisita:
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

TXIRRITA

Auxen da lotsa eman didana
gizon artera sartuta,
edozer gauza esaten degu
edan tantokin poztuta;
bi alkandora ekarri ditut
bat erantzia ahaztuta...
Pellok bi nola jantziko ditu,
bat besterikan ezta-ta.

Bertsolariek begiak zorrotz izan ohi dituzte, aurkariaren akatsak nahiz hutsuneak ikusteko. Hau da, eraso egiteko edo zirikada botatzeko, nondik joa, nondik heldua bilatzen dute. Pello Errota burusoila zen eta burua txapelaz estalirik zuela ibiltzen zen beti. Txirritak, behin, hortik eraso zion Andoainen, eta Pellok ere bertatik erantzun. Txirritak, Pelloren buruari erreparatuz gero, jeneral baten antza zuela bota zion. Hona bataren zirikada eta bestearen erantzuna:

TXIRRITA

Pello ipini zaigu
gutzizko graduan,
nai duenak ikusi
orra nun daguan;
ni umil ibiltzen naiz
orren inguruan,
jeneral baten antza
badauka buruan.

PELLO ERROTA

Txirrita burla egiten
ari zera neri,
ilargi haundi xamarra
dalako ageri;
orrela soiltzen bada
zure aundi ori,
argi egingo dio
mundu guztiari.

Kepa Enbeita “Urretxindorra”

A. Santi Onaindiak, *Enbeita Oleskaria* liburuan, Kepa Enbeita “Urretxindorra” partaide izan zeneko sariketa baten berri ematen digu. *Zelai*a zeritzan Urretxindorraren adiskide batek Ondarretan (Las Arenasen) bertso-sariketa bat antolatu zuela diosku. Gipuzkoarrak ere etortzeko omen ziren, horien artean Txirrita. Harro samar zetoze la kontatzen da hor, bizkaitarrik agertuko balitz, bizkarra berotzekotan. Zelaiak esan zion Urretxindorrari: “emen dituk Txirrita eta gipuzkoarrik

onenak, eta eurak diñonez, bizkaitarra mutu geratuko ei dok irugarren bertsorako”.

Kepa Enbeitak erantzun: “Bai, neure ustez be onenak dira; baiña mutu izte ori lartxo esatea dala deritxat. Begira: nik beti gura izan dot neu baiño geiago diranakaz burrukatzea. Ikusi egingo dogu”.

Ekin eutsoen bai batzuk bai bestetzuk. Bizkaitarrari zirika gipuzkoarrik geienak; Aizarna bertsolari ospetsuak, batez be, urte bete t’erdi ebazan bere semearentzat emaztegeia eskatzen dautsa Kepari: eta Kepak, ondo zorrotz eta trebe, erantzun:

Zenbat pertsona dauzan
 ainbeste jeniño,
 Aizarnan errazoaia
 aundi dok, orraiño,
 semiantzat nobiya
 bear daula diño:
 urte bete ta erdi
 ez ei dauz ondiño,
 sopak obe leukezak
 nobiyia baiño.

Saioa amaitu zanean, maikoak erabagi au emon eben: Lenengo saria, Enbeita-tar Kepa; bigarrena, Lujanbio-tar Manu (Txirrita). An zan Kirikiño ta, adeitsu baizen itz beroz, zoriondu eban Kepa, jai aretara eldu ziranen txalo artean.

Urretxindorraren bertso eder hori bakarrik salbatu da saio horretakorik; besterik ez da jaso, ez Txirritarenik, ez Aizarnarenik, ez Kepa Enbeitarenik ere besterik. Tamalgarria...

Txirrita eta Basarri

“1935eko San Sebastian egunean jokatu zen Lehen Bertso Gudua, egungo Bertsolari Txapelketen aurrekari nagusia. Puntako hogeit bertsolari lehiatu ziren, Donostiako Kursaal Zaharreko Poxpolin aretoa leporaino beteta zegoela. Baina lehia hutsetik harago, egun hura historiara igaro da oholtza berean bertsolaritzaren bi eredu guztiz desberdin elkartu zirenekoa bezala: taberna giroan zaildutakoen bertso molde zirikatzailea alde batetik, eta garaiko balioekin bat egiten zuen kantaera zuzen-zaleago bat, bestetik. Kontakizun honek hiru protagonista ditu: erreumak jotako Txirrita zahartua, gorbata jantzita datorren Basarri gaztea, eta Aitzol, Pizkundeko estrategia, aberriaren espiritua berpizteko lainoak eta sasiak astintzeko prest dagoena” (Kepa Matxain *Argia* astekaria).

Txirritak nahiko arrotz sumatzen du hango giroa. Aitzolentzat eta euskal pizkundeaz amets egiten dutenentzat euskararen, bertsolaritza berriaren eta Aberriaren egun handia izango zen hau. Txirritarentzat, oster, bere bizi-giroari eta bere betiko bertsolaritzari egiten zaion desafioa. Hango lehiakide batzuk ezagutzen zituen, baina beste asko ez. Ez zegoen batere gozo han, eta batez ere sotanadun hari nondik zirikada botako ari zen eta euskararen gaia jarri zietenean, aukera ona ikusi zuen. Egin-eginean ere, Pello Mari Otañoren “Limosnatxo bat” izeneko doinuan kantatzeko gaia hau zen: *euskara galtzen ari dela eta euskara galduz gero, gu ere galduak garela betiko*. Basarrik, Pizkunde-ametsekin sintonia eginez, estilo berrian kantatu zuen; Txirritak, berriz, bere betiko estilo zahar eta umorezkoan; baina, oraingoan, salaketa-ozpin tanta bat nahasiz. Hona bien bertso bana¹:

¹ Gainerako bertsoak nahi izanez gero, ik. *Bertsolari Gudua*. 1935-1936, Euskaltzaleak, 2. Argitaldia, 1985, Gipuzkoako Foru Aldundia.

BASARRI

Itxas ertzetik entzuten dira
ama euskeraren antsiak
ta bai dirala illun tristeak,
ene! bai negargarriak.
Nola kanpoan ala etxean
nunai badauzka etsaiak,
au oldoztuta malko trinkotan
betetzen zaizkit begiak;
bera iltzen bada ez du askorik
paltako Euskalerrriak.

TXIRRITA

Larogei urte gainean ditut,
nago anketako miñez,
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez.
Euskera ia aztu zait eta
erderarikan jakin ez,
maixu batekin eskolan laster
asi bear det latinez.

“Maisu” hitza aipatu zuenean, *Aitzol* bera seinalatu omen zuen bastoiaz. Txirritaren bertso hori algaraka txalotu zuen jendeak. Izan ere, beraren marka zeraman. Ez zitzaion jarritako gaiari estu-estu lotu, baina nahi izan zuena kantatu zuen eta nahi izan zuen moduan. Bertso horretan bere burua eta bere izaera ongi marrazturik utzi zituen eta historiako bertsozalearen oroimenean eseki betiko.

Ez dakit Aitzolek egun horretan zer amets zerabilen. Ziur asko, Euskal Herriaren pizkundea izango zuen gogoan eta, beharbada, bertsolaritza gaurkotua, findua eta taberna-zuloe-tatik erauzia, olerkariena baino tresna indartsuagoa izan zitekeela horretarako.

Amets horien artean, denboraren bidaia profetikoan mugitzerik izan balu, beharbada, ikus zezakeen Xalbador bat, Amuriza bat edo Egaña bat, baina nekezago emakumeak bertsotan normaltasun osoz egiten eta haietako bat, Maddalen Lujanbio, bi aldiz Euskal Herriko txapelaz janzten. Oraingo bertsozaleok zer ikusiko ote dugu etorkizunean, bertsolaritza eta bertso-eskolak gizartearen hain sartuak eta errotuak daudenean?

Luis Baraiazarra Txertudi

LEKUKOTASUN ARKEOLOGIKOAK ERRIOXAN. ERROMATARREN PRESENTZIA. MAPA BERRIA

Sarrera

Karmel aldizkariaren azkenaldiko zenbakietan Euskal Herri osoko erromatarren presentziaren lekukotasunak ikertu eta eskaini ditugu: Gipuzkoakoa (*Karmel* 2018-3, 17-36), Bizkaikoa (*Karmel* 2021-3, 27-42), Arabakoa (*Karmel* 2022-1, 39-74), eta Nafarroakoa eta Ipar Euskal Herrikoa (*Karmel* 2022-3, 28-67), bide batez mapa berriak eginez.

Oraingoan egoki eta beharrezkotzat jo dugu erromatarren aztarnak edota erromatarren presentzia, ikuspegi historiko, sozial eta erlijioso aldetik antzinako mendeetan zehar Euskal Herriari oso lotua ageri den lurraldeari buruz, hots, Errioxari buruz jardutea.

Jadanik K.a.ko II. mendean erromatarren presentzia ageri zaigu Errioxan. Sozialki areagotuz joan zen presentzia hori inperioa desegin zen arte. Ondorioz mende horietako arkeologia-datu ugari ditugu bertan.

Ikerketa arkeologikoen materiala hainbat liburutan aurki dezakegu; baita aldizkari batzuetan ere, hala nola, *Kalakotikos*, *Berceo*, *Iberia* aldizkarietan eta beste hainbatetan.

Ikerlan orokorrak, kontsulta daitezke, esaterako, *Carta arqueológica de la Rioja*¹, edota espezifikagoak: hala nola, inskripzioei eta epigrafeei buruzkoak², erromatarren buztinolei buruzkoa³, komunikabideei buruzkoak⁴, edota lurralde mugatuagoei nahiz hiriei buruzko ikerketa lanak. Esaterako Varea hiriari⁵, Libia hiriari⁶, eta, batez ere, Calahorra hiriari buruzkoak⁷; badira buztinolei

¹ PASCUAL MAYORAL, Pilar - PASCUAL GONZÁLEZ, Hilario, *Carta arqueológica de La Rioja. I. El Cidacos*, Logroño 1984, 51-59.

² ELORZA Y GUINEA, Juan Carlos - ALBERTOS FIRMAT, María Lourdes - GONZÁLEZ, A., *Inscripciones romanas en La Rioja*, Logroño 1980; ESPINOSA RUIZ, Urbano, *Epigrafía romana de La Rioja*, Logroño 1986; MARCOS POUS, Alejandro, *Aportaciones a la epigrafía romana de La Rioja*, Berceo (1974) 119-134.

³ GARABITO GÓMEZ, Tomás, *Los alfares romanos riojanos. Producción y comercialización*, Madrid 1978, 421-434.

⁴ MAGALLÓN BOTAYA, María de los Angeles, *La red viaria romana en La Rioja*, Cl (Historia) 9 (1983, 1 .zk.) 153-166; MIGUEL DE HERMOSA, Angel Ramón De, *Las comunicaciones en época romana en Álava, Navarra y La Rioja*, TAN 10 (1991-1992) 337-363.

⁵ ANDRÉS VALERO, Sebastián - TIRADO MARTÍNEZ, José Antonio, *Varea - 1979-1988: Epigrafía numismática*, Berceo (1991, 120.zk.) 7-64.

⁶ MARCOS POUS, Alejandro, *Trabajos arqueológicos en la Libia de los berones (Herramelluri, Logroño)*, Logroño 1979.

⁷ AMELA VALVERDE, Luis, *Las dos primeras emisiones latinas de la ciudad de Calagvrris*, Kalakorikos 17 (2012) 127-146; ANGULO SÁENZ, Teresa - PORRES CASTILLO, Fernando, *Intervención arqueológica realizada en solar sito en Avda. de la Estación 5, de Calahorra*, Kalakorikos 14 (2009) 127-158; ANTONANZAS, Asunción - CASTILLO, Pepa - GARRIDO, Javier, *La ermita de los Stos. Mártires o casa santa (Calahorra, La Rioja): ¿Una cárcel romana?*, Kalakorikos 5 (2000) 13-28; BIENES CALVO, Juan José, *Seguimiento arqueológico en las calles Pastelería y Mayor. Calahorra (La Rioja)*, Kalakorikos 18 (2013) 27-36; CINCA MARTÍNEZ, José Luis - ANTONANZAS, M Asunción - NICOLÁS PÉREZ, Elena, *Restos arqueológicos de época romana en polígono Tejerías (Calahorra)*, Kalakorikos 3 (1998) 207-215; CINCA MARTÍNEZ, José Luis - IGUÁCEL DE LA CRUZ, Pilar - ANTONANZAS, Asunción, *El alfar romano de Calagurris (Calahorra, La Rioja): nuevos datos*, Kalakorikos 14 (2009) 173-212; CINCA MARTÍNEZ, José Luis, *Elementos de alfar en el caso urbano de Calahorra. ¿Un nuevo taller de producción de cerámica romana?*, Iberia 3 (2000) 319-332; CINCA MARTÍNEZ, Jose Luis, *La presa romana de la Degollada (Calahorra, La Rioja)*, Kalakorikos 17 (2012) 331-35; CORTÉS MONTERO, Roberto, *Calagorre: la ceca visigoda*

buruzkoak⁸, batez ere 'La Maja' deritzaneko erromatar buztinolari buruzkoa⁹ nahiz Cantarrayuela-ko buztingintza-

de Calaborra. Aproximación a sus monedas reales, Kalakorikos 18 (2013) 59-71; CRESPO ROS, María Soledad, *Una terracota arquitectónica encontrada en el alfar de la Maja (Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 2 (1997) 275-280; ESCRIBANO PARDO, Jesús Emilio, *Sobre una forma Drag. 29 en T.S. G. procedente de Calaborra (La Rioja)*, Kalakorikos 2 (1997) 257-262; GIL ZUBILLAGA, Luis - LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Intervenciones arqueológicas en varios solares del entorno del centro comercial ARCCA de Calaborra (La Rioja): II*, Kalakorikos 17 (2012) 356-406; GÓMEZ MORENO, J. - CASTILLO PASCUAL, P., *Nuevos testimonios epigráficos en Calaborra (1)*, Kalakorikos 4 (1999) 231-235; GONZÁLEZ BLANCO, A., *El anfiteatro de Calaborra*, Kalakorikos 3 (1998) 194-196; LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Cerámicas comunes de importación de época romana en el municipium Calagurris Iulia (Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 6 (2001) 71-100; LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Cerámicas engobadas de importación de época romana procedentes de Calaborra (La Rioja)*, Kalakorikos 3 (1998) 29-40; LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *El instrumentum domesticum del municipium Calagurris Julia. 1. La Cerámica común romana autóctona del valle del Ebro*, Kalakorikos 4 (1999) 65-82; LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *La "Dama" de Calaborra setenta y cinco años después*, Kalakorikos 15 (2010) 11-35; MARTÍNEZ TORRECILLA, José Manuel, *Un vaso de terna sigillata itálica de la calle Carretil de Calaborra*, Kalakorikos 1 (1996) 189-190; PASCUAL MAYORAL, M Pilar - GARCÍA RUIZ, Pedro, *La necrópolis de Villanueva. (Calaborra-La Rioja)*, Kalakorikos 7 (2002) 103-120; VELAZA FRÍAS, Javier - CINCA MARTÍNEZ, José Luis - RAMÍREZ SÁDABA, José Luis, *Nuevo testimonio de las guerras sertorianas en Calaborra: un depósito de proyectiles de catapulta*, Kalakorikos 8 (2003) 9-30; VELAZA FRÍAS, Javier, *Una nota sobre las inscripciones halladas en Avda. de la Estación 4 (Calaborra)*, Kalakorikos 16 (2011) 115-121

⁸ SÁENZ PRECIADO, J. Carlos, *Los alfares de época tardorromana en el valle del río Najerilla (siglos I V-VI d.C.)*, Berceo (1995, 128.zk.) 124-125.

⁹ GONZÁLEZ BLANCO, A. - MATILLA SÉIQUER, G. VICENTE SÁNCHEZ, J. J. - NICOLÁS PÉREZ, E. - ESCRIBANO PARDO, E - GALLARDO CARRILLO, J. - CELDRÁN INIESTA, A. - LECHUGA GALINDO, M., *El alfar romano de la Maja (Pradejón-Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 4 (1999) 9-64; González Blanco, Antonino, *El alfar romano de La Maja (Pradejón-Calaborra, La Rioja). Historia de la investigación*, Kalakorikos 2 (1997) 9-21; Luezas Pascual, Rosa Aurora, *Producciones cerámicas de paredes finas y engobadas del alfar romano de "La Maja" (Calaborra, La Rioja): hornos I y II*, Berceo (1995, 128.zk.) 159-200.

ekoizpenari dagokiona¹⁰ edota Varea-ko zeramikari buruzkoa¹¹ etab.

Oharra termino baten erabilerari buruz

Aurreko bi idazlanetan, bata *erromatarren presentziari buruzko lekukotasuna* Araban (Karmel 2022-1, 39-74) eta, batez ere, Nafarroari dagokion idazlanean (Karmel 2022-3, 28-67) adiera polisemikoa duen ‘hiri’ terminoa erabili genuen, erromatarren garaiko kokagune txikia (eraikin nagusi baten inguruan beste zenbait apalago zituena) adierazteko. Erromatarren garaiko egoerari gehien egokitzen zitzaiona, baina, euskaraz ‘baserri’ terminoa genuke, behar bada. Termino horrek, baina, adiera oso zehatza hartua du gaur egun. Hori dela eta, terminorik egokiena ‘etxalde’ (nekazaritzako edo abeltzaintzako lurrak dituen etxea) izan daitekeela uste dugu. Beraz, erabilitako ‘hiri’ terminoa, aipaturiko lanetako zenbait kasutan, ‘etxalde’ terminoaren adieran ulertu behar da. Kasu hauetan agertzen da: Araban (Aloria/Arrastaria eta Kabiana herrietan) eta Nafarroan (Ablitas, Alesbes, Arellano, Arroitz, Artajona, Cascante, Corella, Eslava (Santa Cruz), Faltzes (Los Villares; San Esteban), Funes, Irunberri, Ledea, Murillo El Cuende (Los Olmos), Muru-Astrain, Oibar, Puiu, Ramalete (Tutera), San Martín Unx, Santacara, Sare eta Xabier herrietan).

Agoncillo: erromatar galtzada ondoan hiru miliario; Recajo aerodromoko lurretan estela bat; bi aldare inskripziodun, hiru miliario; *Velila*-ko lurretan eta *La Atalayuela*-koan (beranduko *sigilata hispaniko berantiarra*), etab.

¹⁰ LUEZAS PASCUAL, ROSA AURORA, *La villa romana de Cantarrayuela: un nuevo centro de producción alfarera de época romana*, Kalakorikos 10 (2005) 115-136.

¹¹ LUEZAS PASCUAL, ROSA A. - SÁENZ PRECIADO, PILAR, EVA, *La cerámica romana de Varea*, Logroño 1989, 358 or.

Barbariana: (Berberanako San Martin): “mansio” bat.

Recajo: I. mendeko bi hilarri bi.

Alhama ibaiko Aguilar: *Inestrillas / Kontrebia Leukade:* hiru zati.

Alberite: I. mendeko bi ehorzketa-monumentu.

Alcanadre: ehorzketa-aldarea, hiru zati.

Aldeanueva: oroimenezko inskripzioa aldare baten gainean.

Alfaro: (Gracchurris): bi inskripzio, bata San Martineko larrainetan (Kristo o.ko I. m.) eta bestea IV-V. mendeei dago-kiena. Zeramika berantiarraren aurkikuntza. “Mansio” bat (San Martineko larrainetan).

Arenzana de Abajo: beheko Arenzanan buztinola, baita *terra sigillata hispanikoa* eta berantiarra.

Arenzana de Arriba: goiko Arenzanan buztinola, forma ezberdinetako gauzen ekoizpen gunea.

Arnedo: inskripzio bat, *sigillata* berantiarraren lagina.

Azofra: inskripzioa.

Badarán: moldean apaindutako *sigillata*.

Aventines (Badarán); zenbait materialen aurkikuntza: *terra sigillata hispanikoa*, hispaniko berantiarra, moldezko zatiak, etab.

Sobrevilla (Badarán); zenbait aurkikuntza: *terra sigillata hispaniko* berantiarra, moldezko zatiak; zeramika zigiludunetan ageri denez eragipen afrikarra, etab. Materialok I-IV/V. mendeei dagozkie.

Via Vacas (Badarán); zenbait aurkikuntza: *terra sigillata hispaniko* berantiarra, moldezko zatiak; eragipen afrikarra, zeramika zigiludunetan ageri denez, etab.

Baños del río Tobía: I-IV. mendeei dagokien buztinola.

Berceo (Prados); zenbait aurkikuntza: *terra sigillata hispaniko berantiarra*, moldezko zatiak; etab.

Bergasa: *Las Cenadillas* barrutian: harlanduzko hormak; kronologia beratiarreko *sigillata*-zatiak.

Bezares: goi-inperioko *terra sigillata*. Buztinola garrantzitsua; forma ezberdinetako gauzen ekoizpen gunea

Briones: (*Ventas de Valpierre - Atiliana*) ‘mansio’ bat. Mosaiko zatiak, zeramika berantiarrak eta IV-V. mendeetako etxalde bati dagozkion zenbait txanpon.

Calahorra/Kalagurri (Calagurris): hiri erromatarra. Garai berantiarreko aurkikuntzak, Zeramika berantiarren presentzia. Eraikin erromatarren hondarrak; eskultura erromatarrek; erromatar zeramika arruntezko ontziak; *terra sigillata hispanikozko* edalontziak, etab.; Lau inskripzio (I-III. mendeetakoak); 17 inskripzio zeramiketan (zatietan): I-III. mendeetakoak, etab. etxalde baten hondarrak izan daitezkeenak **Valroyo** barrutian: *sigillata berantiarren* zatiak. Buztinola erromatarra. Zeramika italiarra, afrikarra, tokikoa etab.; erromatarren zeramika arrunta: sukaldekoa, mahaikoa, biltegikoa, etab. Apain-mahaiko eta liturgiako ontziak; jatorria La Majan duten I. mendeko zeramikak. Ehorzketa inskripzioa: I. mendearen erdialdetik II. mendeko hasiera artekoa; ‘mansio’ bat. Txanpongintza K.a.ko I. mendean. Arulak, kulturako estatutuak, amuletoak eta elementu falikoak. ‘Istrumentum domesticum’ (*erra sigillata hispanikoak*, zeramika arruntak, argi-zuloak, objektu pertsonalak, etab.).

Calle Carretil (Calahorra): *terra sigillata italikozko* edalontzia, Klaudioren garaikoa.

Anfiteatro (Calahorra): anfiteatroak eraikin erromatarren izaera du; zeramika erromatarra, baita *sigillata hispanikoa* ere.

Avda. de la Estación 5 (Calahorra): geltokiko etorbidean. eraikin-egituren hondarrak; zeramikak eta txanponak II-IV. mendeen artekoak, baita zeramika galikoak, afrikarrak, etab. Hiru inskripzio. K.a.ko I. mendeari dagozkion materiala.

Calle del Sol (Calahorra): Calahorra erromatarreko bost horma-hondar; zeramika arrunta, *sigillata*, etab.; I. mendeko zirku erromatarra.

Calles Pastelería y Mayor (Calahorra): arkeologia-materialak eta goi-inperio garaia dagozkion zeramika-sorta ugaria, I-II. mendekoak.

Calles Tilos, Chavarría, José María Adán y avenida de la Estación (Calahorra): K.a.ko I. mendeari dagokion materiala.

Calle San Blas (Calahorra): izaera publikoa zuen terma-instalazioa, etab., urre-kolorez apaindutako zeramika, jatorriz Italiakoa.

Casa del Oculista (Calahorra): ontzia, *sigillata* (I. mendekoa) etab. Buztinola.

Casco urbano (Calahorra): hirigunean molde-zatien presentzia; horiek bertan buztinola bat egon zela pentsatzera daramatzate.

Ermita de los Stos. Mártires (Calahorra): Santu Martirien ermita eraikin erromatarra egon zela adierazten duten aztarnak; zeramika erromatarra, baita *sigillata hispanikoa* ere.

Fuente de los Trece Caños (Calahorra): urrezko eraztuna, Jupiter jainkoaren inskripzioa duena.

La antigua fábrica de los sres. Torres (Calahorra): K.o.ko I. mendean erabilia, garai horretako materialak dituela. Torres jaunen antzinako kontserba fabrikako etxea; aztarnategia: I eta III. mendeen artean erromatarrek okupatua.

La Clínica (Calahorra): I-II. mendeei dagokien eskultura.

La torre de Campobajo (Calahorra): erroatarren materialak daude, bi edalontzi, IV edo V. mendeei dagozkienak.

Los jardines de la Glorieta (Calahorra): 'Glorieta'-ko lorategietan; buztinola erromatarra: zeramika-material multzo garrantzitsua.

- Paraje de la Degollada** (Calahorra): (erromatar urtegia) goi-inperio garaikoa.
- Polígono Tejerías** (Calahorra): ‘Tejerías’ poligonoan: zeramikak: *terra sigillata hispaniko* motakoaren zatiak, apaindutako zeramikaren zatiak; *sigillata italikoaren* zatiak; *sigillata hispaniko berantiarraren* zatiak, ‘dolium’ zatiak, etab. Horiek etxalde motako kokagunea zela adierazten dute.
- Solar de la calle Tilos** (Calahorra): ‘Tilos’ kaleko orubean; K.o.ko I. mendeari dagozkion egiturak, eta zeramika arrunt ugari. K.a.ko I. mendeari dagokion materiala.
- Villanueva (El Cascajo)** (Calahorra): nekropolia; baita erromatarren presentzia; inperio-garaikoa; teila erromatarra moduko zeramika-materialak.
- Canales de la Sierra:** inskripzioak, bi I. mendeari dagozkionak.
- Cañas: El Villar:** 41 molde zatiren aurkikuntza (*sigillata hispaniko berantiarrentzat*) eta zeramika multzoa, IV-VI. mendei dagozkie.
- Castañares de Rioja:** Errioxako Castañares-en inskripzio bat, ehorzketa lauza, I. mendearen bukaerakoa edo II. mendearen hasierakoa.
- Cenicero:** behe-inperioko zeramikak.
- Cervera del Río Alhama:** bi inskripzio, oroimenezko aldea (II-III. mendeen arteko), eta ehorzketa-inskripzio bat (II-III. mendeen arteko).
- El Rasillo de Cameros:** II. mendearen inguruko hiru inskripzio; hilarria.
- Enciso: Navalsaz (término El Castillo):** ‘El Castillo’ barrutian harresi hondarrak; zeramika zatiak, II. mendeko txanpon bat.
- Entrena:** sei zati, *sigillata*; *hispaniko berantiar* motako ontzia, nekropoli batetik ekarria.
- Estollo:** aldare inskripzioduna; *sigillata hispaniko berantiar* motako hainbat formatako zati batzuk.

Fuenmayor: etxalde erromatarra: txanpon-altxorra; *terra sigillata berantiarra*.

Gallinero de Cameros: erromatarren edota beranduko erromatarren kokagunea.

Garranzo, “Corrales de Senoba” barrutia (Enciso udalerria): gotorleku-harresi hondarrak; zeramika zati txikiak.

Grávalos: II. mendeko edota III. mendeko lehenaldiko hilarria; IV. medikoak izan daitezkeen edalontzi bat eta beirazko botila bat; inskripzio bat.

Herce (Las Losas): zenbat erromatar harlanduren aurkikuntza, zutarrizko kapitel bat; erromatar zeramika arrunt eta *sigillata* ugari, etab.

Herramélluri (Libia): hiri erromatarra: IV-V. mendeetako zeramika-materiala; zortzi inskripzio: I eta II. mendeetako oroi-menezko aldareak, estelak, etab. Mansio bat. Apaindutako zeramikak, *terra sigillata* (*italikoa*, *hispanikoa*, *galiko berantiarra*) motako piezak eta erromatarren zeramika arrunta, argi-zuloak, etab.; II-V. mendeen artekoak dira.

Huércanos: II-IV. mendeen artean datatutako zeramika zatiak.

Lagunilla de Jubera: zeramika hondar gutxi batzuk.

Lardero: San Kristobal barrutian: etxaldea; I-IV. mendeen arteko *sigillata hispanikoa*.

Logroño (Varea): hiri erromatarra; inskripzio bi; oroimenezko aldare txiki bat (II. eta III. mendeen artekoak) eta ehorz-keta-lauza bat (I. mendekoa). Zeramika ugariren aurkikuntza: *terra sigillata italikoa*, *bebe-galiakoa*, *hispanikoa*, zeramika arrunta, etab.; baita epigrafiatzko piezak eta erromatarren garaiko txanpon ugari; I-II, IV. mendeen arteko buztinolak; baita *terra sigillata hispaniko* motako burruntzaliak egiteko moldeak eta labeak; zeramikak egiteko moldeen aurkikuntza; I-IV. mendeetakoak. ‘Mansio’ bat. Zubi erromatarra; hilarria.

Munilla: ehorzketa-inskripzioa, I. mendearen azken hamarkadetakoa edota II. mendearen hasieratakoa.

San Vicente (Munilla): estela, I. mendearen azken hamarkadetakoa edota II. mendearen hasieratakoa.

Murillo de Río Leza: oroimenezko bi aldare inskripziodun; lehena, II. mendekoa.

Nájera: buztinola; zeramika-materiala, baita IV-V. mendeetako *terra sigillata*; *sigillata berantiarra* Santa Elena eta Malpica barrutietan.

Navarrete: Los Corcuetos barrutian, zenbait zeramika-hondar.

Nieva de Carneros: lau inskripzio: oroimenezko aldea (I. mendearen azkenaldikoa edota II.aren hasierakoa), ehorzketa monumentua (II. eta III. mendeen artekoa), ehorzketa inskripzioa; estela txiki bat (II. eta III. mendeen artekoa).

Montemediano de Cameros: estela zatia, II. eta III. mendeen artekoa; erromatar ehorzketa-estela.

Ortigosa de Cameros: estela (II. eta III. mendeen artekoa); eta kristau inskripzio bat brontzezko xafla (V. mendekoa); hilarri inskripzioduna.

Pradejón:

Canal de Lodosa (Pradejón): Lodosako ubidean III-IV. mendeetako zatiak; Cantarrayuela eta La Vega barrutietan *sigillata berantiar* motako zenbait zati; aztarnategi erromatarra: piezak eta *sigillata*, I. mendekoak.

La Maja (Pradejón): buztinola erromatarra; zeramika-material ugari; 'Verdullus' deituriko edalontziak.

La Mesilla deritzaneko erromatar etxaldea.

Cantarrayuela (Pradejón): erromatar etxalde bateko buztin-gintza-gunea; goi-inperioko hainbat zeramikaren presentzia eta material berantiarrak: *terra sigillata hispa-*

niko berantiarra, sukaldeko afrikarra, etab.; eraikuntzarako materialak...

Pradillo: ehorzketa-aldare inskripzioduna; El Villar baselizaren ondoan estatuak eta estelak aurkitu ziren.

Préjano: “El Castejón”: harresi-hondakinak; zeramika ugari; IV-V. mendeen arteko zeramika.

San Millán de la Cogolla: bi inskripzio (bata Jubera barrutian eta bestea San Kristobal barrutian); oroimenezko aldarea eta ehorzketa-monumentua (II.m.koa).

San Román de Cameros (Valdeosera): ehorzketa inskripzioa, I. mendearen bukaerakoa edota II. mendearen hasierakoa.

San Vicente de la Sonsierra: inskripzio bat San Martin baselizan.

Santa Engracia del Ubera (Santa Marina): ‘etxalde’ motako landa kokagunean sortaldeko jainko bat irudikatzen duen ezarkin baten aurkikuntza, ‘Attis’-en kultua adierazten du; II. mendekoa izan daiteke.

Tricio: 18 inskripzio (15 Arcos-eko Andre Mariren ermitan); buztinola (I-II, III-IV mendeetakoak); ‘mansio’ bat; miliaria (III. mendekoa); buztinola: forma ezberdinetan garrantzitsua zen ekoizpen-gunea.

Villamediana de Iregua (La Mónada): aztarnategi erromatarra; nekropolia; zeramika-gauzak: kaiku bat, pitxar txiki bat, argi-zulo biribila (*terra sigillata* motakoa), beranduko inperiari dagozkie (III-IV. mendeetakoak), etab.; IV-V. mendeetaraino irauten duen goi-inperioko Morlaca etxaldeko muinokoak dira aurkikuntza batzuk.

El Villar de Arnedo: K.o.ko II. eta III. mendeen artean data daitekeen inskripzioa.

Villoslada de Cameros: estela (II. eta III. mendeen artekoa).

Bibliografía:


- AMELA VALVERDE, Luis, *Las dos primeras emisiones latinas de la ciudad de Calagurris*, Kalakorikos 17 (2012) 127-146.
- ANDRÉS VALERO, Sebastián - TIRADO MARTÍNEZ, José Antonio, *Varea - 1979-1988: Epigrafía numismática*, Berceo (1991, 120.zk.) 7-64.
- ANGULO SÁENZ, Teresa - PORRES CASTILLO, Fernando, *Intervención arqueológica realizada en solar sito en Avda. de la Estación 5, de Calaborra*, Kalakorikos 14 (2009) 127-158.
- ANTOÑANZAS, Asunción - CASTILLO, Pepa - GARRIDO, Javier, *La ermita de los Stos. Mártires o casa santa (Calaborra, La Rioja: ¿Una cárcel romana?*, Kalakorikos 5 (2000) 13-28.
- BIENES CALVO, Juan José, *Seguimiento arqueológico en las calles Pastelería y Mayor. Calaborra (La Rioja)*, Kalakorikos 18 (2013) 27-36.
- CASTILLO PASCUAL, Pepa - CINCA MARTÍNEZ, José Luis, *Nuevo testimonio epigráfico procedente de El Villar de Arnedo*, Kalakorikos 9 (2004) 275-278.
- CASTILLO PASCUAL, Pepa - IGUÁCEL DE LA CRUZ, Pilar, *Un nuevo testimonio del culto a Júpiter en La Rioja*, Kalakorikos 11 (2006) 275-277.
- CINCA MARTÍNEZ, José Luis - ANTOÑANZAS, M Asunción - NICOLÁS PÉREZ, Elena, *Restos arqueológicos de época romana en polígono Tejerías (Calaborra)*, Kalakorikos 3 (1998) 207-215.
- CINCA MARTÍNEZ, José Luis - IGUÁCEL DE LA CRUZ, Pilar - ANTOÑANZAS, Asunción, *El alfar romano de Calagurris (Calaborra, La Rioja): nuevos datos*, Kalakorikos 14 (2009) 173-212.
- CINCA MARTÍNEZ, José Luis, *Elementos de alfar en el caso urbano de Calaborra. ¿Un nuevo taller de producción de cerámica romana?*, Iberia 3 (2000) 319-332.
- CINCA MARTÍNEZ, José Luis, *La necrópolis del Cascajo y la pared sur del Circo Romano: dos nuevas destrucciones arqueológicas*, Kalakorikos 1 (1996) 45-55.
- CINCA MARTÍNEZ, Jose Luis, *La presa romana de la Degollada (Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 17 (2012) 331-35.
- CORTÉS MONTERO, Roberto, *Calagorre: la ceca visigoda de Calaborra. Aproximación a sus monedas reales*, Kalakorikos 18 (2013) 59-71.
- CRESPO ROS, María Soledad, *Una terracota arquitectónica encontrada en el alfar de la Maja (Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 2 (1997) 275-280.


- ELORZA Y GUINEA, Juan Carlos - ALBERTOS FIRMAT, María Lourdes - GONZÁLEZ, A., *Inscripciones romanas en La Rioja*, Logroño 1980.
- ESCRIBANO PARDO, Jesús Emilio, *Sobre una forma Drag. 29 en T.S. G. procedente de Calaborra (La Rioja)*, Kalakorikos 2 (1997) 257-262.
- ESPINOSA RUIZ, Urbano, *Epigrafía romana de La Rioja*, Logroño 1986.
- EZQUERRO LASHERAS, José María - MARÍN SANTOLAYA, Rocío, *Hallazgos en superficie en el yacimiento de Piedra Hincada*, Kalakorikos 1 (1996) 191-192.
- GALVE, Pilar - ANDRÉS, Sebastián, *Hallazgos numismáticos en el yacimiento romano de Varea, in: Calaborra. Bimilenario de su fundación. Actas del symposium de historia de Calaborra*, Madrid 1984, 69-76.
- GARABITO GÓMEZ, Tomás, *Los alfares romanos riojanos. Producción y comercialización*, Madrid 1978, 421-434.
- GIL ZUBILLAGA, Elíseo, *Las producciones de G. Val. Verdullus y las relaciones entre Calaborra (La Rioja) y Viana (Navarra) en época romana*, Kalakorikos 2 (1997) 23-42.
- GIL ZUBILLAGA, Luis - LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Intervenciones arqueológicas en varios solares del entorno del centro comenrcial ARCCA de Calaborra (La Rioja): II*, Kalakorikos 17 (2012) 356-406.
- GÓMEZ MORENO, J. - CASTILLO PASCUAL, P., *Nuevos testimonios epigráficos en Calaborra (I)*, Kalakorikos 4 (1999) 231-235.
- GONZÁLEZ BLANCO, A. - Espinosa, U., *Más epigrafía romana en Cameiros Nuevo*, Berceo 28 (1974) 231-235.
- GONZÁLEZ BLANCO, A. - MATILLA SÉIQUER, G. VICENTE SÁNCHEZ, J. J. - NICOLÁS PÉREZ, E. - ESCRIBANO PARDO, E - GALLARDO CARRILLO, J. - CELDRÁN INIESTA, A. - LECHUGA GALINDO, M., *El alfar romano de la Maja (Pradejón-Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 4 (1999) 9-64.
- GONZÁLEZ BLANCO, A., *El anfiteatro de Calaborra*, Kalakorikos 3 (1998) 194-196.
- GONZÁLEZ BLANCO, Antonino, *El alfar romano de La Maja (Pradejón-Calaborra, La Rioja). Historia de la investigación*, Kalakorikos 2 (1997) 9-21.
- ÍÑIGO EDROZAIN, Lidia - MARTÍNEZ GONZÁLEZ, Ma Milagros, *Nuevo alfar de tena sigillata hispánica tardía en el valle medio del Najerilla (Cañas, La Rioja)*, Iberia 5 (2002) 217-274.
- JIMÉNEZ MARTÍNEZ, María C. - LUEZAS PASCUAL, Rosa A. - SÁENZ PRECIADO, Pilar - IRADIER SANTOS, Eva, *Hallazgos numismáticos en Varea en la campaña de 1983*, XVII CNAr (Zaragoza, 1985) 759-775.

- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Producciones cerámicas de paredes finas y engobadas del alfar romano de "La Maja" (Calaborra, La Rioja): hornos I y II*, Berceo (1995, 128.zk.) 159-200.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa A. - SÁENZ PRECIADO, Pilar, Eva, *La cerámica romana de Varea*, Logroño 1989, 358 or.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora - ANDRÉS VALERO, Sebastián, *Un posible alfar de cerámica romana en Varea (Logroño, La Rioja)*, Brocar 15 (1989) 151-165.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Cerámicas comunes de importación de época romana en el municipium Calagurris Iulia (Calaborra, La Rioja)*, Kalakorikos 6 (2001) 71-100.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *Cerámicas engobadas de importación de época romana procedentes de Calaborra (La Rioja)*, Kalakorikos 3 (1998) 29-40.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *El instrumentum domesticum del municipium Calagurris Iulia. 1. La Cerámica común romana autóctona del valle del Ebro*, Kalakorikos 4 (1999) 65-82.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *La villa romana de Cantarrayuela: un nuevo centro de producción alfarera de época romana*, Kalakorikos 10 (2005) 115-136.
- LUEZAS PASCUAL, Rosa Aurora, *La "Dama" de Calaborra setenta y cinco años después*, Kalakorikos 15 (2010) 11-35.
- MAGALLÓN BOTAYA, María de los Angeles, *La red viaria romana en La Rioja*, CI (Historia) 9 (1983, 1 .zk.) 153-166.
- MARCOS POUS, Alejandro, *Aportaciones a la epigrafía romana de La Rioja*, Berceo (1974) 119-134.
- MARCOS POUS, Alejandro, *Trabajos arqueológicos en la Libia de los berones (Herramélluri, Logroño)*, Logroño 1979.
- MARTÍNEZ TORRECILLA, José Manuel, *Un vaso de terna sigillata itálica de la calle Carretil de Calaborra*, Kalakorikos 1 (1996) 189-190.
- MARTÍNEZ TORRECILLA, José Manuel, *Nueva ara votiva en Aldeanueva de Ebro*, Kalakorikos 4 (1999) 237-241.
- MARTÍNEZ GONZÁLEZ, M Milagros - VITORES BAÑARES, Saúl, *Nuevos alfares de terra sigillata hispánica tardía en el entorno de Tritium Magalum (Badarán y Berceo, La Rioja)*, Iberia 3 (2000) 334-341.
- MARTÍNEZ GONZÁLEZ, M Milagros, *Jarra de terra sigillata hispánica con decoración isíaca encontrada en Badarán (La Rioja)*, Iberia 5 (2002) 207-216.

- MARTÍNEZ GONZÁLEZ, Ma Milagros - VITORES BAÑARES, Saúl, *Algunos yacimientos romanos en los entornos de Berceo y Badarán (La Rioja)*, Iberia 2 (1999) 250-258.
- MIGUEL DE HERMOSA, Angel Ramón DE, *Las comunicaciones en época romana en Álava, Navarra y La Rioja*, TAN 10 (1991-1992) 337-363.
- PASCUAL FERNÁNDEZ, Jesús María - ESPINOSA, U., *Aportación al estudio de las vías romanas en el Ebro medio; desembocaduras del Iregua y del Leza*, Berceo 37 (1981, 101.zk.) 70-79.
- PASCUAL MAYORAL, M Pilar - GARCÍA RUIZ, Pedro, *La necrópolis de Villanueva. (Calaborra-La Rioja)*, Kalakorikos 7 (2002) 103-120.
- PASCUAL MAYORAL, P. - PASCUAL GONZÁLEZ, H., *Nuevos yacimientos arqueológicos...*, Cl (Historia) 9 (1983, 1.zk.) 153-166.
- PASCUAL MAYORAL, Pilar - CINCA MARTÍNEZ, José Luis - GONZÁLEZ BLANCO, Antonino, *Molde para la fabricación de mangos de cazo con la representación Cibeles-Attis ballado en los alfares de Varea (La Rioja)*, Antigüedad cristiana 14 (1997) 683-691.
- PASCUAL MAYORAL, Pilar - PASCUAL GONZÁLEZ, Hilario, *Carta arqueológica de La Rioja. I. El Cidacos*, Logroño 1984, 51-59.
- PASCUAL MAYORAL, Pilar, *Excavación de urgencia, Calle del Sol, N°37-41*, Kalakorikos 1 (1996) 25-32.
- PERÉX AGORRETA, María Jesús, *Los vascones (El planteamiento en época romana)*, [Pamplona] 1986, 150-159.
- SÁENZ PRECIADO, J. Carlos, *Los alfares de época tardorromana en el valle del río Najerilla (siglos IV-VI d.C.)*, Berceo (1995, 128.zk.) 124-125.
- SÁENZ PRECIADO, J. Carlos - SÁENZ PRECIADO, M Pilar, *Hallazgo de un aplique de bronce representando a Attis en Santa Marina (La Rioja)*, Berceo (1995,128.zk.) 309-315.
- VELAZA FRÍAS, Javier - CINCA MARTÍNEZ, José Luis - RAMÍREZ SÁDABA, José Luis, *Nuevo testimonio de las guerras sertorianas en Calaborra: un depósito de proyectiles de catapulta*, Kalakorikos 8 (2003) 9-30.
- VELAZA FRÍAS, Javier, *Una nota sobre las inscripciones balladas en Avda. de la Estación 4 (Calaborra)*, Kalakorikos 16 (2011) 115-121.

Julen Urkiza - Patxi Uribarren





- 1- Herramélluri: *Libia*.
- 2- Castañares de Rioja.
- 3- Canales de la Sierra.
- 4- San Vicente de la Sonsierra.
- 5- Briones: *Ventas de Valpierre: Atiliana*.
- 6- Azofra.
- 7- Huércanos.
- 8- Nájera.
- 9- Tricio.
- 10- Arenzana de Arriba.
- 11- Arenzana de Abajo.
- 12- Bezares.
- 14- Cañas: *El Villar*.
- 16- Badarán.
- 13- *Vía Vacas* (Badarán).
- 15- *Aventines* (Badarán).
- 17- *Sobrevilla* (Badarán).
- 18- Berceo: (*Prados*).
- 20- San Millán de la Cogolla.
- 21- Estollo.
- 22- Baños del río Tobía.
- 23- Cenicero.
- 24- Fuenmayor.
- 25- Navarrete: en el término de Los Corcuetos.
- 26- Nieva de Cameros.
- 27- El Rasillo de Cameros.
- 28- Montemediano de Cameros.
- 29- Pradillo.
- 30- Gallinero de Cameros.
- 31- Ortigosa de Cameros.
- 32- Villoslada de Cameros.
- 33- San Román de Cameros: *Valdeosera*.
- 34- Entrena.
- 35- Alberite.
- 36- Lardero: en el término de San Cristóbal.
- 37- Villamediana de Iregua: *La Morlaca*.
- 38- Varea (Logroño).
- 40- Agoncillo: ---en el término de *Velilla* y en el de *La Atalayuela* (sigillata hispánica tardía), etc.
- 47a- *Barbariana* (San Martín de Berberena): mansio.
- 39- *Recajo*: dos estelas funerarias, del siglo I.
- 41- Murillo de Río Leza.

- 42- Lagunilla de Jubera.
- 43- Santa Engracia del Ubera: *Santa Marina*.
- 45- Munilla.
- 44- *Munilla: San Vicente de Munilla*.
- 46- Enciso.
- 47- *Navalsaz (término El Castillo)*.
- 48a- El Villar de Arnedo.
- 48- Alcanadre.
- 49- Herce: *Las Losas*.
- 51- Arnedo.
- 52- Préjano: *“El Castejón”*.
- 53- Pradejón: *Canal de Lodosa*.
- 55- *La Maja* (Pradejón).
- 54- *Cantarrayuela* (Pradejón).
- 55- Bergasa: en el término de *Las Cenadillas*.
- 56- Calahorra:
 - a. *Calle del Sol*.
 - b. *Villanueva (El Cascajo)*.
 - c. *Calle Carretil*.
 - d. *Casa del Oculista*.
 - e. *La antigua fábrica de los sres. Torres*.
 - f. *Anfiteatro*.
 - g. *Polígono Tejerías*.
 - h. *Ermita de los Stos. Mártires*.
 - j. *Calles Tilos, Chavarría, José María Adán y avenida de la Estación*.
 - k. *Fuente de los Trece Caños*.
 - l. *Avda. de la Estación 5*.
 - m. *Los jardines de la Glorieta*.
 - n. *La Clínica*.
 - o. *Paraje de la Degollada*.
 - p. *Solar de la calle Tilos*.
 - q. *Calles Pastelería y Mayor*.
 - r. *Casco urbano*.
 - s. *La torre de Campobajo*.
- 57- Aldeanueva.
- 58- Alfaro: Gracchurris.
- 59- Grávalos.
- 60- Cervera del Río Alhama.
- 61- Aguilar del Río Alhama: *Inestrillas: Contrebia Leukade*.

EGÜNTTO BATEZ NINDAGOELARIK KANTUAREN GAINEAN

“Zaldi Ero” Miel Anjel Elustondori, merezi onez

1. Sarrera

Egungo egunean XVIII. mendeko Iparraldeko herri lirika-ren gaineko berri ugari ditugu. Batez ere XX. mendean egin diren azterketek mugaz haraindiko amodio-kantuak aztertze-ko eta ezagutzeko argi berria eskaini digute. Jean Haritschelhar, Louis Dassance, Txomin Peillen eta Juan Mari Lekuona dira, besteak beste, beren ikergaietan Iparraldeko amodiozko kantuk aztertu dituzten zenbait ikertzaile. Biltzaile nagusien artean beti aipatu ohi diren Azkue eta aita Donostiaz gainera, hemeretzigarren mendean Francisque Michel, Jean Baptiste Arxü eta J. D. J. Salaberri ere guztiz garrantzitsuak dira.

Iparraldeko edozein amodiozko kantuk, ordea, uste baino misterio handiagoak ditu bere baitan. Misterio horiek, jakina, zenbat eta denbora aurrerago joan, hainbat eta zulatzen zailagoak dira. Jean Dominique Julien Salaberri (1837-1903) notarioak 1870 urtean argitara eman zuen *Chants populaires du Pays Basque* lanetako berrogeita hamar kantuetako zenbait kantu eredu aldaera bakarrean ezagutzen ditugu. Badakigu, bestalde, Salaberriek zenbait kantu jaso baino ahapaldi gutxiagorekin eman zituela. Diogunaren adibide argia da 1870ko bildumako zortzi kantutan etenpuntuak jartzen zituela kantua osorik ez zegoela

adierazteko. Zazpi kantu behintzat ezagutzen zituen ereduetatik modu murritzuan eman zituen. Hona zazpi kantuen liburuko ordena eta izenburua: 15-*Iruten ari nuzu*, 20-*Chorittua, nurat bua?*, 28-*Amodioaren phena*, 31-*Ollanda gazte*, 32-*Goizetan jek-bitzen da*, 45-*Abaire zahar huntan*, 50-*Ostiraletan duzu*. Zerrendatu ditugun kasu hauetako kanturik nabarmenena *Ollanda gazte* kantua da, ahapaldi bakarrarekin eman zuelako. Kantu honen hainbat aldaerak bost ahapaldi baino gehiago dituzte.

Kantu argitaratu baten eredu osoagoak argibide berriak ematen ditu eta kantua hobeki ulertzeko bidean jartzen gaitu. Eredu osoagoaren kobla ezezagunek ilargiaren aurpegi ezkuttua bistaratzen digute. Badakigu, hala ere, Salaberrik puntu etenez horniturik eman ez bazituen ere beste kantu eredu batzuk, nahiz eta berak hankamoztu ez bazituen ere, eredu osoagoen aldaerak direla. Falta diren ahapaldiak, kasurik gehienetan pentsatzekoa denez, giza moralaren kontrakoak izan zitezkeenak ziren. Falta diren ahapaldiak zeintzuk izan litezkeen aztertzea ez da askotan erraza suertatzen. Ia eredu bakarrean ezagutzen dugun kantu horietako bat lan honetan azterkizun idugun *Egüntto batez nindaguelarik* kantua da.

2. Edizio paleografikoaren beharra

Lan honetan transkribatuko ditugun kantu beraren ereduak jatorrizko eskuidatzitik eginak izango dira. Guk jatorrizko eskuidatzitik egindako transkripzioak “lehen dokumentua” oinarritzat harturik eginak dira. Lehen dokumentua, gure kantaren kasuan, lehen eskuzko eskuidatzia da. Horretarako, Salaberriren eskutik egindako A eredua, Xahoren B eta C eredua eta gure lanaren giltzarri den Mathieu Eiherabaren D eredua transkribatuko ditugu. Edizio hauek edizio paleografikotzat ditugu. Lehen eskuzko eskuizkribuaren transkripzioa gure artean askotan ez da egin. Era horretara, nahiz eta asmorik onenarekin eginak izan, hainbat transkripzio

apurren bat ukituak edo aldatuak izan ohi dira. Eman deza-gun, kasurako, Etxahunen *Gaztalondo bandian* kantorearen Héguiphal-Constatinen transkripzioa Haritschelharrek bere *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* lanean ematen duena. Ondoren transkribatuko ditugun hiru ahapaldien buruan zehaztasun hau dakar Haritschelharrek: “Variante Hé-guiapal-Constantin. Le poème est intitulé *Etxahunek arrebari egin khantoriak*. Les deux premiers couplets correspondent aux deux premiers couplets de la chanson ci-dessus” (Haritschelhar 69-70: 324):

3. Etxeko anderia, karesant zira zü
 Arrotzak gustüko balinbatüzü
 Küñatak fede hunin nündin khümitatü
 Arreba propiak kolpia muntatü,
 Bater butillatü
 Bester ez eskentü,
 Ni gabe baratü,
 Ardu nahiagorik hur hotz (neion) galthatü.

4. Biggerren plata agertü zeneko
 Nitzaz bestiak jarri ziren franko harro.
 Jin ziren muxeruak, buxuatik hekiko,
 Ezi hobe beharrez, aldiz leher onddo;
 Ezagütü ordüko
 Juran nintzan kanpo
 Erran gabe adio;
 Lasterra hartü etxerat hoien kopiatzeko.

5. Juraiten nintzalarik, etxerakuan,
 Arangaraiko pheruk usuki nündian;

Ettxera hel eta kolpia sueñatü nian
 Gero aldiz hoiek kopiatü nütian;
 Oihalat juran,
 Logale benintzan,
 Jeiki argi azkorrian
 Hoi en khantatzera, arrebari bortha aintzinian.

Constantinen eredua Hégiaphalen ereduaren oso antzerakoa izan behar zuen honelaxe baitio Haritschelharrek: La version Constantin (5 strophes) presque semblable à la version Hégiaphal et possédant le même titre. Cette feuille volante de l'écriture du Dr. Constantin nous a été communiquée par M. Dassance Haritschelhar (69-70: 324). Constantinen eredua Dassancek egindako transkripzioan ezagutzen zuen Haritschelharrek eta Hégiaphalena, ordea, eskuizkributik. Bestela esan, Haritschelharrek argitaratu eta puntu honetara ekarri dugun eredua Hégiaphalek bere eskuz idatzitako ereduaren Haritschelarren transkripzioa da. Hégiapalen eskuzko eredua, ordea, ez dator Haritschelarrek transkribatutakoarekin guztiz bat. Hona hemen Hégiaphalen eredu eskuizkribatuaren gure transkripzioa:

3er Couplet

Etcheco anderia caesant sira su
 Arotsac goustuco balimbatusu
 Cugnat beré fedé hounin nundin khumitatu
 Areba propiac colpia mountatu
 Bater boutillatu
 Bester es eskentu
 Ni gabé baratu
 Ardou nahiagoric hour hots neyon galthatu.

4

Bigueren plata aguertu seneco
 Nitsas bestiac jariric sien franco harro
 Jin sien boucheouac bouchouatic hekió
 Eni hobé beharres aldiz leher ondo
 Esagutu orduco
 Jouran gabé adió
 Eta lastera hartu etcheat hoyen copiatzeco

5 couplet

Jouraiten nintzalaric etcheratcouan
 Angayco pherouc sankhotic ousouki nundian
 Etchea hel eta colpia souegnatu nian
 Guero aldis hoyac copiatu nutian
 Ohialat jouran
 Logalé benintzan
 Jeyki argui askorian
 Hoyen khantatzera arebay bortha antzinila jouan.

Ikusten denez, zenbait aldaketa daude jatorrizko eskuidatzitik testu argitaratura. Guk hemen transkribatu dugun poemaren 3, 4, 5 ahapaldiak iruzkinduko ditugu bakarrik. Aldaketa horiek, jakina, ez dira denak ortografiari dagozkionak. Dardarkarien alorrean zenbait [r] ez datoz transkribaturik jatorrizko eskuidatzian (eskuizkribua transkribatu zen garaiko ahozko ahoskerari baitagokio) 3 *caesant*, 3 *sien*, 5 *etchea*, 5 *Angayco*, beste zenbait, bai, ordea: 3 *anderia*, 3 *sira*, 3 *baratu*, 5 *jouran*, *jouraiten*, 5 *nintzalaric*, 5 *etcheratcouan*, 5 *pherouc*, 5 *guero*. Ahoskerari dagozkion transkribatu gabeko /r/ horiek [r] fonemari dagozkionak Haritschelharrek bere edizioan transkribatu zituen: 4 *kaesant*, 4 *ziren*, 5 *etxera*, 5 *Arangaraiko*. Jatorrizko eskuizkribuan dardarkari gogorra, hots, /rr/ kontsonante digrafoa [] fonemari dagokiona, eskuizkribuan bitan

bakarrrik dator transkribaturik /rr/ bezala: 4 *barro*, 4 *bebarrez*. Gainerako kasuetan /r/ bezala dator transkribaturik: 3 *arotsac*, 3 *areba*, 4 *bigueren*, 4 jariric, 4 *lastera*; 5 *arebay*. Hauek hone-laxe eman zituen testu argitaratuan: 3 *arrotzak*, 3 *arreba*, 4 *bigerren*, 4 jariric, 4 *lasterra*; 5 *arrebai*.

Ortografiari dagozkion transkripzio arazo hauetatik kanpo-ra badago besterik ere. Testua ez dator guztiz bat eskuizkribuan eta testu argitaratuan. Adibiderik garbienak azken ahapaldian datoz. Eskuidatziko 5 *Angayco pherouc sankbotic ou-souki nundian* esaldia 1969-1970 Haritschelharren edizioan *Arangaraiko pheruk usuki nündian*. Ez dugu, beraz, ikusten “nondik” haginka (*usuki*) zuen txakurrak. Era berean, azken esaldia eskuizkribuan *Hoyen kbantatzera arebay bortha antzinila jouan* irakurtzen dugu eta Haritschelharren edizioan *Hoien kbantatzera, arrebari bortha aintzinian*.

Aipatu ditugun adibide hauez gainera, badaude gehiago ere. Guk puntu honetan, ordea, eskuizkribuen transkripzioak sortzen dituzten arazo batzuen berri eman nahi izan ditugu.

3. Salaberriren eskutikako A eredua

Egüntto batez nindagoelarik kantua lehen aldiz 1870 urteko *Chants populaires du Pays Basque* Mauleko Jean Dominique Julien Salaberri¹ notarioaren liburuan dator. Guk puntu honetara aldatuko dugun Salaberriren eskutikako eredua A. 5 eskuizkribuan 57 zenbakia daraman kantua da (Dassance 1971: 14). Eskuizkribuan zein 1870ko testu argitaratuan 3, 4, 5, 7 ahapaldiek elkarriketako marka daramate, baina lehen ahapaldia izan ezik gainerako ahapaldi guztiek neska-mutilen arteko elkarriketa bezala eratuak daude. Lehen ahapaldia, elkarriketaren *introito* delakoa, narratzaile batek lehen pertsonan, iraganean, gertaera bat adierazten badu ere, elkarriketarako bidea ematen du.

¹ Hiru izen zituen notario kantuzalea izen bakarrarekin deitua izan ohi zen: Jules.

Elkarrizketa hau narratzailearen hitzen errepika bidez eman ohi da, *ritornello* edo bihurki teknikaz baliaturik. Lehen ahapaldian, esaterako, *ene pena doloretzaz pietate har lezan* batez bukatzen du narratzaileak eta bigarren ahapaldian *zure pena doloretzaz pietate badut nik* batez erantzuten du neskatilak. Hona hemen Salaberriren kantua eskuizkribuan datorren bezalaxe:

1

Egunttobatez nindaguelarik maitenareki leihuan,
Erran ükhen niriozün hura niala goguan,
Ene pena doloretzaz pietate har lezan.

2

–Zure phena doloretzaz pietate nik badit:
Ene khorpitz tristiareki eztirot eman plazerik:
Zelin promes emanik nago Jinkoari lehenik.

3

–Oro eijer, oro poillit, zü zira, ene maitia,
Zure eskütik nahi nikezü bizi nizano ogia,
Eta gero ni nükezü zure zerbütcharia.

4

–Eniz, ez, ni haiñ eijerra, nulaz erraiten deitazü?
Mündü huntako eijerrena berthütia lükezü
Hari ogenik egin gabe, othoi, maitha nezazü.

5

–Baratzian zuiñen eijer jirofleia loratü?
Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü,
Hura gogatü eztüdano gaiik eztizüt mankatü.

6

Baratzian eijer deia jirofleia loratü?
Aspaldian desir züniana orai düzia gogatü?
Zerbütchatü zirenian, berria khunta ezazü.

7

–Ene maite bihotz gogor, ezpiritü zorrotza
Orai dizüt orai ikhusten etzitzakedala goga
Amodiua ützi eta indarrez dügün boroga.

8

–Jaoun gaztia, othoi, pharka, haur gazte bat ni nüzü
Zuri arrapostü emaitzez debeiatürrik nüzü,
Errandelako indartto hura bestetan enpleg’ezazü.

Salaberriren eskutikako eskuidatzian datorren eredua *Chants populaires du Pays Basque* laneko hamargarren kantua da (1870: 37-39). Jules Salaberriren liburuko testuak zainduak, txukunak izan ohi dira. Gaur egun *Egünttobatez zein errandelako* bi hitzetan idatziko genituzke: *Egüntto batez* eta *erran delako*.

Salaberriren eskuidatzia eta testu argitaratua ia berdinak dira. Gorabehera ia bakarrak puntuazioari dagozkionak dira. Testu argitaratuan aldatzen den esaldi bakarra bigarren aha-paldikoa da. Liburuan *Zure phena doloretzaz pietate badit nik* dator eskuidatzian *Zure phena doloretzaz pietate nik badit*.

4. *Egüntto batez nindagoelarik* kantuaren azalpena

Aurreko puntuan ikusi dugun Salaberriren ereduaren zenbait ezaugarri iruzkinduko ditugu puntu honetan. Gure kantua “Egüntto batez” hasiera duela hasten da. Hasiera hau ez da bakarra izango. Beste aldaera batean, beheraxeago ikusiko du-

gun Mathieu Eiherabaren kaiereko ereduan, “Aldixe batez” hasiera du. Delako “Aldixe batez” hori “Aldi batez” formularen txikigarria da “Egüntto batez” delakoa “Egün batez” formularen txikigarria den bezalaxe. “Egüntto batez” zein “Aldixe batez” narrazioen hasiera izan ohi da². Nafarroa behean zein Zube-roan “Behin (batez)” formularen ordeztate batez ere “Aldi batez” ahozko kontakizunen hasiera-formula aurkitu ohi dugu³. Formula hauei jarraitzen dien aditza ere bera izan ohi da hainbat eredutan. Azkuek, esaterako, gure sarrera eta aditz bera duen lehen ahapaldi hau bildu zuen: *Aldiše batez nindiagoen sala baſean brodatzen/ Jaun gazte bat entzun nian itſasaldetik kantatzen/ itſasaldetik kantatzen eta kobla eijerrik emaiten*. Xahoren “Neska ontziratua” baladaren lehen eredu (A) *Aldichebatez nenguelaric/ Aldi batez ari nunduzun sarrerarekin hasten da*. Bigarren eredu (B delakoa) *Aldiche bates nengularik* sarrerarekin.

Salaberriren eredu (C) lehen ahapaldian narratzaile batek (edo galaiak berak bere ikuspuntutik) amodio baten berri ematen du. Bigarren ahapaldian damaren erantzuna dator. Bi ahapaldi hauek elkarren artean loturik daude *ritornello* edo bihurki batez. Lehen ahapaldia *Ene pena doloretzaz pietate har lezan* esaldiarekin bukatzen da eta bigarrena *Zure phena doloretzaz pietate nik badiſt* batez hasten. Lehen ahapaldia galaiari (mutilari) badagokio, bigarrena damari (neskatilari). Neskatilak bigarren ahapaldian *Zelin promes emanik nago jinkoari lehenik* dio. Datu honek –geroago frogatzen saiatuko garenez– erabat agerian ez dagoen argibide bat ematen digu: neskatila oso gaztea, seroragaia edo fede handiko neskatila gazte bat. Bestela esan, mundu honetaz etsi eta komentu baterako bidean dagoen neskatila baten esana da,

² *Aldixe batez* hasiera *Brodatzen ari nintzen* baladaren eredu (A) ere bator. Azkuek sarrera hori duen baladaren lehen ahapaldia bildu zuen.

³ Zenbait kantu formula hori dute hasieran. Lafitteren funtsean, esaterako, kantu-hasiera hauek datoz: 1. *Çori gaichtoz egun batez urtheac batzemanac*; 2. *Anderegno bat ikusi nuen igande goizno batez*; 3. *Igande arrats batez izar bat ikbusi dut*; Izenburu bezala 3. *Udako egun batez*.

itxura guztien arabera. Kantuko dama munduko amodio eta plazeri uko egindako neskabila bat dugu, beraz. Ideia hau laugarren ahapaldiko *mündü buntako eijerrena berthütia lükezü* esaldian berriro adieraziko du eta esaldi honen bidez hobeki ulertuko da bigarren ahapaldiko *ene khorpitz tristiareki eztirot eman plazerik* adierazpena. Bosgarren eta seigarren ahapaldietan Aitzolek euskal olerkikera zaharraren teknika aztertu zuenean erabili zuen terminologia erabiliz, irudi bat dugu NON (ZOINEN) EDER ZER egitura duena: *baratzian zuiñen eijer jirofleia loratü?*. Irudi hau, era berean, bihurki bezala erabilia dago, bosgarren ahapaldiaren bukaerarekin hasten baita seigarrena. Amodiozko kantuetan “Non eder zer” egitura ematen denean, batez ere *baratzean/baratzian* (non), zuinen eder zer (lore mota bat) izan ohi da. Zenbatnahi adibide eman ditzakegu. Duvoisinek bildutako *Kaila kantuz ogipetik* kantuan *Baratzean zoin den eder brioliaren lilia* irudia dator. Gure kantuan galaiak onean lortu (*gogatü* Zuberoako euskaran⁴) ezin duena txarrean lortu nahi du.

Kantu honek, XVIII. mendeko amodiozko beste kantu askok bezalaxe, baditu hainbat esaldi indartsu. Hirugarren ahapaldiko *zure eskütik nahi nikezü bizi nizano ogia* elkarrekin bizitzeko desira adierazteko molde indartsu eta aparta da. Era berean, zenbait esaldi balada batzuetan ere dokumentatzen dira. Bosgarren ahapaldiko *Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü* esaldi adierazkorra *Neska ontziratua* baladan ere badator.

5. *Egüntto batez nindagoelarik* kantuaren edizioak

Gure kantua zenbait aldizkari eta iker-lanetan argitaratu izan da. Charles Bordesek “La musique populaire des basques” lanean, *La tradition au Pays Basque* liburuan, 326-327 orrialdeetan, eman zuen Barkoxeko eredu bat (Bordes 1899: 326-327). Charles Bordesen eredu hau Salaberriren ereditik

⁴ *Gogatü* aditza Iparralde osoan batez ere Zuberoan dokumentatzen da. Duvoisinek “Gagner l’esprit de quelqu’un” esaldiarekin adierazi zuen.

oso hurbil badago ere, desberdina da eta aldaera handirik ez duenez gero ez dugu B eredua izandatu. Charles Bordesen ereduak pentagrama bat darama eta frantsesera egindako itzulpena. Baliteke Charles Bordesen eredua Jules Salaberriren ereduaren ahozkotze bat izatea. *Herria* astekarian 1957an, otsailaren 14an, 340 zenbakian, 4. orrialdean ere badator. Eredu hau, ordea, Salaberriren eredu bera da transkripzio huts bat edo beste duela. *Califoniaco Eskual-Herria* aldizkarian 1895an, 33 zenbakian, ere badator eta Salaberriren eredu bera da. Gure kantuaren lehen bi ahapaldiak bakarrik Parisko *Euzko Deya* 2 (1940, 40 zenbakian, 11 or.) aldizkarian argitaratu ziren. Azkuek CPV bere kantutegian, 431 kantuan, 542 or., Salaberriren ereduko lehen hiru ahapaldiak eman zituen bakarrik. K(antu) K(anta) K(antore) liburuan, 82-83 orrialdeetan, datorren eredua ere Salaberriren eredu argitaratua da. *Bertsolaritzaren Historia. Lapurdi, Baxanabarre eta Zube-roako bertso eta kantak I Anonimoak* liburuan 345 zenbakian KKK liburuko eredua dator⁵.

6. B eta C ereduak: Agosti Chahoaren bi ereduak: ***aldi batez nengualarik eta gaiak ülbün***

Agosti Xahoren kantu-eskuizkribuan gure kantuaren bi eredu datoz. Lehena, *Aldi batez nengoualarik*, eta, bigarrena, *Gaiak ulbun* (81-240), (130/240) argazkietan. Puntu honetako gure helburu nagusia lehen kantuaren transkripzioa, modurik fidelenean, eskuizkribuan datorren bezalaxe, egitea da. Kantu honen bost ahapaldiak zenbakiturik gabe daude eskuidatzian. Ahapaldi bakoitzaren azpian bukaera markatzeko bi marra jarri ditu transkribatzaileak. Hona hemen:

⁵ Transkripzio huts bat aurkitzen dugu izenburuan. 345 kantan “Eguntto batez nindagelarik” dator. Kantu barruan, ordea, “Eguntto batez nindaguelarik”.

(1)

Aldibatez⁶ nengoualarik⁷
Maïtiareki leïhouan
Erran ukhen niriozun
Bethi niala gogouan
Ene phena doloretzaz
Pietate har lezan.

(2)

Zoure phena doloretzaz
Pietate hartzen dit
Bena ene khorpitz tristiaz
Ezin diot eghin plazerik
Zeren promes eghin beïtut
Lehenago besteri.

(3)

Oro pollit, oro eïger
Zirade ene maïtia
Zure eskutik nik nahi nuke
Bizi nizano oghia
Ghero bethikoz izan neïnte
Zoure zerbutcharia.

⁶ Ms. Transkribatzaileak *Aldibatez* batera idatzi du.

⁷ Ms. Zer da *nengoualarik* edo *nengouelarik*? Transkribatzaileak lehen idazkeran *negouelarik* idatzi badu ere, zuzendu ondoren *negoualarik* jarri du. Beste kantu batean, ordea, “Gaïaz nengouelarik” izango da.

(4)

Baratzian zoignen⁸ eïger den
 Jilofreïa doratu
 Aspaldian desir niena
 Oraï dizut gogatu.
 Houra gogatu eztudano
 Gaïak eztit maneatu.

(5)

Baratzian eïger deïa
 Jilofreïa doratu.
 Aspaldian desir zunina
 Oraï duzia gogatu
 Kountentatu zirenian
 Berria khounta ezazu.

Xahoren letraz idatzia dago kantua. Kantaren zenbakia, ezkerraldean dator: 50. Izenbururik ez dator kantuan edo izenburutzat beharbada har liteke goian ezkerraldera datorren “Gaïak ulhun”. Agosti Xahok izenburu argia jartzen duenean, lehen ahapaldiaren gaintxoan jarri ohi du. Kantu honetan, orde, lehen ahapaldiaren gainean baino apurren bat ezkerrera-gor dator. Izenburu argi gabeko kasuetan, izenburutzat kantua-ren hasiera hartu ohi da: *Aldi batez nengualarik*. Gure ustez ezkerretara *Gaïak ulhun* jartzea gerora sarrera bera izango duen kantarekin zerikusia duela adierazteko da.

Xahoren funtseko kantu eskuidatzia Agosti Xahok berak Jean Baptista Arxüren kantu batetik egindako transkripzioa da. Arrazoia argia da Arxüren ortografia berezian dator transkribatua: *eghin*, *ghero*, eta abar. Uste dugunez, Xahoren transkripzioan bi huts nabarmen ikus ditzakegu. Jatorrizko Arxüren

⁸ Ms. transkribatzaileak lehen idatzialdian *zoi*– idatzi du, baina gero zuzenduz *–i*– horren gainean–gn–jarri du. Nola transkribatu, beraz, *zoignen* edo *zognen*?

transkripzioan *loratu* bi aldiz izan behar zuen eta Xahorenean *doratu* aurkitzen dugu laugarren-bosgarren ahapaldietan. Bestela esan, laugarren ahapaldian *jilofreïa doratu* izan beharrean *jilofreïa loratu* izan behar luke. Bosgarren ahapaldian ere, era berean, *Baratzian eïger deïa/ jilofreïa doratu* izan beharrean *Baratzian eïger deïa/ jilofreïa loratu[?]* izan behar luke. Salaberriren ereduan argiro dator 5 –*Baratzian zuiñen eïjer jirofleia loratü?* eta 6–*Baratzian eïjer deia jirofleia loratü?* Aipatu dugun *doratü/loratü* kontu hau, ordea, nahitaez ez du hala zertan izan. *Atharratze jauregian* kantuan “zitroina *doratü*” eredu guztietan agertzen da (1857 Francisque Michel, 1870 Salaberry, 1935 Joakin Dorronsoro, eta abar) Aingeru Irigaraik Otsagin 1926an bildu zuena izan ezik (Cid 2009: 1-52).

Beste transkripzio hutsa *Gaiiak eztit maneatu* esaldian dator. Esaldi honek bere zentzua izateko *Gaiiak/ [Gai(r)ik?]* eztit *man-catu* behar luke. Bi transkripzio huts hauek garbiak dira. Salaberriren testuan, esaterako, ondo dator testua: (5) –*Baratzian zuiñen eïjer jirofleia loratü?* /*Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü, /Hura gogatü eztüdano gaiik eztizüt mankatü.*

Oraingo aldi honetan ahapaldi bakoitza sei lerrotan eman beharrean hiru lerrotara ekarri eta ortografia zein puntuazio modernoa erantsiko diogu.

(1)

Aldi batez nengualarik maitiareki leihuan,
erran ükhen niriozün bethi niala goguan,
ene phena-doloretzaz pietate har lezan.

(2)

–Zure phena-doloretzaz pietate hartzen dit,
bena ene khorpitz tristiaz ezin diot egin plazerik,
zeren promes egin beitüt lehenago besteri.

(3)

–Oro pollit, oro eijer zirade, ene maïtia,
zure eskütik nik nahi nûke bizi nizano ogia,
gero bethikoz izan neinte zure zerbüttxaria.

(4)

–Baratzian zoiñen eijer den jilofreia loratü.
Aspaldian desir niena orai dizüt gogatü.
hura gogatü ez düdano gaiak ez dit mankatü.

(5)

–Baratzian eijer deia jilofreia loratü?
Aspaldian desir zünina orai düzia gogatu?
Kuntentatü zirenian berria khunta ezazü.

Xahoren C eredua izenbururik gabe dator transkribatua (130/240 argazkian). Kantuaren zazpi ahapaldiak zenbakiturik gabe daude. Ahapaldi bakoitzaren azpian bi marra daude aha-paldiak elkarrengandik desberdintzeko.

(1)

Gaïak ulhun, maïtia hurrun
Ala phena handia.
Ene maitiak eghinen dereit
Leihouetarik arghia,
Baïta nik ere khaussituren
Haren ganako bidia.

(2)

Itchassouan bazitizut
Ountzian marineleki
Katalognan ehun mando
Urhe mounedareki.
Halaz badikezugu noula
Irouz bizi algareki.

(3)

Etchebat badit berririk
Jaüreguiaren parerik
Hartan barnen egonen zira
Zilhar kaideran jarririk
Ene maïtia zer othe date
Nitzaz plazer eztzunik.

(4)

Hitzak eder tuzu bena
Obrak beldur nuzu ez
Ukhen dit arraport ghile
Zur'etene segretiek
Eïa debeïatu nizanez
Mundian ountsa izatez

(5)

Ene maite bihotz gogor
Ezpiritu zorrotza
Orai dizut orai etsi
Etzitzakedala goga
Amourioua utzi eta
Indarrez dugun borroka.

(6)

Jaüna pharka izadazu
 Ni haür gaztia nuzu
 Zur'ihardetz eghiteko
 Eniz orano zenzatu
 Nitaz bestetan zure indarrak
 Othoi espraba itzazu.

(7)

Ihissia lasterrago
 Ihizlaria beno
 Gaïsto denak phensa liroke
 Dena beno haboro
 Ni ere oraï ichilzen nuzu
 Ezpeïtakit haboro.

Kantuaren zazpi ahapaldiak Agosti Xahoren letra argiz transkribatuak daude. Ez dugu izan inolako transkripzio arazorik. Ezagutzen dugun Xahoren transkripzioa, inolako dudarik gabe, Jean Baptista Arxüren jatorrizko eskuidatzitik egina da. Horren frogarik indartsuena Arxüren ortografian dator: *arghia*, *eghiteko*, eta abar. Kantu honen ganean aritu ginen gure *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa II, Maitiak bilboa bolli kantua* atalean (Kalzakorta 290-295). *Gaiak ülhün* kantua bigarren-hirugarren ahapaldiak dira batez ere *Maitiak bilboa bolli* kantuan datozenak, gainerako laugarren ahapalditik aurrerakoak *Egüntto batez nengoelarik* kantukoak ditugu. Bosgarren ahapaldia eta Salaberriren zazpigarrena bat datoz eta baita seigarren ahapaldia Salaberriren zortzigarrenarekin. Azken ahapaldia, ordea, Mattieu Eiherabaren hamaikagarrenarekin bat dator.

Kantu honen bigarren transkripzioan gaur eguneko ortografia eta puntuazioa erantsiko dizkiogu. Sei lerrotan transkribaturik dauden ahapaldiak, bestalde, hirura ekarriko ditugu.

1

Gaiak ülhün, maitia hürrün ala phena handia!
ene maitiak eginen dereit leihuetarik argia,
baita nik ere khausitüren haren ganako bidia.

2

–Itxasuan bazitizüt untzian marineleki
Kataloñan ehün mando ürhe munedareki,
halaz badikezügü nula iruz bizi algareki.

3

Etxe bat badit berririk jauregiaren parerik,
hartan barnen egonen zira zilhar kaideran jarririk.
Ene maitia zer othe date nitaz plazer eztüzünik.

4

–Hitzak eder tüzü bena obrak beldür nüzü ez.
Ükhen dit arraportgile zure eta ene segretiek
eia debeiatü nizanez mündian untsa izatez.

5

–Ene maite bihotz gogor, ezpiritu zorrotza.
Orai dizut orai etsi etzitzakedala goga.
Amurioua ützi eta indarrez dügün borroka.

6

–Jauna, pharka izadazü, ni haur gaztia nüzü.
Zure ihardets egiteko eniz orano zenzatü.
Nitaz bestetan zure indarrak othoi espraba itzazü.

7

Ihizia lasterrago ihizlaria beno;
gaizto denak phensa liroke dena beno haboro,
ni ere orai ixilzen nüzü ezpeitakit haboro

7. D eredua, *Aldixe batez* kantua Mathieu Eiherabaren kaieraren arabera

Puntu honetan Mathieu Eiherabaren kaiereko *Aldixe batez* kantua transkribatuko dugu jatorrizko dokumentuko ortografia eta puntuazioarekin. Kantua Iparraldeko kaier askotan idatzi ohi den bezala egina dago. Kantuaren izenburua letra handiagoz (*Aldiche batès*) lehen ahapaldiaren gainean dator eta azpian datozen ahapaldiak zenbakiturik daude frantses ordinalez, 1er, 2en, 3en, eta abar. Azken ahapaldiaren azpiko aldean bukaera adierazteko *fini* hitza dator. Kantuaren letra argiak ez du transkripzio-zalantzarik sortzen.

1
Aldichèbates nendegouelarik maitiarèkin lèïhouan
Eran ukhen nitoriosun bèthi niàla gogouan
Ene phèna changriètzas piètaté har lésan

2
Souré phèna changriètzas piètaté nik badit
Bena éné khorpitz trichtiari étziot éman plasèrik
Seliàs promès émanik nago Jinko Jaounari lehenik

3
Oro eyjer oro poillit su sira éné maitia
Soure eskutik plaser nikèsu bisinisago ogia
Eta gero ni nukèsu souré sèrbutcharia

4
Enusu és ni hagn éyjàra noula éraiten béïtusu
Orotako éyjàrena bérthutia lukèsu
Hari ogenik égin gabé maithatu nahi banaïsu

5
Kountre pazak hirour phuntu arabitaren khordètan
Egun dano énu su isan gayas nèskatilakan
Es eta argirik phitz erasi ihounko ostatiétan

6

Gos-mèsarik éstisugu Aphès gutik béitugu
Bena mèssa handi eran arté soumbaites Etchian egonen nusu
Ordiàn jin sité eta bortha idokiren déisut

7

Baratzian sougnen éyjer den jélofrèya loratu
Ihourk etzian es eranen éspeitzian uduru
Nik gogaturen niala maitia jagoiti

8

Baratzian han éyjer deya jélofrèya loratu
Aspaldin désir sunian maitia oray dusia gogatu
Sastifatu sirènian beria khounta ésasu.

9

Ene maité bihotz gogor ispiritu chorotcha
Oray ikhouston disut oray étzitzakedala goga
Amorios esin badugu indarès desagun boroga

10

Jaoun gastia pharka-mentu ni haour gaste bat nusu
Souri érapostu émaïtes débèyaturik nusu
Sihaourétan dusun indar hori béstétan emplèga ésasu

11

Ihisia laster-ago ihislaria beno
Gachto denak phentza lio dena beno haboro
Ni éré oray ichiltzen nusu épéitakit haboro

Kantu honetako ezaugarriak markagarriena ezagutzen ditugun eredu guztietatik hiru ahapaldi ezezagun aurkitzea da: 5, 6 eta 11. Hiru ahapaldi hauek indar harrigarria emateaz gain, orain arte ezagutzen ez ditugun zenbait zehaztasun ematen dituzte. Seigarren ahapaldiak bere izaera adierazten du aitor-tza bikoitza eginez, neskazale eta ostatzale ez dela adieraziz. Mutilak erretiro onekoa dela adierazteko, bestela esan, gauez

ostatueta ez dela ibiltzen aditzera emateko, *inongo ostatutan argirik ez duela pitzera* dio. Aitortza hauek baino lehen koplazaharretako irudi harrigarri bat –bestetan inon ere ikusi gabea– aurkituko dugu: “kountre pazak hirour phuntu arabitarren khorditan”. Kontrapas hitza dantza-moeta bat da. Bernard Etxeparek hitz hau euskarazko lehen liburuaren bukaeran erabili zuen euskara plazara dantzan egitera gomitatzuz. Patxi Altunak *Etxepareren biztegia* lanean hauxe dakar: kontrapas [n]: contrapás; “contre-pas” –[kontrapas]: XIV, tit. No figura en Azkue ni en Lhande. Gure kantuko “kountre pazak” hitza frantsesetik hurbilago dago –fr. contre-pas– Detxepareren hitzetik baino.

Seigarren ahapaldia are bitxi eta harrigarria da. Hitz egiten duena galaia da. Galaia kasu honetan apez bat da *Gos-mèsarik estisugu Aphes gutik béitugu* dio-eta. Nola, ordea, interpretatu *Bena mèsà handi arté soumbaites Etchian egonen nusu* delakoa? “Goiz-meza” goizean goiz, eguna zabaldu baino lehen, ematen den meza da eta “meza handia” edo “meza nagusia” eguerdi aldera ematen dena. Galaia kasu honetan apaiz denak– damari –kasu honetan seroragai edo neskatila bertutetsuari– atea zabaldu eta goiz osoa elkarrekin egongo direla aitortzen dio. Bestela esan, Elizanburuk *Piarres Adame* lanean dioen bezala: *Goiz mezatik lekhora, meza-nagusia baino lehen*. Ereduek honek duen azken ahapaldia Xahoren bigarren ereduko ahapaldia bat datoz. Hona Xahorena:

Ihizia lasterrago ihizlaria beno;
gaizto denak phensa liroke dena beno haboro,
ni ere orai ixilzen nüzü ezpeitakit haboro.

Xahoren ereduan eta Mathieu Eiherabarenean, beraz, hitzez hitz ahapaldi bera dugu. Ahapaldia, bestalde, irudi harrigarri batez hasten da: “ihizia lasterrago ihizlaria baino”. Bi kasuetan, gainera, hitz bera dute errimatzat: haboro.

Puntu honetako ereduak, inolako dudarik gabe, argi berria ematen dio Salaberriren ereduari. Xahoren ereduak, era berean, argi frogatzen du itxuraz eredutik kanpokoak zen azken ahapaldia kantu eredu berari dagokiola. Badira kantuaren esanahiari gagozkiola, hala ere, elkarren kontrakoak diruditen zenbait ahapaldi. Gure ereduko Eiherabaren ereduko 7-8 ahapaldietan badirudi galaiak neskabila “gogatü” duela, gainerako 9, 10, 11 ahapaldietan, ordea, ez.

8. Ahapaldi zentsuratuen kontua

Aurreko puntuan Mathieu Eiherabaren ereduari datozen hiru ahapaldi berriek ezagutzen dugun Salaberriren ereduari aberastasun ederrez hornitu dute. Kantuko galaiak apaiza baldin bada (eta ez da kantu honetakoa daukagun adibide bakarra *Xarmagarria zira eder eta gazte* kantuan ere maitemindua dagoen gizonetako apaiz bat dugu argi eta garbi), hobeki ulertzen da Salaberri eta Eiherabaren bigarren ahapaldiko neskabilaren *Zelin promes emanik nago Jinkoari lehenik* argudioa. Ahapaldiak zentsuratzearen kontua ez da berria. Batez ere amodiozko kantuetan zentsuratzen ziren ahapaldien kontua gure artean lehenik salatu zuena, beste lan batean adierazi dudanez (Kalzakorta 2021), Pierre Duny-Pétre (1914-2005) garaztarra izan zen 1962ko artikulu batean “Recherches sur les couplets perdus de vieilles chansons populaires basques” (Duny-Pétre 1962). Duny-Pétrék ahapaldi galdu horiek “couplets perdus” izendatzen ditu eta ez dago dudarik kantua desitxuratu, ilundu eta baliogabetu egiten dutela. Artikulu honen zorrotzasunak akuilaturik, handik hiru urtera Jean Haritselharrek ideia berean sakonduz argi berria eskaini zuen beste artikulu batean “Auto-censure et rigueur scientifique dans les recherches folkloriques”. Honelaxe zioen (Haritselhar 1965):

Le problème reste posé: Est-ce une censure populaire? Est-ce une censure des folkloristes?

Le problème es plus clair chez J.D.J. Sallaberry. Dans son recueil, nombreuses sont les chansons où une strophe est délibérément remplacée par des points de suspension. J'avoue m'être pendant longtemps demandé quelle était la signification exacte de ces points de suspension. J'en fus totalement informé le jour où, au cours de mes recherches à Mauléon, j'eus la fortune de lire un manuscrit de chansons, actuellement en possession de M. Croharé, sandalier à Mauléon.

Haritschelharrek Croharé zapatagilearen kaierean aurkitu zuen Salaberriren puntu etenen misterioa. Puntu etenek zentsuratutako ahapaldi baten edo gehiagoren berri ematen zuten. Kasurik argigarriena “Amodioaren phena” kantua da (1870: 222). Salaberrik kantu hau argitara eman zuenean bost ahapalditan egin zuen eta azkenaren aurrean lau lerrotan puntu etenak jarri zituen. Lau lerrotako puntu etenek biltzaileak ahapaldi bat zentsuratu zuela adierazten zuten. Argitaragabeko ahapaldia, gainera, maila estilistiko handikoa zen. Hona hemen:

Lanchurda churi duzu arbolen gainian,
Ene maite poillita bakharrik ohian (bis)
Oi! hura balimbanu besoen artian!!
Irus izan nindaite, bethikotz mundian.

Haritschelharrek aipatzen duen Croharé kantu-kaierean aurkitzen zen *Amodioaren phena* kantua azken ahapaldia, seigarrena, zentsuratua izan zen, eta, era horretara kantua balioa, neurri handi batean, gutxirendua zegoen (Kaltzakorta 2021: 108-109).

Gure *Eguntto batez* kantuaekin ez ote da beste hainbeste gertatzen? Argitaratu gabe egon diren hiru ahapaldiek balio estetiko handiaz gainera informazio berria ematen dute. Kantu eredu honetan Salaberriren liburuan ez dator puntu etenik. Gure ustez kasu honetan ez da egon inolako zentsurarik.

Kontua da, beraz, eredu osoago batek, Mathieu Eiherabaren kaierekoak, aberastasun berriak ematen dituela.

9. Mathieu Eiherabaren eredia gaurko ortografian

Aurreko puntuan *Aldixe batez* amodiozko kantua kaier eskuidatzian datorren bezala transkribatu dugu. Oraingo honetan ulergarriago gerta dakigun ortografia eguneratua zein puntuazio zeinuak –zeinu diakritikoak direlakoak puntu, koma eta abarrak– erantsiko dizkiogu. Elkarrizketako bi pertsonaiak markatzeko, era berean, gidoi luzeak jarriko ditugu. Mutilari dagozkion ahapaldiak, gure ustez, 1, 3, 5, 6, 7, 9 eta 11 dira. Neskatilarenak 2, 4, 8, 10.

1

Aldixe batez nendeguelarik maitiarekin leihuan,
er[r]an ükhen niriozün bethi niala goguan,
ene pena-xangrietaz pietate har lezan.

2

–Zure phena-xangrietaz pietate nik badit,
bena ene khorpitz trixtiari etzi[r]ot eman plazerik,
zeliaz promes emanik nago Jinko Jaunari lehenik.

3

–Oro eijer, oro poillit zu zira, ene maitia,
zure eskütik plazer nikezü bizi nizano ogia,
eta gero ni nükezü zure zerbütaria.

4

–Enüzü ez ni haiñ eijer[r]a nula er[r]aiten beütüzü,
orotako eijerena berthütia lükezü,
hari ogenik egin gabe maithatü nahi banaizü.

5

–Kuntre-pazak hirur phüntü ar[r]abitaren khordetan;
egündano enüzü izan gaiaz neskatilakan,
ez eta argirik phitzerazi ihunko ostatietan.

6

Go[i]z-mezarik eztizüğü aphez gütik beitüğü,
bena meza handi er[r]an arte zunbaitez etxian egonen
nüzü,
ordian jin zite eta bortha idokiren deizüt.

7

Baratzian zuñen eijer den jelofreia loratü!
Ihurk etzian ez er[r]anen ezpeitzian üdürü,
nik gogatüren niala maitia jagoiti.

8

–Baratzian ha[i]n eijer deia jelofreia loratü?
Aspaldin desir zünian maitia orai düzia gogatü?
Sastifatü zirenian ber[r]ia khunta ezazü.

9

–Ene maite, bihotzgogor, izpiritüxor[r]otxa,
orai ikhusten dizüt, orai, etzitzakedala goga,
amorioz ezin badüğü indar[r]ez dezagün boroga.

10

–Jaun gaztia, pharkamentü ni haur gazte bat nüzü,
zuri er[r]apostü emaitzez debeiatürük nüzü,
zihauretan düzün indar hori bestetan enplega ezazü.

11

–Ihizia laster[r]ago ihizlaria beno;
gaxto denak phentsa li[r]o dena beno haboro,
ni ere orai ixiltzen nüzü ezpeitakit haboro.

Gaur eguneko ortografia eta puntuazioa eranstea uste baino arazotsuagoa da. Nola jarri, esaterako, 1 *niala* > *nüala* edo *niala*; 2 *dit* > *düt* edo *dit*; 3 *selias* > *zelüaz* edo *zeliaz*; 5 *ostatietan* > *ostatüetan* edo *ostatietan*; 5 *gayas* > *gaüaz* edo *gaiaz*; 7 *etzian*, *éspéitzian* > *etzüan* edo *etzian*; *ezpeitzüan* edo *ezpeitzian*. Ezezkako formak ahoskatzen diren bezala jarri ditugu 4, 5, 11 *enusu* > *enüzü*; 6 *estisugu* > *etzizügü*; 9 *etzitzakedala* > *etzitzakedala*. Zortzigarren ahapaldiko izkribuko *sastifatu* delakoa ez ote da *satisfatu* baten hutsa, hots, gaurko grafian *satisfatü*? Edozein bide edo erabaki hartzen dugula ez da izango denen gustokoa. Jatorrizko eskuidatziak horrexegatik beragatik du uste baino garrantzi handiagoa.

10. Mathieu Eiherabaren ereduko hizkuntzaren ezaugarri zenbait

XVIII. mendeko Iparraldeko amodiozko kantuak aberastasun handikoak izan ohi dira. Aberastasuna, bestalde, alderdi guztietatik begiratuta aurkitzen dugu: lexikoan, morfologian, sintaxian, iruditerian eta abarretan. *Eguntto batez* kantuaren *Aldixe batez nendeguelarik maitiarekin leihuan* hasierak, Juan Mari Lekuonaren sailkapenaren arabera, “leihopeko serenata” baten aurrean gaudela argi eta garbi adierazten digu (Lekuona 1988). Puntu honetan alderdi horiek guztiak ezin aztertu ditugu. Hizkuntzaren gaineko zenbait ohar, ordea, egingo ditugu. Eiherabaren testua aztergai hartzen duena berehala ohartuko da ortografian -s, -s-, -s darabilera beti guk -z, -z-, -z espero genuen tokietan: 1. *bates*, *niriosun*, *changrietzas*, *lesan*, 3 *su sira*, 3 *plaser*, *nikesu*, 3. *bisinisago*, 3 *nukesu souré sèrbutcharia*: 4 *enusu es*, eta abar. Gure atal honetan erreferentzia nagusitzat Eiherabaren eredua hartuko dugu.

Gure kantuko lahen ahapaldiko sarrerak eta Altzaiko *Brodatzen ari nintzen* baladako lehen ahapaldiaren sarrerak *incipit* formula bera darabilte. Altzaiko lehen ahapaldia hauxe da: *Aldichebates nindiègoualaric chalabagian/brodatsen*, *Mainel-*

bat entsun disut itcha/chon gañen kantatsen itchachon gañen/kantatsen éta koplak éjeric émaiten bis. Gotañeko ereduko lehen ahapaldiko sarrera ere antzerakoa da: Aldi bates nintsalaric chalabachian brodatsen.

Salaberri eta Xahoren eredueta “pena-dolore” dator, Mathieu Eiherabaren ereduari “pena-xangri”. Hitz-elkarketa hau gramatikalari hinduek bezala Miren Azkaratek bezala *Dvandva* izendatzen dute⁹ (1990:163). Aditzari gagozkioa, “nendegouelarik” delakoa ez da norbaitek uste lezakeenez, *nindegouelarik* adizkiaren hutsa. Xahoren eskuizkribuko *Neska ontziratua* balada, B ereduari, *Aldiche bates nengouelarik* batez hasten da. Aipatu dugun Altzaiko ereduari ere *nind-* batez hasten da. Zuberoako instrumental plurala dugu *phèna changrietzaz*. Lehen ahapaldi honetan *lezan* adizkia harrigarri egiten zaigu *zezan* normalagoa zen lekuan. Ez da erabilera hau Detxeparek *Emazten favore* poeman dakarren *Ixil ladin nabi nuque balaco den gucia* esaldiko erabilera, *erran ükben nioriozün... bar lezan* baino.

Bigarren ahapaldian, Eiherabaren ereduari, Salaberriren eredu argitaragabea bezala dator: *pietate nik badit*. Salaberriren eredu argitaratua *pietate badit nik*. Ahozko ereduari, beraz, finko xamarra izan da. Xahoren lehen ereduari *pietate hartzen dio*. Salaberriren bigarren ahapaldian –eredu eskuidatzian zein eredu argitaratua– *ene khorpitz tristiareki eztitot eman plazerik* irakurtzen dugu. Modu argiagoan dator Xahoren lehen ereduari *Bena ene khorpitz tristiaz ezin diot eghin plazerik* eta Eiherabarenean *bena ene khorpitz trixtiari etziot eman plazerik*.

⁹ Honela azaltzen du fenomenoak: “Maila berean dauden kategoria gramatikal bereko bi osagaiz eratuak dira indiar gramatikalariek “Dvandva” (bi eta bi) deitu zituzten hitz elkartuok. Osagaien kategoria gramatikala izango du hitz elkartu osoak; bi izen elkartzen badira, izen elkartu kopulatiboa, e.a. Alde honetatik, osagaien arteko erlazio kopulatiboa, bereizi ditugun kategoria gramatikal guztietan: izen, izenondo, aditz, aditzondo, izen sintagma eta zenbatzaileetan azaltzen zaigu.

Hirugarren ahapaldian, Eiherabaren ereduan, *soure eskutik plaser nikèsu bisinisago ogia* esaldiak huts argi bat du, gure us-tez. Salaberriren ereduan bezalaxe, *bizi niza(g)no* izan behar du. Interesgarria da, bestalde, *ni nùkezü zerbüttxaria* horretako *nùkezü* atzizkia “izango nauzu” esangura duena. *Oi ene bizi-tzea dolorez betherik!* kantuko azken esaldian bezala -ke- artiz-kia duen aditza dator: *bibotzean zaituzket azken hatseraino*.

Laugarren ahapaldia Salaberrirenaren oso antzerakoa da. Salaberrirenean *mündü buntako eijerrena berthütia lùkezü* da eta Eiherabarenean *orotako eijerena berthütia lùkezü*.

Bosgarren ahapaldian *neskatilakan* aurkitzen dugu. Zube-roako -kan atzizkia dugu. Atzizki honen berri handirik ez du-gu aurkitu. Jon Miranderen gutunetan *mozkorkan*, *andrekan*¹⁰ (1995, 26) eta *koblakan*¹¹ aurkitzen dugu (1995, 254). Baita aditzekin ere *ikbuskan*¹² (1995, 75). Itxura guztiak direnez, *neskatilakan* delakoak Euskal Herriko mendebaldean “neska-tilatan” edo “neskatilen bila” esan ohi duguna da. -ka, -kan atzizkiaren gainean Battittu Coyos zuberotarrari galdetu diogu eta azalpen hau eman digu: “*neskatilakan* “neskatilen bila”; -ka, -kan atzizkiak erabiltzen dira zubereraz, orain ere izen eta aditzekin. Ikus Lhanderen hiztegia: XLIV. or. “ka, kan” S. “à coup de, à la recherche de”. Izenekin adibidez herrokan (he-rrro + kan, zub.) =lerroka (bat.), koblakan. Ll. or. “en, en train de”. Aditzekin: kantakan, lasterkan, txostakan = jostaka (bat.)”.

Seigarren ahapaldian galaiaren izaera eta asmoen berri ar-gia ematen da. Galaia apaiz bat da *Gos-mèsarik estisugu aphès*

¹⁰ 4. Gutuna “Zertan dutugu gûre Basko dohatsu horiek oro (Dohatsu, ezen *beati pauperes spiritu*, dio Jesus Jaunak...) Euskaldi salbatu beharrez, dudarik gabe egin-ahalak egiten -mozkorkan eta andrekan. Jaungoikoak benedik-a beza heien borondate huna! Amen.

¹¹ 273 gutuna: Bañan, Zuberootar zenbaitek, euskaraz idatzi dutelako edo, badakike *euskara klasikoa*-an usatzen direla, eta idaztean, edo koblakan era-biltzen dituzte oraindik.

¹² 69 gutuna: Krutwig'tar Karol joan den igandean ikhuskan izan zait.

*gutik beitu*gu argiro adierazten baitu. “Goiz-meza”, bestalde, Euskal Herri zabalean esan ohi den hitz konposatu zaharra da. Itxura guztiak direnez, *Ordian jin sité eta bortha idokiren déisut* galaiaren ozarkeriari dagokion esaldia da.

Zortzigarren ahapaldia ere galaiari dagokio, gure ustez. Salaberri eta Eiherabaren ereduetañ *ñabardura* bat edo beste kendurik– bat datoz ahapaldiak.

Bederatzigarren ahapaldia antzerakoa dugu Salaberri eta Eiherabaren ereduari. Salaberriren *indarrez dügün boroga* agintera dugu. Agintera hori hegoeldekoentzat argiagoa da Eiherabaren *indarès desagun boroga* horretan.

Hamargarren ahapaldian ere badira zenbait aldaera. Salaberriren ereduko “othoi, parka” Eiherabarenean “pharka-mentu”. Salaberriren ereduari *Errandelako indartto bura bestetan enple’ezazu* Eiherabareren ereduari *sihaourétan dusun indar hori béstétan emplèga ésasu*.

Hamaikagarren ahapaldia Eiherabaren ereduari “phentza lio”, Xahorenean “phensa liroke”. Bi ereduetañ **iron* aditza dugu. Aditza hau bigarren ahapaldian ere badator. Salaberriren ereduari *eztirot eman plazerik*, Eiherabarenean *étziot éman plasèrik*.

11. Azken iritzi eta desenkusa bezala

Lan honetan batez ere Mathieu Eiherabaren *Aldixe batez nendeguelarik* kantaren berri eman nahi izan dugu. Eiherabaren kanta *Egüntto batez nindaguelarik* kantaren aldaera osoa goa da, hiru ahapaldi ezezagun gehiagorekin. Hiru ahapaldi berri horietako azkenak –hitzez hitz eta inolako aldaerarik gabe– Xahoren C ereduari giltzatzen zuen. Eredu berri hau jatorrizko eskuidatzitik –lehen dokumentutik– transkribatu nahi izan dugu. Eredu hau hobeto ulertzeko Salaberriren eredu ezaguna eta Xahoren eskuizkribuko beste bi eredu ere eman nahi izan ditugu. Lan honetara ekarri dugun kantu eredu

bakoitza Zuberoako euskararen altxor ttipi bat dugu. Altxor hau, jakina, bi aldetatik, nagusiki, azter daiteke: literaturaren alderditik eta euskararen beraren alderditik. Gure asmoa, ordea, besterik izan da: Salaberri, Xahoren bi ereduak eta Mathieu Eiherabaren ereduak ahalik eta modurik fidelenean ematea. Lan honetan ere, jakina, esan gabe tintontzian gelditu direnak esan direnak baino gehiago eta pisutsuagoak dira.


Bibliografia:

- AZKARATE, Miren (1990). *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz.
- BARANDIARAN, Joxemiel (1981). "Amodiozko kantak", *Anuario de Eusko-Folklore*, tomo 30, 153-182.
- BORDES, Charles (1899). "La musique populaire des basques", *La tradition au Pays Basque*, Aux Bureaux de la Tradition National, Paris, 297-354.
- BOUDA, Karl (1958). "Verzeichnis baskischer Volkslieder", BRSVAP, 491-501.
- CHAHO, Agustin (1855). *Biarritz entre Les Pyrénées et l'océan Itinéraire pittoresque*. Deuxieme Partie, Bayonne, 188-189.
- CARRICABURU ROGER, Julie Adrienne "Mme. De la Villéhélio" (1869). *Souvenir des Pyrénées 12 Airs Basques choisis et Notés par Mme. De la Villéhélio*.
- CID, Jesús Antonio (2009). "Re-deconstruyendo la balada: Atharratzte jauregian", ASJU 44 (2009), 1-52.
- DASSANCE, Louis (1969). "Louis Ligueix-en khantoriak", *Gure Herria*, 161-172.
- -(1971a). "J. D. J. Sallaberry nor zen? *Gure Herria*, Ekaina 9-14.
- -(1971b). "Documents ayant appartenu à J.D.J Sallaberry et destinés par son petit-fils au Musée Souletin de Mauléon", *Gure Herria*, Ekaina 15-24.
- -(1974). "Ikusten duzu goizean" kantuaren aireaz bi solas", *Euskera*, 285-286.
- DONOSTIA, Aita "Nehor" (1925). "Autres couplets de Mme Villéhélio sur ce même air", *Gure Herria*, V, I, musika gehigarria.
- - (2028). "Xarmagarri bat", *Gure Herria*, VIII, V. musika gehigarria.

- GABILONDO, Joseba (1984). "XVIII. mendeko lirika herrikoiairen azterketa estrukturala", *Egan*, 7-68.
- HARITSCHELHAR, Jean (1963). "Baigorriko zonbait kantu", *Gure Herria*, 243-256.
- — (69-70). "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun", *Euskera* XIV-XIV, Bilbao, 1-695.
- — (1973). "Simbólica amatoria: los nombres de la mujer amada en la canción popular vasca", *Estudios de Deusto*, XX, 1972, 9-23; baita II Semana Internacional de Antropología Vasca, Bilbao, 1973, 29-43.
- — (1988): "Recueil manuscrits de chansons basques", *ASJU*, XXII-2, 445-461.
- KALZAKORTA, Jabier (2010). "Mendiak bethe elhurrez amodiozko kantua", *Litterae Vasconicae. Euskeraren iker atalak* 11, 63-93.
- — (2019) "Baratzian zoin den eder aza eta porru-landare edo Oi uda-lili polita kantua". *Idatz & Mintz*, 66 zk., 11-23 or., 2019.
- — (2021). "Croharé zapatariaren kantu-kaiera *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak*, 18 zk. 99-154 or.
- LAFITTE, Pierre & DASSANCE, Louis (1967). *Kantu, Kanta, Khantore*. Baiona.
- LEKUONA, Juan Mari (1988). "Herri-lirika XVIII. mendean", *II Euskal Mundu Biltzarra, Literatura biltzarra III* alea, Vitoria-Gasteiz, 61-84.
- MICHEL, Francisque (1857). *Le Pays Basque sa population sa langue ses moeurs sa littérature et sa musique*, Paris.
- MICHEL, Francisque & IRIGARAY, Angel (1963). *Poesias populares de los vascos I, II*, Colección Auñamendi.
- MIRANDE, Jon (1995) Patri Urkizuren edizioa. *Jon Mirandereren gutunak (1948-1972)*. Susa, Iruñea.
- PEILLEN, Txomin (1962). "Amodiozko baratzetan (Amoriozko khantoreak XVIII-gerren mendean)", *Gure Herria*, 74-96.
- RIEZU, Jorge de (1948). "Egüntto batez nindaguelarik", *Flor de canciones populares vascas*, 309-310.
- SATRUSTEGI, Jose Mari (1958). "Lau euskal olerki zahar", *Egan*, 22-26.

Eskuizkribuak:

Agustin Xahoren eskuizkribuak



Salaberriren A. 5 eskuizkribua

Oro effer oro koltte su sira ene maitea
 Soure eskutik plasa niltene. hamaigo ogia
 Eta zero ni nultene soure siltute hama
 2^{en}
 Enume es ne hagn effer noula elatay biltuon
 Orotako efferona siltutia lurtone
 Hari agerik effer gabi maillatu nati bamaon
 2^{en}
 Kumea fagax himeu phuntu arabitaren khordetan
 Egun dene inume effer gaxos neltatiltan
 Es eta efferik phitx nati chouta olatetan
 2^{en}
 Gas mianik estauqu Aphia gutik biltuon
 Aena mian handi eran art siltute liltuon nati
 Orlan jin silt eta biltu liltuon diltut
 2^{en}
 Baratzian souren effer eta felfofia lortu
 Liltut etzan es eran efferian uclun
 KPA gogatur, niala maitea fagati
 2^{en}
 Baratzian han effer eta felfofia lortu
 Aphaldu dila sinian maitea ory dila gogatu
 Siltutia diltuon liltu khouta esan
 2^{en}

Mathieu Eiherabaren kaiera

Enu maite liltu gogor efferia chortia
 Effer efferian dilt ory efferia goga
 Arian effer biltuon indan chagun boroa
 2^{en}
 Liltu gogor felfofia mian ni hagn gogor bat nati
 Enu efferia mian efferian nati
 Arian effer diltuon effer hagn biltuon effer
 2^{en}
 Liltu liltu ago efferia boro
 Effer diltuon felfofia liltu dila hagn
 Effer effer effer, nati efferian hagn
 2^{en}
 Liltu bat effer biltu liltu biltuon
 Effer efferian jin biltu ory efferian
 Efferian dilt biltuon mian efferian
 2^{en}
 Liltu hagn biltu hagn eta efferian
 Efferian diltuon gogor eta efferian biltu
 Efferian diltuon hagn biltuon

Jabier Kaltzakorta

EUKALIPTOAREN GIZARTEA

Eukaliptoaren gizartean bizi gara.

Azkar hazten den zuhaitza denez, eta prezio ona egiten duenez, ohiko bihurtzen ari da gure paisaia. Epe luzera, ordea, paisaia uniformeak ez ezik, lehorrak sortzen ditu eukaliptoak.

Bada, euskal gizarteak, gainerako gizarteek bezala, antzekotasun handiak ditu eukaliptoarekin.

Azkar bizi den gizartea da gurea. Azkarregi. Haatik, esaera zaharrak dioen bezala: «arin eta ondo usuak hegan».

Azkar bizitzeak berarekin dakar hausnarketarik egin gabe bizitzea, unean unekoari baino ez begiratzea. Eta horrek bes-telako arriskuak dakartza. Esaterako, erlatibismoa, nihilismoa, egia-ostekoa eta populismoa nagusitzea. Halaber, eukaliptoarekin gertatu antzera, prezio ona lortu nahi dugu gauza orotan. Horrek eratortzen ditu indibidualismoaren eta materialismoaren moduko gaitzak.

Globalizazioaren ondorioak dira horiek. Zehatzago, modu jakin batean bideratutako globalizazioaren ondorioak, alegia, XXI. mendeko nazioarteko ordenarenak. Horrek, jakina, ekonomia-, gizarte- eta kultura-ereduak zeharo baldintzatzen ditu. Hain zuzen, horrela bihurtzen dira uniforme gizarteak, euskal gizartea barne.

Halatan, testuinguru horretan, bi dira euskal gizarteak di-tuen erronkak. Bateko, kultura-ikuspuntutik, euskal nortasun edo izaerari eusteko premia. Besteko, ekonomia- eta gizarte-ikuspuntutik mundu-mailako arazoei erantzuteko premia.

Edonondik begira dakiola ere, bi erronkak behar-beharrezkoak dira herri gisa irauteko. Kultura-erronka herriaren alde subjektiboari lotzen zaion bitartean, ekonomia- eta gizarte-erronkak herriaren alde objektiboari lotzen zaizkio.

Gainera, erronka horiei guztiei erantzuteko herriaren alde subjektiboari nahiz objektiboari lotzen zaizkien erakundeak daude, eskubide historikoak oinarri dituztenak. Hortaz, erakunde horiek zaindu eta eguneratzeko premia dago, eskubide historikoak zaindu eta eguneratzearen eskutik hain justu ere.

Euskal gizartea euskal herritarrok osatzen dugu. Baina zer da euskal herritar izatea? Gaur egun, euskal herritar izateko ez da behar euskaldun izatea edo euskal kultura ezagutu eta bultzatzea. Euskal herritar izateko lurralde jakin batean bizitzearekin nahiko da. Zinez, eukaliptoaren paisaia uniformean, etorkizunean herritar baino ez gara izango.

Eta zer-nolako herritar?

Ekonomia- eta gizarte-erronkei herri gisa erantzuten jakin ezean, gure erakundeak zaindu eta eguneratu ezean, eukaliptoaren paisaia uniformean, etorkizunean herritar «lehor» izango gara.

Nolanahi ere, herri gisa erantzuteko eta gure erakundeak zaindu eta eguneratzeko aldez aurretik XXI. mendera egokitu-tako ideologia sortu behar da.

Hurrean ere, ideologiak sortu eta eraberritu behar izaten dira gizarte-aldaketei aurre egiteko. Gaur egun, ordea, klixe bihurtu zaizkigu gure artean ditugun ideologiak. Eguneratu-tako ideologia beharko genuke eukaliptoaren paisaia uniforme eta lehorrak saihesteko. Euskal senari eusteko.

Horretarako, aldiz, aurrebaldintza gisa, euskal senari erreparatu beharko litzaioke.

Baina zer da euskal sena? Historian zehar euskal erakundeak oinarritu izan dituzten printzipio nagusiak lirатеke: askatasuna, berdintasuna, jabetza pribatua eta komunitarismoa. Horren adibide, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzkoak, jasotako printzipioak dira:

- (a) Pertsonenganako errespetua eta begirunea euskal legeriaren oinarri dira (6. artikulua).
- (b) Jabetzaren euskal kontzepzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatzeko dute (5.1 artikulua).
- (c) Banakako jabetzaz gain, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezkeen (5.2 artikulua).

Orobat, nahiz eta erlijio-askatasuna oinarri, erakundeek ez duten erlijio jakin baten aldeko apusturik egin behar, ezin uka daiteke gure herriak kristautasunarekin izandako lotura. Horren adibiderik argiena ikurrinean ageri diren bi gurutzeena litzateke: San Andresena eta, guztiaren gainetik, Jainkoarena.

Ildo horretatik, Elizaren Doktrina Soziala, borondate oneko gizon-emakume guztiei zuzendutako korronte humanista den heinean, interesgarria litzateke inolako konplexurik gabe aintzakotzat hartzea. Izan ere, Elizaren Doktrina Sozialak gure tradizioetik gertu dauden balio eta printzipioak barne biltzen ditu.

Elizaren Doktrina Sozialaren balio eta printzipioak unean uneko pertsonen eta garaien gainetik daude. Hain justu, askatasunetik merezi du horietara gerturatzea eta oinarrian dagoena kontuan hartzea.

Horrela, haritzaren paisaia berreskuratzea litzateke helburua.

Eukaliptoak sustrai sakonak izan ohi ditu, haritzarenak bezalakoak. Hala ere, sustrai horiek badituzte desberdintasunak. Eukaliptoarenak efizienteagoak lirateke, parean harrapatzen dituzten mineral guztiak berehalakoan bereganatzen dituztelako, azkarrago haziz. Haritzarenak, oster, hain efizienteak izan ez arren, ez dute gure paisaia uniforme eta lehor bihurtzen. Bestela esanda, haritzak inguruan paisaia desberdinak ahalbidetzen ditu, kolore anitzekoak alegia.

Horrez gain, haritza astiro hasten da, patxadaz, egungo gizartearen erritmoetatik urrun. Adar hostotsuek gerizpea eta babesa eskaintzen dizkiete urte osoan zehar haren azpian jartzten direnei. Eukaliptoak, berriz, ez du goitik beherako gerizpe handirik eskaintzen.

Haritza, arbola santutzat zuten gure arbasoek. Gure erakundeek eta eskubide historikoen ikur ere badugu, Gernikako arbola izanik horren adibide.

Haritzaren sustrai sakonek eta enbor nahiz adar sendoek segurtasun-sentsazioa eskaintzen dute. Beraren bizitza luzeak esperientzia eta jakintza islatzen dute, eta horiek konfiantza. Eukaliptoaren instanteko usaina baino zerbait gehiago eskaintzen du beraz haritzak.

Edu horretan, ideologia berriak, haritzak bezala, segurtasuna eta konfiantza eskaini beharko lieke euskal herritarrei, berau sinetsi, sentitu, bizi eta lau haizetara hedatzeko adinakoak. Azken buruan, eukaliptoaren paisaiatik aldentzeko oinarria sortuko luke ideologia berriak, egungo estereotipo guztiak gaindituz.

Jakina, lantxo honetan, haritzaren paisaia horretarako hazia besterik ez da jarri, doktoradutza-tesi baterako ematen duelako gaiak.

Alabaina, arestian, euskal senari erreparatzean, aipatutako printzipio nagusiak oinarri hartuta, hots, haritzaren sustrai gisa, badira garatzeko moduko ikerlerro eta hipotesiak:

Lebena. Hainbeste erabiltzen den «publiko» hitzaren esangura eta norainokoa aztertzea. Ezin dira nahasi Administrazio publikoek duten egitekoa herritarren askatasuna eta berdintasuna bermatzeko eta Administrazio publiko horienganako nolabaiteko morrontza. Izan ere, pertsonak benetan aske eta berdinak izateko ez dira Administrazio publikoen mendeko izan behar. Aitzitik, benetako askatasuna eta berdintasuna izan ditzaten duintasunez garatzeko baliabideak izan behar dituzte eskuragarri. Baliabide horien oinarri izan beharko litzateke, gainera, norberak edota askatasunez elkartutako pertsona-multzoak duen gaitasuna bizimodua aurrera eramateko. Jabetza pribatuaren eta komunitarismoaren printzipioak sartuko lirateke jokoan orduan.

Bigarrena. Euskal kultura iraunarazteko, eta horren baitan, batik bat, euskara, hezkuntza, komunikabideak, justizia eta lan-mundua behar bezala euskalduntzea.

Hezkuntzan, errealtate desberdinak aintzakotzat hartu beharko lirateke, haurren interes nagusia lehenetsiz beti. Bestela esanda, euskal-guneak eta erdal-guneak errealtate dira. Migratzaile batek aukera handiak izango ditu euskal-gune batean integratu eta heziketan aurrera egiteko. Erdal-gune batean euskara inposatzen bazaio, ordea, aurrera egiteko aukerak zailagoak izango dira, dela hizkuntzaren aldetik, dela edukien aldetik. Arealan ere, erdal-guneetan, edukiak lehenetsi beharko lirateke, euskal kultura eta sena lanabes gisa baliatuta. Edukietan aurrera egin ahala, migratzaileak euskarara maitasunetik gerturatzea izan beharko litzateke helburua. Hezkuntzari dagokionez, hizkuntzak duen garrantzia nabarrena da, edukiak menderatzeko tresna edo bitartekoa dugu-lako. Baina edukiak dira mamia, haurrek bereganatu behar dituztenak, behar bezalako prestakuntza eskuratzen joateko.

Hortaz, erdal-guneetan euskarari nolako tratamendua eman behar zaion aztertu beharko litzateke, migrazioaren fenomeno errealtate dela kontuan hartuz. Halaber, edukietan aurrea egiteko gure artean ofizialak ez diren hizkuntzen premia ere aztertu beharko litzateke.

Komunikabideei erreparatuz, teknologia berriak aintzakoizat hartzea ezinbestekoa da. Beste hitz batzuekin esanda, teknologia berrien bidez komunikatzeko zabaldu diren aukerak gainditu dute komunikabide tradizionalen esparrua. Horregatik, komunikabide tradizionaletan ez ezik, komunikabide berritzaileenetan ere euskara indartzeko apustua egin beharko litzateke. Edonola ere, apustu hori kalitateari lotu beharko litzaioke. Izan ere, komunikabideak euskaraz izateak ez du bermatzen horiek erakargarri izatea. Bestalde, euskal kulturaren agerpenak tradizioan ez eze, berrikuntzan ere oinarritu beharko lirateke. Zer ikusi eta entzun, hura ikasi, eta erakargarri dena ikusten edota entzuten da bakarrik.

Justiziari dagokionez, berau euskalduntzeko horren premia sortu beharko litzateke auzitegietan, Administrazio publikoek eta pertsona fisiko nahi juridiko euskaldunok kasuan kasuko izapide guztiak euskaraz eginez. Premiarik sortzen ez den bitartean, epaile edo magistratuak ez ditugu euskarara gerturatuko. Horrez gain, unibertsitatearen egitekoa ezinbestekoa da, kalitateko edukiez gain, kalitateko euskara tekniko juridikoa eskain dezaten.

Lan-mundua euskalduntzeari dagokionez, bezeroen, langileen eta enpresaburuen arteko komunikazioan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea izango litzateke gakoa.

Hirugarrena. Arlo ekonomiko eta sozialean ditugun erronkak pertsona orok berez duen duintasunetik bideratzea.

XXI. mendeko nazioarteko ordenak hainbat erronka sorrarazi ditu gizarte guztietan, baita euskal gizartean ere. Lau nabarmenduko nituzke: osasuna, elikadura, lana eta energia.

Erronka horiek direla bide, eta lantxo honen hasieran aipatutako gaitzak hedatu izanaren ondorioz, pandemiak, gerarak eta bestelako indarkeria-motak, ingurumena neurritz kanpo kutsatzea eta pertsona askoren nahitaezko migrazioak sortu dira. Gizarte-auzi berria dugu.

Baina, erronka eta arazo globalak izanik, nola erantzun diezaieke horiei euskal gizarteak? Nola bideratu gizarte-auzi hori? Pertsona orok berez duen duintasuna oinarri hartuta.

Dagoeneko, «publiko» hitzaren esangura eta norainokoa aztertzeko premiaz aritu gara, pertsonak bene-benetan askeak eta berdinak izan daitezen.

Hortik abiatuta, funtsezkoa da bakearen kultura hedatzea, elkar errespetatu eta elkarrekin hazteko. Elkarrekin hazteko gure gizartea osatzen duten antolaketa-esparru bakoitzean: familian, lagun-artean, auzoan, enpresan, erakundeetan.

Bakearen kultura hedatzeko ezinbestekoa litzateke antolaketak-esparru guztiak sustatu eta babestea, bai eta euren arteko ko-hesioa lortzea ere. Ezbairik gabe, batera indartsuago gara.

Baketik bakarrik lor daiteke gizarte-ituna. Gizarte-ituna gauzatze aldera, aintzakotzat hartu beharko lirateke beste hainbeste ikerlerro eta hipotesi:

- (a) Administrazio publikoen eta pertsona fisikoen nahiz pertsona juridiko pribatuen arteko elkarlana aztertzea, osasun- eta zaintza-zerbitzuak areagotu eta hobetzeko, farmazia-industria garatzeko, gure lehen sektorea eraberituta elikadura-kate propioa indartu eta garatzeko, energia-sortzeko industriak bultzatzeko, errealtatetik abiatuta gure gizarteak behar duen subiranotasun energetikoaren eta ingurumenaren arteko orekari eutsiz.
- (b) Lan-duina euskal gizartean definitzea eta berau sustatu eta lortzeko akordioak lortzea, ondo egituratutako mai-

laketaren arabera, kasuan kasuko lurralde-esparruen zein esparru funtzionalen berezitasunak kontuan hartuta.

- (c) Gure enpresek atzerrian dihardutenean edo atzerriko beste enpresa batzuekin harremanak dituztenean giza eskubideak eta lan-baldintza duinak errespetatzen direla bermatzeko protokoloak arautzea.
- (d) Egoera larrian dagoen Espainiako Gizarte Segurantzaren Sistema osatzeko gure esku dauden esparruak garatu eta bultzatzea, eta Gizarte Segurantzaren Sistema hori eta horren kudeaketa hobetzeko har daitezkeen neurriak aztertzea.
- (e) Migrazioaren gaian modu ordenatuan jardutea, pertsona orok eskubide eta betebeharrak berberak izatea bermatzeko xedearekin eta integrazioa lortzeko eta kultura-talkak sailhesteko politikak garatuz.
- (f) Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak pertsonen behar izanen arabera egokitzea, bihar-etzi, bakoitzak beraren gaitasunen arabera, lana aurkitzeko bermeak areagotuz.
- (g) Gabezia-egoera estaltzeko sistema bateratua eratzea eta hori Gizarte Segurantzak eskaintzen dituen prestazioekin ondo koordinatzea, sistema horrek berau balia dezaketenei pertsonen begira iragankortasun-izaera izan dezan, pertsona horiek gizartean aktibo izatea lehenetsiz.

F. Javier Arrieta Idiakez

Deustuko Unibertsitateko Lanaren eta
Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea

**SANTA TERESAREN ETA HONEN LAU
LAGUNENKANONIZAZIOAREN LAUGARREN
MENDEURRENA (1622-2022)
*PROZESUEN BIDEA***

1622ko martxoaren 12an zen, San Pedro basilika handiak, ia burutua zen eraikin bikainak, bost dohatsuak bere barrunbean hartu zituen. Isidro Labrador, Teresa Jesuse-na, Ignazio Loiolakoa, Frantzisko Xabierkoa eta Felipe Neri ziren santu aitortzekoak. Pertsona hauetako bakoitzak bere historia egin zuen bizitzan barrena, egoera berezietan, gerra artean, nazio sorreren, elizen suntsitze eta berpizte artean; gizartearen eta Elizaren berpizte harrigarria gertatu zen garai hartan, bereziki XVI. mendean. Teresa Jesusenaren, Ignazio Loiolakoaren eta Frantzisko Xabierkoaren garaia zen.

Santa Teresaren kanonizazioa ospatzean, haren bizitzaz eta santutasunaz prozesuetan eginiko bide luzea gogoratzen dugu. Hainbat hiritan burutu ziren prozesu hauek Ama Teresaren nortasuna argitzeko bide izan dira; haietan agerian jar-tzen baita beraren santutasun-fama eta giza maila guztietara zabaltzen den Teresaren emakume-oihartzuna.

I. Heriotzatik zeruko aintzara

1. Lekuko berezia: Ana San Bartolome¹

Teresa Jesusena zeruko aintzara igaro zenean, 1582ko urriaren 4ko 21:00ak ziren. Eta gertakari honen lekuko berezia izan zen beraren adiskide, isil-mandatar, erizain eta idazkari Ana San Bartolome. Mundu honetako azken eszena honetan haren etorkizun aintzatsua bistaratuko zuen zerbait gertatu zen.

Egunsentian Teresa hitz egin ezinik gelditu zen. Egunean zehar Anak bere erizain-zeregina betetzen zuen, esan ezin ahalako maitasunaz gaixoa zainduz eta arropa garbiak jantziz.

Azpimarratzekoa da ama Teresak Ana San Bartolomeren besoetan hil nahi zuela eta halaxe hil zen. Urriaren 4a zen. Erizaina ez zen Fundatzailearen oheburutik aldentzen. Ama hiltorian zenean, Ana zela hilko zena zirudien.

Ilunabarrean A. Antonio Jesusena Fundatzaileari bisita egitera joan zen, eta Ana oraindik han zela eta ez zuela atsedetik hartzen ikusirik, zerbait jatera joateko esan zion; maitasun handiz kontatzen digu berak eszena hau:

“Eta ni nindoan bitartean, ez zuen hartzen atsedetik gure Santak, eta batera eta bestera begiratzen zuen. Eta aita Antoniok esan zion, ni bere ondoan nahi ninduen, eta keinuz esan zion, baietz, eta deitu zidaten. Eta etortzean ikusi ninduen, eta irribarre egin zuen; eta halako grazia eta maitasuna erakutsirik, bere eskuekin hartu ninduen eta nire besoetan jarri zuen bere burua; eta han izan nuen besarkaturik azken arnasa eman zuen arte, Santa bera baino ni hilago nengoela”.

¹ Idazlan honetan Ana San Bartolomeren idazki batzuk aipatzen ditugu, eta laburturik aipatzen ditugu azken argitalpen honen arabera: Beata ANA DE SAN BARTOLOMÉ, *Obras completas*. Nueva edición revisada y aumentada por Julen Urkiza, OCD (Burgos, Monte Carmelo, 2014), 1712 or.



Une honetan gauza miragarria gertatu zen: Anak berak kontatzen digu: Jauna “agertu zitzaidan handitasun osoan dohatsuak lagun zituela ohe ondoan, haren arimaren bila zeto- zela. Ikuspen txit aintzatsu honek Kredo bat iraun zuen, nire nahigabe eta sentimendua etsi on bihurtzeko eta Jaunari barkamena eskatzeko eta hau esateko beste denbora: ‘Jauna,

berorrek nire pozerako hura hemen uztea nahi balu, beraren aintza ikusi dudanez gero, eskatuko nioke, ez uzteko hemen luzaroago'. Eta honekin azken arnasa eman eta arima dohatsu hau Jainkoaz gozatzera joan zen".

Hau gogoan izanik, ez da harritzekoa Anak Ama Teresa emakume santu eta apartekotzat mirestea, Kristorekin bat eginik ikusten baitzuen beti. 1621-1622 inguruan santuak gogoratzen zituen, bere garaiko "izarrak", eta oso labur bada ere, bakoitzaren aipamena egiten zuen: "frai Pedro Alkantarakoa", "Avila maisua", "frai Luis Beltran", "aita Frantzisko Borjakoa", "gure santu eta aita frai Joan Gurutzeko", eta baita aita Ignazio ere, mundutarra izanik, Jainkoa beraren bila joan zen bere zerbitzurako perfekzio handiko Ordena jaso zezan. Hortik irten dira orain arte arima santuak. Horietako bat, aita Frantzisko Xabierreko, obedientziak Indiara bidali zuena; arima asko erakarri zituen Jaunagana eta Jainkoak miragarriak egin zituen berarengan, beraren bizitzan agertzen direnez"... Baina, Teresarengan Kristoren presentzia nabari zuen Anak eta bizipen horrek beste guztien gainetik ikusaraziko zion Ama Teresa:

"Izar hauek eta aipatzen ez ditudan beste batzuk geure begiz ikusi ditugu, eta gu bezalako ahul eta gaixoak ziren, baina hainbeste ahalegindu zirenez gero, Jainkoak antzinakoei adina indar eman zien. [...] Horrela gure Santa, aipaturiko izar guztien gainetik, eguzkiari begira beti dagoen goizeko izarra da [...]; eta zuzentasun eguzkiak berari begiratzuz, Espiritu Santuaren fruituak sortu zituen berarengan, haien bidez seme-alabengan bizitza-landareak sor ditzan lurrean. Eta ez haiengana soilik, baita mundu osoan ere, eta bereziki Espainian, hark bere Ordena han eraikiz, lurra jota zeuden beste batzuk ere haren eredu eta garrez eraiki baitziren [...]. Horregatik goizeko izarra da, eta eguzki-argia bertan ispilatzen da, beste guztiak baino distiratsuago dirudiela."



2. Prozesuen zabaltasun eta aberastasuna

Bolandistek aitortu zuten Ama Teresaren prozesuen zabal-
tasun eta handitasuna *Acta Sanctorum* delakoan ezagutzen di-
ren beste prozesu-lanen gainetik zeudela². Orain askoz ere
hobeki ezagutzen ditugu Teresaren prozesuak, eta kontura-

² J. VAN DER MOERE, *Acta S. Teresiae a Jesu...*, Bruxellis 1845, 682. or. Ikus ai-
tortza bera lan honetan ere: SILVERIO DE SANTA TERESA, *Procesos de beatificación
y canonización de Sta. Teresa de Jesús...*, I. lib. Burgos 1934, VIII. or. (BMC 18).

tzen gara prozesu eta testigu kopuru harrigarria izan zela herrialde eta hiri desberdinetan.

Ezagutzen diren 43 prozesutan 800 deklaratzaille inguru daude. Galdu diren 17 bat prozesu kontuan hartzen baditugu, deklaratzailleak 1.100 ingurura hel daitezke guztira. Prozesuen galerarik handiena Erroman gertatu zen.

Gorde izan diren prozesuetako 769 deklarazioetatik 351 emakumeenak dira eta 418 gizonezkoenak. Emakumeen artean gehienak moja karmeldar oinutsak dira (228), gutxiago moja karmeldar oinetakodunak (8), moja zistertarrak (9), moja agustindarrak (9), etab. Eta gainera 109 emakume sekular. Gizonezkoen artean gehienak sekularrak dira (189), gero apaiz sekularrak datoz (85), eta ondoren, erlijiosoak: jesulagunak (35) domingotarrak (25), karmeldar oinutsak (22) karmeldar oinetakodunak (20), frantziskotarrak (9), agustindarrak (8), eta gutxiago jeronimotarrak, beneditarrak, kartusiarrak, etab. Sei gotzain eta artzapezpiku bat ere agertzen dira.

Azpitarratzea komeni da, kontaezinak direla Ama Teresa-ren bizitzaz datozen albisteak: haren giza eta espiritu aldeko nortasunaz, haren izenaren zabalkundea munduko lurralde askotan... Baina haren idazlanei buruzko hainbat albiste ere agertzen dira, baita galdu diren haren gutun batzuen argitasunak ere, eta batez ere haren erlikiez; sarri agertzen dira eguneroko ardurak, era askotakotakoak, esaterako, osasun-kontuak, medikuntza profesionaz eta herri-medikuntzaz, etab.

II. Beatifikaziora arteko bidea (1591-1614)

1. Informazio-prozesuak (1591-1597) (edo elizbarrutikoak)

a. Salamancako eta Alba de Tormesko informazio-prozesuak (1591-1592, 1597)

Teresa hil ondoren haren santutasun-fama zabaldu zen; gainera, haren idazlanak onura handiz irakurtzen ziren. Horre-

la, Jeronimo Manrique, Salamancako gotzainak informazio biltzeko agindu zuen *ex officio* Teresa Jeesusenaren bizitza eta mirariez; eta 1591eko urriaren 15eko dataz egin zuen.

Dokumentu honetan erabaki hau zergatik hartzen den arrazoiak ematen dira: zenbait gertakarik areago indartzen zuten haren santutasun-fama: haren gorputza usteldu gabe geratu zen eta Jainkoak “harrigarriak egiten zituen hartan”; bizi zela “bizimodu santu eta eredugarria egin zuen, eta haren gorputza Ordena barruan eta kanpoan santutzat berresten da, eta berariazko debozioa diote”. Dokumentuan galderak zetozen, eta haien harira aztertuko ziren testiguak.

Gotzaina bera izan zen testiguen adierazpen horietan buru egingo zuena, eta Joan Casquer izan zen prozesuko notarioa. Salamancan 13 testiguk egin zituzten adierazpenak, eta Alba de Tormesen 19k. Adierazpenak egiten lehenena domingotar teologo Domingo Bañez izan zen (Salamancan: 1591-X-16).

b) Gainerako informazio-prozesuak (1595-1597)

Hiru urte igarorik Madrilén Aita Santuaren nuntzioa zen Kamilo Caetanok, Felipe II.a erregean hala nahita, Salamancako gotzainak burutu zituen prozesuei berriro ekitea erabaki zuen. 1595eko maiatzaren 19an nuntzioak bere ordezkoko epai-leak izendatu zituen, informazio-prozesuen instrukzioak bidera zitzaten 16 hiritan. Informazio hauek guztiak 1595-1597 arteko urteetan burutu ziren.

Nuntzioak agindu zion “Bernabe del Mármol protonotario apostolikoari, jaso zezala informazioa aipaturiko Teresa Jeesusenaren bizitzaz eta egintzez eta gure Jaunak haren gorputzaren bidez egin nahi izan zituen mirariez”.



Baina hainbat izan ziren informazioak bildu zituzten dokto-
reak: Avilan, Madrilen, Toledon, Segovian, Hueten, Zaragozan,
Valladoliden, Sevillan, Sanlucar la Mayorren, Lisboan, Cuer-
van, Malagonen, Piedrahitan, Medina del campon, Villanueva
de la Jaran eta Valen-tzian.

Bernabé doktorea arduratu zen nuntzioaren agindua betetzeaz; eta berbera izan zen, prozesuak bildurik, (notario-kopietan), Erroman pertsonalki aurkeztu zituen...

Prozesu hauek 181 adierazpen bildu zituzten: 122 emakumeenak ziren eta 59 gizonezkoenak.

2. Prozesu remisorialak «in genere» (1604an) (prozesu apostolikoak)

Ama Teresaren kanonizazioa eskatzen zutenen aldarria oso agerikoa zen. Horrela, Gaztelako erreinuak idatzi zion Aita Santuari 1596ko otsailean, “jar zezala santu aintzatsuen artean”, eta Toledoko Fernando jaunak, San Juan Ordenako priore nagusi zenak, “hainbat diru” jarri zuen, beharrezko prozesuak egiteko, eta komeni zen egitea haren santutasun eta mirarien testigu asko hil baino lehen.

Lermako dukeak 1600ean Aulki Santuan Espainiako enbaxadore zenari eskatuko dio “albait garrik handiena” jar zezala Aita Santuaren aurrean ama Teresaren kanonizazioaren gaian. Eta hurrengo urtean “guztiek dioten debozio handiaz eta kanonizatua ikusteko desira idazten dio. Eta beraz, Aita Santuari eskatzen zaio *prozesu-agiriak* egiteko, bera ezagutu zuten testiguak bukatu baino orduko”³.

1602 inguruan, Aita Santuari egindako eskari hauen eta beste batzuen ondoren, Espainiako erakunde sozio-politiko eta erlijiosoek egindako eskari-uholdea dator; hauek agertzen dira zerrendan: Bernardo Sandoval eta Rojas, Toledoko kardinala; Mexiko, Burgos, Valentzia, Zaragozako artzapezpikuak, Tarragonako artzapezpikua eta kontzilio probintziala, Kordoba, Tuy, Ciudad Rodrigo, Valladolid, Salamanca, Coria, Mondoñedo, Osma, Palentzia, Lugo, Avila, Segovia, Tarazonako

³ Lau hilabete lehenago Maria enperatrizak ere idatzi zion Aulki Santuaren aurrean enbaxadore zenari, ama Teresaren kanonizaziorako egin behar ziren prozesuen alde egin zezala.

gotzainak. Eta beste *erakunde eliz mailako eta zibilak*, herri-agintariak, adibidez, metropolietako elizak eta Gaztela eta Leon erreinuetako katedralak, Aragoiko erreinuko diputatuak; Avila eta Lisboa hiriak; Albako eta Lermako dukeak, Espainian nuntzio apostolikoa zena...

Eskaera hauei oroitidazki batzuk gehituko zitzaizkien; hauetako bat, Espainiko erregearena. Era berean A. Pedro Jainkoaren Amarenak, Italiako kongregazioako Karmeldar Oinutsen komisario jeneralak, idatzi zion Paulo Mucancio Errituen Kongregazioaren idazkaria zenari, ama Teresaren kano-nizazioaren alde...,.

Azkenik, 1604an urrats handia eman zen. Kongregazio honen lehen bileran, urtarrilaren 7an, gutun *remisorialak in genere* emateaz hitz egin zen. Hauek 1604ko maiatzaren 8an emango ziren Avila eta Salamancako gotzaintentzat.

Evilan egin ziren 12 adierazpenetan, 1604ko abuztuan egin zirenetan, bertako gotzaina, Lorentzo Otadui Abendaño (Oñatiko semea) izan zen buru. Prozesuaz gainera gotzain honen gutun bat gehitu zen Errituen Kongregazioaren kardinalentzat, hauei jakinarazten bete dela ama Teresa Jesusenaren santutasun famaz eta mirariez “azterketa eta froga” egitea testigu gutxirekin, “luzeegia gerta ez zedin”.

Salamancan adierazpen guztietan bertako gotzaina, Luis Fernandez Córdoba, izan zen buru.

3. Prozesu remisorialak (edo apostolikoak) «in specie» (1609-1610)

Errituen Kongregazioaren 4. bileran, 1605eko uztaillean, Errege Katolikoaren gutuna irakurri zen, eta Avilako eta Salamancako prozesuak aurkeztu ziren. Eta 1606ko urtarrilaren 28an prozesu hauen edukia zer zen kontatu zen, ama Teresaren bizitza eta mirarien laburpena eginez.

Azkenik, 1608ko irailean *Letra Apostolikoak* jaulkitzen zitzaizkion Toledoko kardinalari Teresaren beatifikaziorako *prozesu remisorial in specie* abia zezan. Idazpurua ere bidaltzen zen 117 gaiak zekartzana, haien harira aztertu behar baitziren testiguak. Prozesuen hurrenkera denboran, prozesu bakoitzaren lehen adierazpenaren arabera, hau izan zen: Madril, Salamanca-Alba, Burgos, Avila, Valladolid, Alcalá de Henares, Cuenca eta Varela, Malaga, Villanueva de la Jara... Prozesu hauek guztiak 1610ean burutu ziren.

Atentzioa ematen dute *prozesu remisorialen* kopuruak. 12 prozesu ezagutu eta argitaratu dira. Baina beste 17 galdu egin dira; hauetako batzuen zatiak gorde dira. Galdu diren prozesuen artean dira Medina del Campo, Segovia, Toledokoak... garrantzitsuak izan zitezkeenak.

Prozesuek Ama Teresaren famak XVII. mendeko lehen hamarkadan zuen oihartzun handia erakusten dute, hartaz izan zen ezaguera, eta bereziki jendeak ikusiriko Ama Teresak egiten zituen gauza harrigarriak...

4. Beatifikazioa (1614)

Errituen Kongregazioaren 1611ko ekainaren 25eko bileran Espainiatik bidalitako prozesuak aurkeztu ziren, eta latinera itzul zitezela erabaki zen. Urte bereko azaroaren 19ko bileran irakurri ziren Alberto eta Isabel Flandriako erregeen gutunak; hauek eskatzen zioten Aita Santuari gehiago ez luzatzeko Teresaren kanonizazioa.

Aita Santuari eginiko eskaera ugarien artean ziren Tarragonako, Santiago de Compostelako, Granadako, Burgosko eta Lisboako artzapezpikuenak; 21 gotzainenak eta hauen artean ziren Iruñeko eta Kalagurrikoarenak; katedraletako kapitulu batzuenak eta beste agintari eta erakunde zibilenak...

1612ko abenduaren 22an kardinalak adierazten zuten Jainkoaren zerbitzariaren bertute heroikoak eta bizitzako san-

tutasuna guztiz frogatuak zeudela, eta horrela jakinarazten zion Lancellotti kardinalak Aita Santuari.



Gregorio XV. eta Ludovico Ludovisi Kardenala

Eta 1614ko urtarrilaren 2an, hiru auditoreek (Francisco Sacratí, Giovanni Battista Coccini y Alfonso Manzanedo de Quiñones) kontatzen diote Aita Santuari Jainkoaren zerbitzariaren bertuteen eta goi-mailako santutasunaren lekukotasuna, eta ofizioa errezatzeko eta Karmeldar Oinutsen Ordena osorako eta Espainiako erreinuetarako meza kantatuak ospatzeko bai mena emateko eran ez ezik, Elizan ohi den eran kanonizaziorako ere gertu zeuden.

Hurrengo bileretan kardinalak hainbat mirari aztertu zituzten, azkena, hamabigarrena, onartua izan zen arte. 1614ko apirilaren 12an Kongregazioak Teresa Jesusenaren beatifikazioa erabaki zuen, eta erabaki hau bi egun geroago aurkeztu zitzaion Aita Santuari, eta honek ontzat eman zuen. Eta hamabi egun geroago Aita Santuak beatifikazioko Brebea sinatu zuen.

Ama Teresaren liburuez eta doktrinaz Joan Lorenzana domingotarrak Teresa amaren doktrinaren gauza batzuen aurka Inkisisia jo zuen. Diego Yepes, Tarazonako gotzainak, erantzun zion, ama Teresaren defentsan 1594. Gertakari honetatik etorri zen Erromako geroko salaketa doktrina teresiarraren aurka. Orduan doktrina teresiarraren defentsa aurkeztu behar izan zen. Ofizialki aurkeztu zioten Aita Santuari defentsa Diego Álvarez Traniko artzapezpikuak eta Joan Rada Zizilian Patiko gotzainak. Karmeldar Teresiarren partetik hiru teologok egin zuten defentsa egokia: Tomas Jesusenak, Pedro Jainkoaren Amarenak, Joan Jesus Mariarenak.

III. Azken urratsak kanonizaziora arte (1614-1622)

Espainiako erregeak 1614ko ekainaren 17an eskerrak eman zizkion Aita Santuari ama Teresaren beatifikazioagatik; eta gehitzen zion: "...hain ekintza onari hasiera eman dionez gero, buka dezala bere aitasantutzako garai txit zoriontsuan, emakume hain santu eta aintzatsua kanoniza dadila aginduz, haren

egintzen fruituak eta haren mirarien ondorioak munduan hain ezagunak baitira”.

Habsburgoko Matias enperadoreak idazten zion Aita Santuari Vienatik, 1615eko urtarrilaren 27ko dataz, Teresaren kanonizazioa eskatuz; gauza bera egingo zuen, lau hilabete geroago, Gaztelako errinuak.

1615eko lehen hileetako hainbat bileratan Teresa dohatsuaren bizitzaz eta bertuteez eztabaidatu zen: Rotako aipaturiko hiru auditoreek estudioa aurkeztu zuten eta egingo zen kanonizaziorako epaia eman zen. *Lehen* partean eginak ziren prozesuak aztertzen ziren, bai *informazio-prozesuak*, bai *remisorialak*; eta haien baliotasuna berresten zen. *Bigarren partean* bizitzaren santutasunarte azaltzen zen, eta kanonizaziorako beharrezko zen santutasun-maila azaltzeko ahalegina zeto-
ren, Teresa dohatsuarengan bertuteak egiaztatzen.

1617ko maiatzaren 25a egun adierazgarria izan zen: Gorpuzti eguna zen, eta Aita Santua San Pedrotik Scalako karmeldarren elizara joan zen 20 kardinal baino gehiago eta gotzain ugari lagun zituela: Aita Santuak Sakramentu Santuaren aurrean otoitz egin ondoren, Teresa duhatsuaren oinaren erlikia gurtu zuen, esanez merezi zuela kanonizatua izatea.

1618ko urriaren 13an, Errituen Kongregazioaren bileran, Aita Santuak bidali zuen oroitidazkia irakurri zen; adierazten zen zein ongi hartua izan zen Espainiako erreinuetara zabaldu zen grazia eta nola izendatu zuten erreinu horietako zaindari. Egiaz, 1617ko araroaren 30ean, Gaztela eta Leongo erreinuek Teresa dohatsua beren zaindari eta abokatu izan zedila dekretatu zutela.

Albuquerqueko eta Fianoko dukesak, 1621eko uztaillean, Aita Santu berriaren, Gregorio XV.aren aurrean agertu ziren, kanonizaziorako baietza eman zezala eskatuz. Aita Santuak erantzun zuen: “Tutto il mondo esclama per questa santa, veramente e grande la santa, non potiamo già più resistere, lo faremo, lo faremo”.

Ordenako prokuradore jeneralak 1621eko ekainean, gutxi gorabehera, eskatzen zizkion Alberto Artxidukeari gutunak Aita Santuari ama Teresaren kanonizazioa eskatuz, eta gauza bera eskatzen zion Isabel Klara Eugenia Infantari ere.


Flandriako A. Probintzialak, Tomas Jesusenak, gutun interesgarri bat idatzi zion Isabel Klara Eugenia Infantari, ama Teresaren kanonizazioan bera *begiralea* izatea komeni zela adieraziz:

“Erromatik idazten digutenez, Espainiako erregeak bere gogoan Madrileko Isidro dohatsuaren kanonizazioan jarririk du; Frantziako erregea Ignazio dohatsua gogoan duela ari da; gure Ama santua, berriz, bakarrik dago, ez du gaur gaurkoz inor bere kanonizazioa bideratuko dionik; egia da erregeak eta zenbait printzipek idatziko dutena, baina ez dago afera hau berea bezala bere kontura hartu eta Aita Santuari eskatuko dionik [...], Aita Santuak uler dezala ez dela konplimendua santaren kanonizazioa eskatzea, berorien gorentasunek dioten barru-barruko maitasuna eta zeruan Gure Jaunak hain goretsia duena lurrean ere saritua ikusteko desira handia baizik; eta ez Aita Santuarekin bakarrik, batez ere Ludovisio kardinalarekin, haren ilobarekin, afera hauetan dena baita bera; berorien gorentasunen bitartekotzaz egin behar dira urrats berberak”.

Aulki Santuaren aurrean Bruselako gortearen enbaxadoreak, Joan Bautista Vives-ek, pertsonalki agertu zion Aita Santuari, Erregeek zioten debozioa eta Teresa kanonizatua izatea nahi zutela. Fundatzailea kanonizatua izateko nolakoa zen esan eta esan ari zitzaion enbaxadorea⁴.

Gregorio XV.ak, 1622ko otsailaren 28an, bildu zuen erdi ageriko konsistorioa, kardinalek, artzapezpikuek, gotzainek... esku hartzen zutela; bost Dohatsuen kanonizazioa 1622ko martxoaren 12an ospatzea dekretatu zen. 26 kardinalek, 8 artzapezpikuk eta 19 gotzainek eman zuten beren botoa, bakoitzak bere botoaren arrazoia emanik Teresa dohatsua Karmeldar Oinutsen fundatzailearen kanonizazioaren alde.

⁴ 1621-VII-19ko data.



IV. Kanonizazioaren bulda (1622-III-12)

1622ko martxoaren 12an izan zen kanonizazioa, data horretan sinatzen eta ageriko egiten baitzuen Gregorio XV.ak “Omnipotens sermo Dei” bulda, Aita Santuaren sinaguraren ondoren 36 kardinalenak ageri dira. Buldak ama Teresa Jesusenaren bizitzaren, bertuteen eta mirarien gauza batzuk gogora ekartzen dizkigu. Harridura agertzen du Jainkoak garai hartan egiten zituen gauza miragarriengatik, izan ere, “birjina baten eskuz sorrarazi eta jalgi baitzuen bere Elizan, beste Debora bat bezala, Teresa birjina”...

Elizaren bizitzaren gauza batzuk gogora ekarriz, hau baieztatzen da: “Hain hirmoki eta egiazki sinesten eta aitortzen

zituen Elizaren Sakramentu Santuak eta Erljio Katolikoaren gainerako dogmak, beste ezertan ere ezin baitzuen... ziurtasun handiagorik izan. Argitua zen... Santa hau fedearen zuziaz eta argiaz, adimenaren begiez askotan ikusten baitzuen argi-argi Jesu Kristoren gorputza Eukaristian, eta esan ohi zuen ez ziela inbidiarik batere gorputzeko begiez ikusi zutenei”.

Haren bertuteen bikaintasuna azpimarratzen du, lehenik *Jainkoaren maitasuna*. ... / Bigarrenik, *lagun burkoaren maitasuna*... / Eta Jainkoagandik hartu zituen dohain eta graziez gainera, *idazle izatearen aldea* azpimarratzen da, “oparo jantzi zuen beste dohain eta graziez, eta jainkozko ezagueraz beste eta joritu zuen, [...] zabal eta argi zezan..., mistika Teologiako hainbeste liburu eta deboziozko beste asko idatziz...”.

Eta azken aldera ospe handiz esaten da: “Jainkoaren ohore eta aintzarako ..., fede katolikoaren goratze eta gehitzerako, Jainko errukitsuaren, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren, aginpideaz eta ahalmen handiaz, Apostolu zorionekoen aginpide eta ahalmenaz, eta geureaz... ebazten, deliberatzen eta xedatzen dugu, Teresa dohatsua..., santua, aintzatsua eta goretsia dela...; horregatik Kristoren jarraitzaile guztiek gurtu, beneratu eta egiazko santutzat izan behar dute, eta beraz, agintzen dugu, nahi dugu eta xedatzen dugu agurtua eta gurtua izan dadila”⁵.

V. Kanonizazioa dela eta egin ziren jaialdiak

1. *Erroman*

Kongregazio Santuaren idazkariak idatzi zuen gogo biziak aktetako azkenerantz: “Kanonizazioa egin zen ospe handikoa eta menderen mende gogoratzekoa”.

⁵ Hemen gaztelaniazko itzulpena erabili izan da liburu honetan argitaratua: *Reforma* (JOSÉ DE SANTA TERESA, OCD, *Reforma de los Descalzos de Nuestra Señora del Carmen de la primitiva observancia hecha por santa Teresa de Jesús en la antiquísima Religión, fundada por el gran Profeta Elías*, IV, Madrid 1684) 313-322. or., Silverio Santa Teresarenak ere argitaratu zuen itzulpen hau (BMC 2, 419-430).

Izan ere, ezaguna da martxoaren 12an Erroman San Pedroren basilika berrian egin zen ospakizuna guztien miragarri izan zen errito txit solemnearekin. Kongregazioaren idazkariak deskribatzen du kanonizazio unean San Pedro basilikaren barruan izan zen ikuskizun zoragarria: hango handitasun, edertasun eta hango arkitektura, etab.; anfiteatro sinestezina.

Biharamunean, 13an, prozesio ospetsua egin zen San Pedrotik karmeldar oinutsen Scalako Santa Mariara.

2. Munduan (*batez ere Flandrian*)

Nazio askotan ospatu zen santa Teresaren kanonizazioa; batez ere Karmeldar Oinutsen Ordena kokatua zen tokietan; Espainiako hiri askotan egin ziren jaialdiak, hainbat argitalpenetan azaldu direnak. Baina Frantzian, Italian, Belgikan, Alemanian, Polonian, Indian eta abarretan ere egin ziren ospakizunak; ospakizun pozgarri hauek asko ugaritu ziren 1622. urtean barrena.

Gogora ditzakegu, adibidez, Espainian egin ziren ospakizun handiak Ama Teresaren beatifikazioa zela-eta.

Idazlan hau hasi nuen ama Teresaren heriotza Ana San Bartolomereren besoetan kontatuz; honek ikusi zuen bere mais-trak izango zuen aintza. Orain beraren adiskide minak Ama santuaren aitorpena nabarituko zuen lurrean. Anak Jainkoaren presentzia bizi eta aktiboa bizi izan zuen Teresarengan, eta ezagutzera eman zuen Frantzian eta Flandrian... Eta ikusten zuen gure Santa goretsia eta aitortua zela munduan, eta bereziki Flandrian, hango burujabetza Espainiako erreinura itzuli baitzen hilabete batzuk lehenago.

Anak zorionak hartzen zituen eta bidaltzen kanonizazioaren gertakari handiagatik. Adibidez, zorionak bidaltzen eta eskerrak ematen zizkion Isabel Klara Eugenia Infantari, poz handia lortzen esku hartu zuelako. Haren Gorentasunak ziur egon behar zuen Santak ordainduko ziola bizi honetan

eta gerokoan. Eta eskatzen zion agin zezala Amberesen jai bat ospa zedila Santa berriaren omenez.

A. Jeneralagandik, Matias San Frantziskorenagandik, ere jaso zituen albisteak eta zorionak; honen gutuna “zerutik etorria bezala” jaso zuen. Anak bere aldetik bere esperientziak kontatzen zizkion: kanonizazio-eguna poz-pozik igaro zuen, “ni bakean eta pozik geratu nintzen, Santa hau merezi zuen bezala ohoratu ikusirik Jainkoagandik eta beronen Eliza Santuagandik. Be-deinka dezagun gau eta egun Jauna, hainbeste graziaz janzteko hautatu baitzuen, bere adiskideengan grazia horiek erakustea izan baita haren aintza; gure Santarengan nahiko uharka aurkitu zuen, beste askorengan baino grazia ugariago isurtzeko”⁶.

Belgikan karmeldarren komentu guztiek handikiro ospatu zuten kanonizazioa. Ezagun zaigu Tournai-ko moja karmeldarren komentuan nola ospatu zen, edota Mons-eko komentuan. Horrela ospatuko zen Bruselan, Lovainan, Malinasen ere; Ana San Bartolomek ahaleginak egin zituen Anberesen jai erlijioso handi bat antola zedin.

Kanonizazio-jaia ospatzeko bazen zerikusi handiagoko prestaera bat, espiritu aldetiko prestaera. Kasu honetan Anberesko karmeldar oinutsen prioreak, A. Hilario San Agustinenak, ama Anari eskatu zizkion aholkuak gertaera honetarako prestatzeko, eta Santa Teresaren oinordeko karismatikoak espirituz beteriko gutuna eskaini zien: Lehenik, jairako prestatzeko “Jainkoari eta gure Santari atsegin zaien erara”, beharrezkoa da “Kristo gure Salbatzaileak gure salbamena burutu zuen egunean atera zuen jantzia apaintzea, purpuraz jantzea: irain, mespretxu, eta gurutzean izan zituen oinazeen jantzia izan baitzen”.

Kanonizazioa dela-eta Anberesen izan zen jaia 1622ko ekainaren 13an izan zen. Anberesko karmeldarretako kronikek,

⁶ ANA DE SAN BARTOLOMÉ, *Carta* 478 (A. Matias San Frantziskorenari idatzia, Amberes abril [1622]).

jaiari ospea emateko orduan, Anne Meleun, Bournonvilleko dukesaren, esku-hartze aktibo eta nabaria azpimarratzen da.

Dukesak eratu eta prestatu zuen jaiaren ospakizuna, eta berak berotu zien esku hartzeko gogoa pertsona askori. Gas-tuei, denborari eta ahaleginei begiratu gabe... Kaleak apaizen saiatu zen, batez ere komentuarien eta elizaren aurreko plaza. Komentuarien aurrean margolan handiak agertu zituen Santa berriaren bizitzako gertakari nagusiak adieraziz; taula handiak tapiz artistikoekin, banderekin, loreekin... grandes tablonas con tapices artísticos, banderas, flores, etc. Elizan Isabel Infan-tak prestaturiko tapiz zoragarriak esekiarazi zituen.

Eta hirian zehar prozesioan eramana izango zen Santaren iru-dia garaipen-arku baten pean kokatua zen, diamantez, bitxiz, ha-ribitxi benetakoz eta faltsuz edo apaingarritzkoz. Estatua (Ama Prioreak beatifikaziorako 1614an egiteko agindu zuena) espainiar erara apaindua zegoen, jantzia eta mantua dukesaren harribitxiz estaliak, Infanta bera ere harri eta zur geratu baitzen ikustean.

Festa egunean goizez kanpai-hotsa izan zen Anberesen, be-reziki hiriko kanpai nagusia entzun zen, eta jendea jai handie-tan bezala bildu zen. Apaizeria, beraien ornamentuz jantzirik, Santaren estatua hartzera joan zen. Eta hasi zen prozesioa. Hi-riko korporazioek lagun egiten zioten eta Isabel Klara Eugenia Infanta bere gortearekin, estatuaren atzetik zihoan debozio handiz. Anberesko Ordena erlijiosoak, noblezia, armada eta he-rria kontaezineko laguntaldea osatuz eta Bournonvilleko dukea Santaren estatuaren aurrean, Karmengo Ordenako bandera era-manetz. Klausurako atean mojak zain zeuden ama priorea Ana San Bartolome aurretik zela, eta une horretan Santa berria go-resteko kankak eta otoitzak egin ziren. Minutu oro Anberesko gotorleku edo gazteluan kanoi-hotsa edo su artifiziak entzuten zen (horretarako Wilts elizgizon gazteak, handik laster Karmel-dar Oinuts elizgongo zenak, 1.500 libera eman zituen).

Julen Urkiza - Luis Baraiazarra

AMOREBIETA - ETXANO 1936 - 1945

Izenburu honekin kaleratu da liburu hau euskeraz eta erderaz. Proiektuaren eragilea Amorebieta - Etxano Udala. Egi-lea, Aitor Pescador Medrano. Itzulpena, Joseba Berriotxoak.

Gogoan izan behar da, gerra zibilaren garaian, Amorebieta eta Etxano udalerrri bi zirala. Bakotxa bere alkate eta guzti. Aspaldion bat eginda dagozan arren. Gerran be, Etxano, Amorebieta baino egun bat lehenago hartu eben frankistak.

Bi liburuki ditu liburuak. Lehenengoak, 339 orrialde daukoz eta Amorebietaren eta Etxanoren egoera deskribatzen dau 1931tik 1945era. Bigarren liburukiak, 307 orrialde ditu eta indarkeria jasan eben guztien zerrenda jasoten dau. Bi helburu daukoz liburuak. Bata, “Memoria historikoa” jasotea. Hau da, “Egia, Justizia eta Erreparazioa” lortzea. Eta bigarrena, historiatik ikastea, holakorik barriro gertatu ez daiten gure artean.

Honelako helburuekin egindako lanak merezi dabe argitaratzea. Gogoko izan jat beti be Santa Teresaren esana: “Egiak sufritu egiten dau baina ez da hiltzen” (La verdad padece pero no fenece).

Hona lehenengo liburukiaren zazpi kapituluaren gaiak: 1. Errepublikaren garaia (1931-1936). 2. Amorebieta eta Etxano gerra garaian. 3. Eskuindarren kontrako errepresioa. 4. Errepresio franquista (Hasierako fasea). 5. Errepresio franquista

1939tik aurrera. 6. Amorebietaren berreraikuntza. 7. Amorebietako emakumeen espetxe nagusia.

Gustura irakurri dodan liburua da hau. Liburu aberatsa, oso interesgarria. Nahiz eta gauza asko ikasi eta batzuetan barneraino sartu, nire asmoa oso mugatua da. Karmeldarra nizan ezkerro, Larreako komentuan aspaldi honetan bizi nazana, nire gogoia da, garai haretan, Amorebieta-Etxanon, egozan karmeldar batzuk jasandako errepresio bortitza aipatzea eta komentu bien suertea argitzea. Baita neure aldetik aurkitu dodazan hutsak aitatzea be. Bigarren ediziorik izaten badau liburuak, kontuan hartu dagiezan akatsak zuzentzeko.

Orokorrean, eskerrak batez be EAJ eta zerbait EAE alderdikoei, ez eben karmeldarrak, Zornotzan, eraso garratz-garratzik jaso. Euron bi etxeak be nahiko ganoraz zainduta egon ziran. Nahiz eta okupauta egon, eleizkizunak be normal ospatzen ebezan jente askok parte hartuz. Inguruetako herrietara be joaten ziran apostolutza egitera. Gauzak gustiz aldatuko dira, frankisten eskuetan jausi ondoren, 1937ko maiatzean zehar.

Larreako komentua okupatuta

Aitor Pescador Medranoren, liburu egilearen kontaketa: “Hasiera batean eta gerra hasi eta segituan, Larreako komentua eta Amorebietako Karmeldarren ikastetxea ikaslez eta apaizgaitegiz hustu ziren, sindikatu eta alderdi ezkertiarreko kideen errepresaliak gerta zitezkeen beldurrez. Tropa frankistak Arabako eta Gipuzkoako hainbat herritan sartu ostean ihesian iristen ari ziren karmeldarrentzat geratu zen komentua, baina berehala gudari nazionalistak hartu zituzten bertan, eta haiek jagon eta zaindu zituzten erakin biak” (97 orr.).

“Egia da EAJ-PNVren Itxasalde batailoia Larreako komentua izan zuela uneren batean kuartel nagusi. Bestalde, 1936ko urrian, Euzko indarra batailoia izan zen komentuko eraikina kuartel nagusi moduan erabili zuena, Akarregin borrokan ari zi-

ren bitartean. Uneren baten, Lotura eta Transmisio Erregimen-tuko kideek ere erabili zuten komentua, eraikinaren goiko aldeetatik komunikazio ona zutelako. Modu berean, EAE-ANVren Errekrutatze Atal Nagusiak aldi batez Larreako komentuan ordezkaritza bat instalatu izanari buruzko dokumentazioa ere badago. Azkenik Ariztimuño batailoia bere kuartel nagusia leku berean izan zuela ere aipatu da. 1938an emandako lekukotza baten arabera, tropa frankistak iritsi aurretik, Larreako komentua Dimatik eta Bizkaiko beste herri batzuetatik ekarritako hirurogeita hamar persona ingururentzat kartzela izan zen” (98 orr.).

Karmelo ikastetxea okupatuta

1936. irailean, Karmeloko Ikastetxea Odol Ospital bihurtzen da: “Hospitaleak hainbat egokitzapen izan zituen gerra frontea gero eta hurbilago zegoelako eta horrek kezka larria sortzen zuelako. 1937ko apirilean, Amorebieta erortzetik gertu zegoenean, ospitaleak 5 mediku, 8 praktikante, 8 erizain tituludun, titulubako 19 erizain (horietako asko borondatez aukeztu ziren herriko emakumeak, eta horregatik gerra ostean epaituak izan ziren), X izpietako espezialista bat, odontologo bat, 66 behargin eta beste laguntzaile batzuk, sukaldariak, garbitzaileak, administtrariak, etab. zituen. Ixteko denbora guxi geratzen zen arren, 1937ko apirilaren 26an, frontea hurbilegi zegoenean eta bonbardaketek benetako sarraskia eragin zezaketenean, zaurituentzako 222 ohe zeuden. Egun horretan, behargin, material eta tresna guztiak Algortako Trinitarioetara eraman zituzten” (99 orr.).

“Ikastetxearen eraikina ez zen guztiz abandonatu. Odol Ospitalearen zenbait funtzioarekin jarraitu zuen lehen sendaketak egiteko (...) Frankistek herria hartu ondoren, ikastetxearen eraikina Udalaren esku geratu zen. Berehala erabilera berriak eman zitzaizkion. Lau udal eskola, bi mutilenak eta bi neskenak eta euri egunetan azoka egon ziren (...) 1939ko abuztuan edo aldiberean beharbada, hasiera batean behintzat, lehenengo emakume presoak iristen hasi ziren Karmelo ikastetxera,

garai hartan erabat gainezka zeuden emakumeen presondegiak arintzeko. Horrela eman zion hasiera eraikinak bere historiako aro berri eta beldurgarriari” (101 orr).

Karmeldar batzuen kontrako errepresioa

Amorebieta, 1937ko maiatzaren 18an frankisten erpeetan jausi zan eta berehala hasi zan zenbait karmeldarren aurkako errepresio bildurgarria. Hurrengo egunean, 19an, inongo prozesu epaiketarik egin barik, heriotzara kondenatu ebazan Gerardo Díez de la Lastra teniente koronelak hiru karmeldar errukarri honeek: Aita Roman Urtiaga, Karmelo Ikastetxeko Nagusia eta Zuzendaria, Aita Rafael Urionagüena, Larreako Nagusia eta Aita Jose Domingo Ugartetxea, Larreako nobizioen Maisua. Hirurok Zornotzako karmeldarren bi etxeetako agintari nagusiak.

Frankistak itzelezko ikusiezina eutseen Larreako karmeldar abertzaleak ziranei. “Larreako karmeldar guztiak garbitzea” zan euren eslogana. Adierazgarria da, Durangoko Komandantzian, Aita Rafaeli, Aita Jose Domingori eta Aita Avelinori bertako Komandanteak egin eutsen alkarrizketa zatarra:

Komandanteak: –Zuek zarie Etxanotik zatozenak?

Karmeldarrak: –Bai, Jauna!

Komandanteak: –Zuek zarie Larreako praileak?

Karmeldarrak: –Bai, Jauna!

Komandanteak: –Zuek komunistak baino txarragoak zarie, anarkistak baino txarragoak,...txarrak baino txarragoak! Guri arpegira begiratzeko be ez zarie duin! Ipini zaiteze hormara begira! (Karmel 2005-4, 231 orr)

Maiatzaren 19a, Zornotzako karmeldarrentzat, zoritxarraren ikur bihurtuko da betiko. Eguerdiko hamabiak inguruan fusilatu eben Aita Roman, Larreako komentuko ortuko orma ondoan. Borreroak Oriamendi Konpainiako erreketen pikete-

koak ziran, Luis Inchaurrendieta alferrez-kapilauaren bedeinkapenaz.

Nortzuk izan ziran Aita Roman salatu ebenak?: “Dakiguna, norbaitek edo norbaitzuek salatu egin zutela ‘abertzalea zela eta ikastetxeko gazteen artean kalte handia egin zuela’. Zornotzan guztien ahotan zebilen salaterietako bat J. M. Tx de E. izan zela eta pertsona sinisgarrien ahotik entzuna dut F. O. jaunak ere jende aurrean harro esan ohi zuela, Zornotzako taberna batean, berak ere salatu zuela A. Roman” (Karmel 2005-4, 245).

Arratsaldean pikete berberak hartu zituan Aita Rafael, Aita Jose Domingo, Aita Avelino, Aita Bizente eta Anaia Eugenio eta Etxanorantz abiatu ziran. San Juango meditoaren atzealdean, Oriamendiko Konpaniako Kapitainagana, Altuna Jaunagana, eroan zituan. Honek, Teniente Koronel Lastraren egoitzara. Karmeldar errukarriak ate ondoan laga eta kapitaina sartuko da bakarrik berba egitera Teniente Koronelagaz. Handik laster urten eta Etxanoko kanposantura eroiazala Aita Rafael eta Aita Jose Domingo fusilatzer, hara non agertzen dan Bernardo Astigarraga, Begoñako basilikako parrokoa. Eskerrak beronen bitartekotasunari, bizirik urtengo dabe, baina atxilotuta geratuko dira.

Hurrengo egunean, 20an, Aita Bizente eta Anaia Eugenio izan ezik, beste hirurak (Rafael, Jose Domingo eta Avelino) Durangoko Komandantziara eroango ditue. Gorago aipatutako alkarrizketa izan ondoren, hasiko dabe kartzelatik kartzelara kurutze bide krudela. Lehenengo egotaldia, Gazteizen, bigarren Bilbon eta abar. Aita Avelino Linaza bigarren egotaldian, Bilbon, libre geratu zan. Beste sei karmeldar be, Zornotzan bizi ziranak, espetxeratuta geratuko dira. Danok epaiketaren zain. Honeen kontrako salatzailerik okerreana eta guzurtiena: Agustín de los Reyes izango da (Urkiza, J, Los Carmelitas en Larrea, 303 orr). Larrutik ordainduko dabe frankisten errepresio egarria!

1937ko uztailaren 30ean eta abuztuaren 2an eta irailaren 9an, Bilbon egindako Gerra Kontseiluetan, Tribunalak zigor ho-

neek ezarri eutsezan: Leon Aranguren Astolarentzat (Aita Leon San Eliasena) heriotza-zigorra; Domingo Aguirre Ocerinentzat (Aita Luzio Santa Teresatxorena) 8 urteko kartzela; Lino Akesolo Olivaresentzat (Aita Lino Familia Santuarena) 16 urteko kartzela; Justo Atutxa Atutxarentzat (Aita Sebastian San Justorena) 12 urte eta egun bateko kartzela; Angel Hilario Iturbe Alberdientzat (Aita Angel Karmengo Amarena) 10 urteko kartzela.

Abuztuaren 2an egindako Gerra Kontseiluan: Bixente Batiz Bilbaok (Aita Nicolas Jesusena) 16 urteko kartzela jasoko dau; Jose Sotero Urionagüena Garrok (Aita Rafael San Josearena) 16 urte eta egun bateko kartzela; Frantzisko Maria Ugartetxea Urkietak (Aita Jose Domingo Santa Teresarena) 8 urteko espetxea.

Eta irailaren 9an egindako Gerra Kontseiluan, Felipe Santiago Onaindia Basetak (Aita Santiago Gizakundearena) biziarteko kartzela-zigorra, hau da, 30 urteko kartzela. Guztiok, kurutze bide zitala Karmonan amaituko dabe. Ondoren, Karmengo Ordenaren barnean hasiko dabe euren bigarren kurutze bide larria...

Leon Urtiaga Elezbururen hilketa (Aita Roman)

Liburuaren egileak, Aitor Pescador Medranok, Leon Urtiagaren hilketaren kontaketa hasieran hau dino: “Leon Urtiagaren erailketa, Bizkaia hartzeko unean errebantxismoa nagusi izan zela erakusten duen beste adibide bat da. (...) Ez dago guztiz argi zer gertatu zen Leon Urtiagarekin. Jatorrizko iturrien edo, gutxienez, gertatukoaren balizko lekukoen kontraste egokirik egin barik, aldi berean bertsio bat baino gehiago dagoenean sortzen da arazoa” (166 orri).

Lau bertsio aipatzen ditu. Bata, Antonio Unzuetarena. Besteak, L. M. Jimenez de Aberasturina. Hirugarrena, Hugh Thomasena eta laugarrena J. M. Mora Vaquerizona. Lau honetatik, “Iturri fidegarriena Nafarroako Karmeldar Oinutsen webgunean testu bat duen Antonio Unzueta da” dino Aitor Pescado-

rrek eta bere liburuan testu horren laburpena dakar. Hobeto egingo eukean, testua hain luzea ez denez, osorik kopiatu baleu. Argiako geratuko zan kontakizuna.

Nik neuk onartzen dot Antonio Unzueta-ren bertsioa. Ur garbi-garbia erion iturritik edaten daualako. Iturri hori Jose Sotero Urionagüena Garrok (Aita Rafael) berberak idatzitako hiru koadernoak dira: “Relato histórico del Convento de Larrea y de las Andanzas del P. Prior durante la Guerra Civil de España, 1936-1940”. Lehen mailako dokumentu interesgarria. Benetako protagonista eta testigu aparteko batena. 144 orrialde ditu. Markinako Karmengo artxiboan gordetzen da. Aita Luis Baraiazarrak euskeratuta daukagu: “Larreako Komentuarien eta bertako Priorearen ibileren kontatera historikoa Espainiako gerra zibilean” izenez.

Gerra Zibilaren 70. urteurrenean, osorik argitaratu zan Karmel aldizkarian, (Karmel 2005-4, 109 - 253). Testu hori fotokopiatuta, ezker aldeko orrialdean testu originala, eta eskumaldean, Luis Baraiazarrak egindako itzulpena dakar. Dokumentu hau ezagutzen eban Unzuetak, Karmeldarren webgunean dakarren testua idatzi baino lehenago. Beste horrenbeste gertatu jakon Julen Urkizak idatzitako “Los Carmelitas en Larrea” liburuagaz be (Ediciones El Carmen, 2012, 257-316). Kasu honetan ziur, berak idazten dauanez, aipatutako testuan Karmeldar Oinutsen webgunean.

Beste hau be esaten dau Julen Urkizak: “Aita Rafaellek Aita Romanen hilketa kontatzen du bere koadernoetan, baina ez hori bakarrik, hilketa horren testigantzak jasotzen eta hori nola izan zen zehatz-mehatz arakatzen saiatu zen (batez ere bertan izan zen sarjentuaren testigantza), eta hainbat paper interesgarri bildu ahal izan zituen, Markinako Karmeldarren artxiboan daudenak” (Karmel 2005-4, 16-17 orr.).

Arritzekoa da Aitor Pescador Medranok aurtien 2022. urtean argitaratu dauan “Amorebieta-Etxano 1936-1945” deritxon li-

buruan hau esatea: “ez dago guztiz argi zer gertatu zen Leon Urtiagarekin”...

Iturri garbiena eta fidagarriena Aita Rafaelena da. Gainera, liburuan datorren bibliografian be agertzen da Julen Urkizaren “Los Carmelitas en Larrea. Tres siglos de vida e historia (1712-2012)” liburuaren aipamena. Ulertezina da, 2022an argitaratutako liburu barri baten, Aita Rafaelen eta Julen Urkizaren dokumentuak kontuan ez hartzea...

Larreako karmeldarrei dagokienez, behintzat, baditu Pescador Medranoren liburuak beste akats bat baino gehiago be. Baliteke kasu askotan errua sortzea aurreko bi dokumentuak ez jakinagaitik izatea edo. Beste batzuk nabariak dira. Adibidez, pertsona berbera, bi pertsona bezala agertzea. Batean, SOTERO URIONAGÜENA, José (aita Rafael) bezala. Eta bestean, URIONAGÜENA GARRO, José, bezala. Lehenengo kasuan hau dino: “Amorebietako komentuko priorea zen. 1937ko uztailaren 30ean egindako Kontseiluan (1937ko 250 zenbakiko Premiazko Sumarisimoa) 16 urte eta egun bat bateko zigorra ezarri zioten matxinadari laguntzeagatik. Akusazioaren txostenak hau zioen, hitzez hitz: “de filiación nacionalista vasco, aunque no propagandista de sus ideas, suministró a los jefes del batallón rojo Rosa Luxemburgo un escrito por él firmado haciendo constar su agradecimiento a los jefes y oficiales de dicho batallón con motivo del buen trato que de ellos dijo había recibido, cuyo documento sirvió de base a una propaganda de gran intensidad favorable a los rojo-separatistas” (173 or.). Bigarren kasuan beste hau dino: “Ziortzakoa zen eta Etxanon bizi zen Karmeldarren kometuan, 47 urte zituen, 1937ko abuztuaren 2an egindako Gerra Kontseiluan (1937ko 250 zenbakiko Premiazko Sumarismoa) alde baterako, 16 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, matxinada piztea egotzita. Bilboko Espetxe Probintzialean sartu eta Langraiz Okako Espetxe Zentralera eraman zuten 1938ko apirilaren 13an. 1943ko otsailaren 22an utzi zuten aske” (173 or.).

Nahiz eta kasu biotan edukia nahiko ezbardina izan, kasu biotan, pertsona berbera da. Bere izena: JOSE SOTERO URIONA-GÜENA GARRO (Aita Rafael).

Beste huts bat: ITURRI/ITURBIDE ALBERDI, Angel, barik, ITURBE ALBERDI, Angel Hilario, (Aita Angel) da (172 or.).

AITA LEON ARANGURENEN bigarren abizena ASTOLA da, ez ARTOLA.

LEGARRA MAGUREGUI, Eugenio (Aita Bautista) ez zan egon gerratean Larrean, Markinako komentuan baino.

Ez ditu bereizten garbi Larreako karmeldarren hiru etxe honeek: Komentua, Larreako Palazioa eta Etxegorri. Hiru erai-kin desberdin, baina priore berberaren agindupekoak dira. Hirurok egon ziran okupatuta gerran, bakotxa bere egitekoaz. Palazioa izan zan erre ebena eta ez Komentua ez Etxegorri. Eta abar eta abar.

Hutsak huts, merezi izan dau eta eskertzekoa da “AMOREBIETA-ETXANO 1936-1945” liburua argitaratzea. Hori bai!, hurrengo argitaraldian, han eta hemen, daukazan hutsak zuzenduta.

Lantxo hau amaitzean, bururatu jat, liburu honek dakarren Lauxetaren olerki hunkigarriaren azkenengo bi estrofa zirrargarriak gogoratzea:

Ikaraz duaz usuak,
mendija dago ixillean.
Hamar gazteren lerdena
bixitza barik lurrean.

Eta illuntzeko bakian
Norbaitek darrai kantari:
“Dana emon biar yako
maite dan askatasunari”!

A. Olea

ASKATASUNAZ HAINBAT KOMENTARIO

San Oscar Romerori dedikatua

1.- Etorkizuna indeterminatua da. Zientzia egiterakoan, gauza materialak definitzen eta deskribatzearen ostean, ondorioztatzen ditugun kausa efektoak teoriak dira, hau da, kontenplazioak, eta filosofia naturalean gaudela non dena igarotzea den egi egiazko unibertsal bihurtzerik ez dugu ahal, nonbait han kausa efekto horiek partikularidade esistentzialak dira, ez lege unibertsalak, gehienik jota regularidadeak, indukzio perfekturik ezin egin daiteke lege horiekin, regularidade inperfektoak dira, relazioak. Eta hortik dator ondorioztatzea kosmos materialean etorkizuna, batez ere epe oso luzerako begirakoa, indeterminatua dela.

Beste gauza da logika formalean aritzea (formalizatzea abstrazioa egitea delakotz filosofía klasikoan, formak, unibertsalak, separatzea ere, eta gelditzea) unibertsal bihurtzea (baina ni ez nabil unibertsal klase horrekin). Formalizatzean suposatzen dugulako forma hori, unibertsal bat dela, geldia dela, ez dela eboluzionatzen, aldatzen, denboran zehar. Manualetan ariketak egoten dira, eta arazoa pixka bat aztertuta nik afirmatuko nuke ezen hortik, ariketa horietatik, ateratako unibertsalak axiomatikoak edo holako zerbait direla, horregatik afirmatzen ahal da kosmos honetaz, holako unibertsalak ezagututa ere, ez dugula materiaren ezagutza unibertsalik, a priori (esperientziatik at) ez dakigula. Formalizatuz soilik egiten ahal

da zientzia, zeina beti baita gaindigarria. Eta egiazki ezagutuko bagenu ez litzateke gaindigarria izango gure ezagutza zientifikoa. Eta ez nago zientzien progresoren kontra. Baina progresoa hori da, diot nik.

Mundu honetan oker ezagutzen dugula san Paulok ere erran zuen. Ezagutza unibertsala geldia baita, hau da, ez da mundu, kosmos, honetakoa. Baina ezin erran daiteke zientziarik ez dagoela, progresorik ez dagoela. Hori errateko itsu sakona izan behar da. Edo zientziaren historia, igarotzea, ez ezagutzea. Unibertsalak badaudelako (formak) eta hortik zientzia egin ahal izatea, zientzia enpirikoa, baina zientzia hori eboluzioaren mende da, nonbait han zientziaren historia espikatzen ahal dugu indukzio matematikoaz. Beti egin daitekeelako hobeto (beti dago numero bat gehiago).

2.- Hala ere, eta hori jakinik, badira izan deterministak. Horiek, miretsiak zientzien aurrerapenekin, kontsideratzen dute fenomeno materialak baldin badaude ikertu gabeak teorizatuz gero gure ulermenean sartzen ahal direla erraz, eta hori infinituraino zabalduz iristen dira pentsatzera ezen dena dela arrazionala (Hegel), naturaren legea mende dagoena. Hegelian ezkerrekoen artean ere, marxismoan, badaude deterministak, eta historia ikasten dute determinatua dena. Beti hobetze aldera, ilustrazioan teorizatzen zen bezala, nahiz eta Lisboako lurrikarak aldatu ilustratu askoren teoriak, eta filosofiak.

Egiari hur eman nahi izanez gero, erran behar da badaudelako marxistak determinista ez direnak, eta horiek dira niretzat marxistetan interesanteenak, ikuspuntu politiko batetik, aske garala diotenak. Hor ikasten dut nik gizarteak klasifikatzen ekonomiaren zientzia ardatz hartuta, eta ikaragarri emankorra izan daiteke metodo hori, batez ere soziologian, baita politikan ere. Egiaren haziak badaudelako hor, niretzat jakina. Arrazoi sendoak, eta filosofia ezaguna da marxismoa eta errorea da tabu bihurtzea hori. Izan ere, niretzat marxis-

moak soilik balio du política praktikoa, asko erakusten baitu kausa ekonomikoez gizartean, politikan. Izan ere ekonomia da kausarik inportanteena, ez bakarra baina kausetan inportanteena, historia ulertzeko. Eta faltsua da hori gezurtatzen duena. Eta hemen gizonari, autoritateari, beldurra galtzen diot eta Jainkoari beldurra edukitzen diot, marxismotik egiak topatuz eta aurkituz. Ez naiz honetan manikeo, eta eskandalizatu egiten naiz eskumako katolikoekin. Baina separatzera iristeke (gauden bat), jakina, diskutitu egiten diet duten karitate faltsua. Ni tabuak apurtzearen aldekoa naiz ongiaren alde, eta Elizaren etsaia den marxismoan egiaren haziak ikasten ditut, marxista izandakoa naiz, orain baina ez, hain zuzen ere, batez ere, katolikoek kontrako etsaitasun horregatik. Nik marxismoan historia humanoaren jakintzan ikasten nuen batez ere. Konprenitzea bilatzen nuen. Egia bilatzen nuen ateo nintzelarik.

Nik, neure aldetik, baldintza bat jarriko nieke marxistei katoliko laiko antifaxisten begi ona ikas dezaten, batez ere hirugarren munduan non egoerak eskandalosuak izaten diren, eta askatasun erlijiosoa aldarrikatzen diet, eta baita ez izatea antiklerikalak ere, antikatolikoak batez ere. Osteangoan, katoliko ezkerrekoen aldetik, ikertzen ahal den bide bat izan daiteke eta da sozialismoarena. Irakurketa interesantea baita marxistena, ezkerrekoena, gehiago barik; hau da, “marxismora konbertitu” gabe, bistan dago (gu sobrenaturalistak gara). Eta molde diferenteak daude politikan guk tresna bezala erabili ditzagun politika marxistak, batez ere herrialde pobreenetan. Ezkerreko politikak maiz errukizko egintzak dira, eta hori jakinekoea da, ignoratzen bada ere Elizako hierarkian. Eta “jestu guttiz” praktikatzen dituzte errukizko egintzak, batez ere iraultzetan delarik. Iparraldean erabiltzen da hori, hala nola “Herria” astekarian. “Jestu guttiz”, guillotina aplikatzerakoan, adibidez. Eta gero euren nortasunean naturalizatu, hitz eder konbertitua Frantziapean.

Txinaren adibidea hor dugu. Zuek uste duzue Aitak ez duela hori, historia hori, aintzat hartzen? (alde bat lagata zer erran duten eta zer egin duten begiratzuz, Jesusek parabola batean zioen moduan). Tabuak apurtu behar dira, ez da manikeo izan behar. Eta manikeoen moduan ibili ginen gerra hotean, eta oraindik ere hala gabiltza. Errepikatzen dut, ez ditezela antikatolikoak izan. Jesusek ez du permitituko bere Eliza desagartzea, halaxe erran zuen. Eta ni pixka bat ausarta izan naiz, atrebitu naiz esatera, Jesus izanik nire Jauna beti, hierarkia kontserbadorea ezin ikusi duena. Tabua ere dena.

Behin deitu zidaten telefonoz eta karitate erakunde bat zen (charity organisations, Bob Dylan kristautasun katolikora konbertituak aieneka kantatzen duen moduan), eta hainbeste ziren kasu estremoak, hunkigarriak, gero eta gehiago direla iruditu zitzaidan hari entzunez, nire burua saturatzeraino, eta nik erran nion ezen erabakia nuela limosna bat eman beharrean (eta limosneroa naiz) politikatik erantzutea, eta ezkerreko partidu politikoeekin pentsatzen nuen, Estalinekin ere, jatorri pobreakoa (goian bego), eta oso gustura geratu nintzen. Erantzun egokia iruditu zitzaidan, jatorri etikoko erantzuna, ondo uler bekik. Eta nik ez dut, ezkerreko jendeak egiten duen moduan, karitatea (amultsutasuna) eta justiziazko politika, eta miserikordiazko politika, kontrajartzen, elkarren osagarri egiten ditut, eta hor, niretzat, oso emankorragoa da bidea. Nirekin zerbait nahi badute, antikatolikotasuna alde batera utzi behar dute, arestian erran dudana moduan. Hau da, filosofia lehena errespetatu, metafisika ere deitua (batez ere erlijiosuek teorizatua, gure ikuspuntua unibertsoa ezagutzeko eta ulertzeko). Eta Moisesen historia ikasi, iraultza bat izan zena Jainko biziak zuzendua, Bere ahal sobrenaturala erakutsiz, bere garaiko tiraniarik boteretsuenaren kontra. Jainko bizia. Beti ez dira garaiak Moisesenak bezalakoak, baina gure Aitak argi laga zuen ez zegoela tiranoekin. Eta marxista izan gabe (ni sobrenaturalista naiz) tresna politikoa izan daiteke ezkerreko teoriza-

zioaren bat eskandalu batzuekin errotik amaitzeko. Aplikatu moral katolikoa politikazko zientzia praktikoari, laiko politikoek. Jestu guttiz ere.

Eta jakin dadila badaudela katoliko laikoak, manikeo ez direnak, eskandaluen aurrean, Estalinekin ere gogoratzen direnak. Faxismoa garaitu zuenarekin. Eta arrazoa dute gerra hotsa pasatua delako. Eta antierlijiotasuna ere pasatu da ofizialki. Beti eduki arren kontrarioak, etsaiak. Baina marxismoaren urte arrakastatsuenaren momentua pasatua da, baita faszismoarena ere, orain moderatuagoak dira, sozialdemokratek marxismoa ere utzi dute. Tresna bihurtua da teoria marxista, irakurketa interesantea.

2.- Psikologian ere badaude konduktistak, zeintzuek deterministak diren. Nik psikiatra psikoanalista izan nahi nuen, eta karreran psikologiazko liburuak irakurtzen nituen asko, eta eskuan eduki nuen “mas alla de la libertad y la dignidad” Skinnerren liburua. Eta halako muturretara iritsi direla ikasia nago. Eta beldurrik gabe baieztatzen dut Skinner zientifista konduktista famatuak absurdoan erreduzitu duela bere teoria konduktista. Inork nahi ez duen bidera eroan duela, hitz gutxitan erranda.

3.- Azken batean, kreazioa ez zen ona izango askatasunik gabe, grazia-rik ez zuen izango. Hori begien bistan dago, eta hori da nire ondorioa, hots, kreazioa ona dela. Madarikatu asko egon arren, eta a priori ez diren arren madarikatu horiek. Uler bekit.

4.- Eta nonbait han askatasuna zehazterakoan non edo nortzuengan gertatzen den, hor dugu principium individuationis delakoa, eta pertsonalismo modernoagoa, non afirmatzen den denok garena pertsonak, bakoitza bere nortasun propioarekin (principium individuationis), eta hori da, hain zuzen ere, Aitaren poza eta buruko mina (Fatiman esandakoa gogoratu).

5.- Eta amultsutasunaz ere erranen nuke ezen maitagarriak diren pertsona guztiak, eta soilik Jainkoa dela adorablea. Hanka sartze handia izango litzateke hor erratzea, bistan dago.

Hau laburpen bat da, hemen daude legea eta profetak, nire modura erranda, errezago gogoratzeko: Jainkoa, pertsona dibinoa, adorablea da eta gainerako gizakiak maitagarriak. Eguneroko bizitzan aplikatzen ahal da oso erraz, edukazio kontua daiteke, eguneroko bizitzan. Libre gara hori betetzeko edo ez. Eta ez badigute lagatzen beste aldera begiratzea dugu. Sufrituta, batez ere marjinatuak bagara.

6.- Teorizazio muturrekoak baino ondoen ulertzen dutenak txikiak omen dira (Jesusek erran zuen hori), eta horiek ondo ulertuko didate erraten badut libre dela kartzelan ez dagoena. Esklaboa, oster, ez da libre.

7.- Baina harro, pozik, ere banago filosofía kristau oso bat eraikitzen ari naizelako. Espero dut harrizko lur baten gainean izango dela. Eta nire etsaiek ezin izango dutela bota. Eta dena hasi zen pentsio konpletua eman zidatelako, gurasoekin tokatzen zitzaidan bizi izatea, eta UNEDen filosofiako karreran apuntatu nintzelako Bergaran. Nire filosofia dida batean dibujatu nuen, zatarkeria batzuk kendu behar ziren, besterik ez (txarrena materialismo eszeptikoa). Eta jada nire lehen liburuko lehen kapituluetan nire filosofía kristaua formatu zen. Katekesietan ematen den mundu ikuskera, besterik ez da. Teorizatua, arrazoitua. Doktrina kristaua. Eta nik neure burua eskolastikoa ikusten dut, eta hor integratzen ditut neure teori-zazioak. Beste filosofo katolikoekin bat eginda. Hori nahi dut behintzat.

Roman Garmendia

KONTU-KONTARI

MUSKILDIKO SIMONE VEIL PASTORALA

Aurtengo pastorala, Muskildiko herritarrek jokatu dute arrakasta handiz. Osora hiru saio egin dituzte: uztailaren 24an, igandearekin, uztailaren 31n, igandearekin eta agorrilaren 6an, larunbatearekin. Eta hiruetan harmailak jendez lepo egon dira. Ni lehenengora joan nintzen, eta nire kronika horren karira kontatuko dizuet.



1. Muskildi Xiberoko euskal kulturari atxikirik

Muskildi herriak indarrez atxikitzen die euskara eta xibero-rotar kulturari. 1985ean *Allande Oibenart* pastoralara jokatu zuten, 1986ean maskaradak, 1991ean *Harizpe* pastoralara, 1992an *Allande Oibenart Bizi Ûrrats* izeneko ikusgarria, 1996ean maskaradak, 2001-2202an *Herria Oboretan* ikusgarria, 2016an *Dantzariak* ikusgarria, 2017an *Hur Xenda* ikusgarria, 2018an maskaradak, eta orain, 2022an, *Simone Veil* pastoralara.

Herri bizi eta euskalduna dugu Muskildi, horrela izaten jarraitu nahi duena, eta aurtengo pastoralara, urrats aberatsa izan da muskildiarren ibilbide emankorreen.

2. Simone Veil pertsonaiaren nondik norakoak

Simone Annie Jacob (hala zen sortzez, Veil senarraren abizena da) 1927ko uztailaren 13an sortu zen Frantziako Niza hirian, eta familia judu baten alaba zen. Hamasei urte zituela, naziek heriotza eremuetara eramane zuten familia osoarekin batera, baina aliatuen etorrerarekin, holokaustotik bizirik atera ahal izan zen.

Gerora abokatua eta politikaria izan zen. 1974an osasun ministro izendatu zuten. 1975eko urtarrilaren 17an *Veil legea* deitu izan zena indarrean ezarri zuten, modu horretan abortua legeztatu zutelarik. 1979tik 1982ra Europako Parlamentuko lehen emakume lehendakaria izan zen. Geroztik gizarte gaietarako estatu ministroa izan zen, osasun eta hiriko ministroa..., eta Edouard Balladur-en gobernuko bigarrena. 1998 eta 2007 bitartean, Kontseilu Konstituzionalean eserlekua ukan zuen, hau da, Frantziako agintaririk garrantzitsuenen artean ibili zen beti. Europako integrazio-prozesuaren jarraitzaile sutsua izan zen, eta bakea bermatzeko bideak zabaltzen ahalegindu zen. 2008ko azaroaren 20an, Frantses Akademiako kide izendatu zuten eta 2012an Ohorezko Legioko gurutzea jaso zuen.

2018ko uztailaren 17an, senarrarekin batera, Pariseko Panteoian ehortzi zuten. Emmanuel Macrom presidenteak irakurri zuen haren aldeko agiria.



*Sophie Larrandabürü, Battitte Berrogain
eta Maite Davant*



Maite Davant errejentarekin



Artzainak eta artaldeak goizeko karrika-üingürian

3. Simone Veil pastoralaren egitura eta ezaugarriak

Pastoral honen egilea Battitte Berrogain dugu, eta haxe da idatzi eta jokatu dioten lehen pastoralara, baina izan duen arrakasta ikusirik, ez dut uste azkena izanen denik. Denborak erranen. Errejenta Maite Davant euskaltzale ezaguna izan da, eta erran behar dugu bera izan dela Xiberoko pastoraletan lehen emakume errejenta. Xiberotik kanpo, badugu beste xiberotartsa bat, hainbat pastoraletan errejenta lanetan ibili dena: Pantxika Ürrüti.

Kantuen moldatzaile eta zuzentzailea Sophie Larrandabürü izan da, dantza asmatzaile eta dantzari trebatzaileak, berriz, Iban Etxegoinberri eta Rémy Mugordoi. Arropa arduradunak: Sonia Bassano eta Josette Boscq. Simone Veil-en papera hartuta, Aizpea Claverie-Chimix (haur denborak) eta Maialen Urrutiager (heldu denborak) izan dira süjeta. Peio Jauregik, berriz, senarraren papera jokatu du.

Pastorala lehen prediküaz, 25 jelkaldiz eta azken prediküaz osatua da, eta tartean 10 bat kantu edo kantore eder izan dira. Horretaz gain, satan dantzak eta bestelako dantza saioak. Oso ikusgarri ederra, zinez, aurten muskildiarrek eskaini digutena. Biba zuek!



4. Pastoralaren aipamen zenbait

Hirugarren jelkaldian naziak 1943an Nizan sartu zireneko historia dakarkigute gogora. Publikoak aurkako oihuz hartu zituen oholtzara soldadu naziz jantzita igo ziren arizaleak. Ikus dezagun nazien arteko hizketa gogorra:

Alois Brunner: *Hallo, ballo!!! Ene lagunak / Autrixiako seme ederrak / Nizak ere beharko düti jüdioz legarrak.* // Franz Novak: *Drancyn zerragia antolatüirik / dütiügü treinak gain-tika / gizon, emazte eta haurrez / bantik partiarazten milaka.* // Helmut Knoehn: *Bazka ditzagün aitzina / Niza zorritz da fundi / eskualde honen xabatzea / egin beharra da aspaldian.* // Rolf Günther: *Aski filosofatüirik / bar makila бүрүtik / aztal botarekila jo / bota jüdioak hebentik.* // Ernst Kaltenbrunner: *Raus egin ere buhameer! / raus eritarzün karreazaleer! / raus gizadi pozuazaleer! / raus gure zikintzaleer!*

1944ko apirilean, iritsi ziren Auschwitz-Birkenaura Simone, Ivonne ama eta Milou ahizpa 71. konboian. 5. jelkaldiko kantonarearen lehen koblan honela kontatzen digu Battitte Berrogainek:

*Traka taka tonka treinak, alüzinazio burrunba.
Traka, treinareen junpaka, doloretsü ziren banbak.
Taula artetarik ageri, egünaz argi txirrinta.
Traka taka tonka treinak, gaiüz, üdüri züan tonba.*

Eta 8. jelkaldian, *Arima gabeko korpitzak* izeneko kantonarearen errepikan honako azalpen gogorra ematen digu Berrogainek heriotza eremu hartan preso zirenei buruz:

*Arima gabeko korpitzak, ezür meta ebiltari,
itzal xuritarzünean, hirodüra elürrari,
zola-zolako gizaki, jentetrzünez hüstürrik,
zoaza ezdeüs herroka, heriotzaren hazkürri.*

1944ko uztaillean, sovietarrak Auschwitzera hurbiltzen ari zirela-eta, naziak hainbat eta hainbat preso, Simone eta bere familia tartean, 70 kilometrotara zegoen Bergen-Belseneko kontzentrazio esparrura bidali zituzten. 1945eko apirilaren 15ean, soldadu ingelesak Bergen-Belseneko heriotza esparruan sartu ziren eta Simone eta gainerakoak libratu zituzten. Hori kontatzen zaigu 9. jelkaldian. Aipatu beharra dago, 5. jelkalitik 9. era, hau da, holokaustoaren gaia jorratzen den bitartean, ohiko ate gorri, zuri eta urdinak, oihal beltzez estalirik izan dituztela.

Hortik aitzina, Simone Veilek politikan egin pausoak kontatzen zaizkigu, Veil legea, abortuaren legeztatzea eta abar... harmailetan ziren emakumeek indar handiz txalotu zituztenak. Publikoak atsegin handiz entzun eta jarraitu zituen horrelako azalpenak.

22. jelkaldiaren bukaeran ohiko artzainak eta artaldea igo ziren oholtzara, astoa eta guzti. Kantorearen lehen koblan, honela dio Berrogainek:

*Argi dirade bortü gaineak, zelüa zobardixka denean,
azkorriak gaiü ülünari, goraintzi igorten deiolarikan,
bantxek negüko azken elürrak, üdüri margo oibal bat lanetan,
Jinko xabarren axolbean, beben txoriak ari dira kantari.*

Eta 25. jelkaldiaren ondotik, azken prediküa eta azken kantorea, *Libertatearen bila* izenekoa, Alain Etxeberrik egina. Errepikan honela zioen:

*Altxa gitean! Oldar gitean injüstiziaren kontre!
Iratzar gitean! Mintza gitean libertatearen alde!
Erran dezagün EZ! Oibüka EZ! Gizartearen kontre direner!
Erran dezagün EZ! Oibüka EZ! Jenteer kalte egiten düener!*



Artzainak eta artaldea oboltza gainean

5. Bukaeraren tenorea

Eta horrela bat bestearen gibeletik jokatu zituzten 25 jelkal-diak, 40 gradutik gertu zegoen bero sapa baten azpian. Merezi-mendu handia arizaleena, baita publikoarena ere. Hamabost bat pertsona inguru ikusi nituen eguzki kolpeaz erortzen. Horrelakorik ez dut inoiz ikusi. Azken kantorearen ondoren, ohiko eskerrak eman zituzten eta gero antzeren ordua izan zen. Batez

ere, Urdiñarbe eta Pettarra aritu ziren norgehiagoka antzerak irabazi nahian, eta azkenean Pettarrak bereganatu zuen, 2100 euroren truke, oholtza gainean moneinak eta aintzina-pika dantzatzeko eskubidea. Amaiera ederra pastoral bikain batentzat.



Satan dantza



Pettarrako herritarrak moneinak dantzatzen

Joseba Aurkenereña Barandiaran

MAMAITA

Hola, mamaita!

Zer moduz dago berori?

Barkatuko dit aspaldian idatzi ez izana, baina gogo handirik gabe ibili naiz azken aldian. Gainera, orain gutxi arte izan dudana zelda lagunak gurean idazten ez zekien.

Pasillo berrira ekarri eta banaka jarri gaituzte zeldetan. Berritua dirudi, pintura usaina hartu dut helduaz batera.

Lagunak egitea oso zaila egiten da hemen, mamaita, bakoitza gure mundutik gatoz eta desberdinak gara. Gainera, ezagunak egiten hasitakoan, lekuz aldatzen gaituzte. Denbora gure kontra dagoela iruditzen zait, eta bakarrik egoteko gogo gehiago sentitzen dut. Chicano bat eta beltz bat elkarren lagun egitea ez da ohizkoa, baina Lewis desberdina da, mamaita, zintzoa, pertsona ona da, *está chido*, eta beltzegia delako omen dago pasiluan, hala dio berak. *No manches!*

Presidente berria aukeratzekotan dabiltzan honetan, gauzak zeozker aldatuko zirela esan zuten, baina azken hilabetean hiru aldiz itzali dira argi guztiak, hiru aldiz heldu da *Old Sparky* -aren ordua.

Zenbat oroitu naizen berorretaz, mamaita. Ausarta agertu nahi nuke berorren aurrean, baina hori beldurra ezkutatzea besterik ez litzateke, eta nik beldurra dut. Gauero errezatzen diot apalean daukadan Guadalupeko Gure Amari, berorren alde eskatzeko, gure alde eskatzeko.

Atsedon-gunerako, hala deitzen diote, binaka jartzen gaituzte. Lewis lagun berria ari zait gutun hau idazten. Nik esan, berak paperan ipini. Letra ederra du, ikusten duzun modura. Hizkuntzak dakizki, ez da edonor. Nik ez nuen asko ikasi, mamaita, lan egin beharra zegoen, baina eskolan asko ibilitakoa da Lewis. Ez dut ulertzen zergatik dagoen hemen eta ez du esaten. Asko daki eta asko erakutsi dit Lewisek. Benetan pentsatzen ere erakutsi dit texano beltz honek. Nasan preso dauden arrainak hausnartzen hasten direla dio Lewisek, hala esaten omen dute Afrikan. Eta ikasi dut lana eman zigun nekazari zuriak eguraldiari diola benetako beldurra, ez legeari, eta gosea izurrite amaiezina dela. Porlanezko edo altzairuzko muga bat zeharkatu arren, minagandik babestuko gaituen muga zeharkatzea ezinezkoa zaigula dio Lewisek, mamaita, oso urrun dagoela gugandik. Asko kostatzen zait, batzuetan, bere hitzak ulertzea.

Korridore honetako zeldetan denbora asko dago pentsatzeko. Lau bider bi eta erdi, horixe du nire txokoak. Litera bat, zementuzko mahaia, apalak eta komun txikiko bat. Gustura dago Lewis orain, funtzionarioari esan beharrekoak esan zizkiolako. *La perrera*n eduki dute hilabetea; *el infierno* eta *el hueco* ere deitzen diote bakarrik uzten zaituzten zigor-gelaxtoari. Nire gelak ez dauka leihorik, baina oroitzeko, amesteko, errezatzeko eta egunak zenbatzeko leku gehiagorik ez dut behar. Zuetaz gogoratzean, negar egiteko ere txoko polita da. Alokairua eta jatekoa *de a grapa*, ordainduta dauzkagu, mamaita.

Beldurra ezjakintasunetik datorrela dio Lewisek, eta nik ez dakit zer datorkidan. Hotzikara igotzen zait bizkar-hezurrean gora. *Estoy agüitado*.

Bat-batean argia joan egiten da, mamaita, bederatzi segundo amaiezin, kartzela ilunpean. Transformadoreen ziztua besterik ez da entzuten. Bonbilak pizten direnean hartzen dut ar-

nasa, baina eztarriak lehor jarraitzen du eta ezin izaten dut hizik esan.

Azken astean bi aldiz eman dizkigute frijoleak, mamaita, eta hiru aldiz dutxatu naiz. Zortzietan eta lauretan aldatzen dira funtzionarioak. Gauekoak oraindik ez ditut ondo ezagutzen. Egun hauetan ezin izan dugu tailerrera joan.

Oraingoz, azken gutuna izango delakoan nago, baina ez negarrik egin, mamaita. Lewis abokatuarekin batzen da egunotan. Zurrumurrak entzun ditugu, presidente berria aukeratu behar omen dute. Lewisek dio bere txanda laster helduko dela, agian kanpainarako erabiliko dutela. Nik ez dakit zergatik esaten duen hori, sekula ez baitugu aldaketarik nabaritu kartzelako zuzendaria aldatu dutenean ere. Baina berak asko daki.

Joan zen ilean belarrietatik kea botaz eta ilea erreta geratu omen zen beltz bat. Funtzionarioak ez zuen kasko barnealdea busti. Hirugarrengoan hil omen zen. Gizon ausarta beldurrari beldur diona omen da, hala dio Lewisek, baina niri hankek dardara egiten didate ilunpean. Lewisek nahiago du indizioa, mamaita.

Inor haserretzerik ez nuke nahi, eta Lewis joaten bada eta idazten dakien beste norbait lagun egin bitartean zeozer gertatuko balitzait ere, banatu bitza zeldako gauza apur hauek: Guadalupeko Ama Birjinaren irudia eta domina berorrentzat nahi ditut, mamaita. Tailerrean egin nuen egurrezko kutxatxo Martaren alaba txikiarentzat izan bedi. Denbora pasarako dauzkadan dado hauek Matiasi eman biezazkio, ea aberasten den behingoan. Irratia berorrentzako, mamaita, munduan zer gertatzen den jakin dezan. Paretan itsatsita dauzkadan argazkiak banatu bitza nahi dituenaren artean, baina umea nintzela berorrek in agertzen naizenekoa gorde beza berorrek bihotzaren ondoan, mamaita.

Lewisek esan ohi duen modura, nire ipurdi beltzarana musukatu bezate *pendejo* zuriek eta beltzaran-xuriek. *No mames*. Mereziko lukeen beste gauzarik ez daukat hemen, mamaita.

Musu handi bat bidaltzen diot berorri; baita Marta, Matias eta alabatxoari. Erreza biezaio Guadalupeko Gure Amari. Nik ere beldurrari eduki nahi nioke beldur, baina muga hori urruti dago nigandik. Maite dut, mamaita, oroit bedi nitaz ni beroretaz oroitzen naizen bezala. Hasta pronto, mamaita.

Cuauhtémoc Juárez

32-258-426-771-C

Fort Worth

TEXAS

Post-data: Matias *chavo* adiskidea, ¿qué pedo? Gutun hau jasotakoan, eraman ezazu mamaita zenaren hilobira eta irakurri ondo ulertzeko moduan. Lora batzuk ere eramango bazenizkio, *Michelada* bat esker oneko.

Joxemari Urteaga

**2022KO KARMEL ALDIZKARIAREN URTEROKO
BATZARRA ETA OTURUNTZA
MARKINA GAINEAN *BETI ALAI!***

Iragan buruila-ren 18an larunbata eguerdian genuen hitzordua karmeldarrekin urtean lautan ateratzen duten KARMEL aldizkariko kolaboratzaileok eta idazleok. Bi urte luzeko pandemiaren ondoren, egun eguzkitsua atera zen udazkenaren ataritan, eta denborarekin iritsi ginen Irundik Markinara Joseba Aurkenerena eta biok. Alde zaharreko ostatu xarmant batean zintzur bustitzea egitea bururatu zaigu Getariako txakolinaz. Ondoren, herriko plazaren aldamenean dagoen komentuaren aurrean elkartu gara gainerako KARMELzaleekin.

Denok elkarrekin komentuaren barnera sartu gara, eta udazkeneko aldizkaria eskuratu dugu.

Julen Urkizak urteko batzarrari hasiera eman dio, eta udazkeneko KARMEL berrian zein literatur testu aurki dezakegun kontatzen hasi zaigu Julen ohorezko euskaltzaina. Ondoren, bere iloba Ana Urkizak hitzalditxo bat eman zuen, eta gero Luis Baraiazarrak azken aldizkarian irakur dezakeguna azaldu digu.

Batzar formalaren ondoren, bakoitzak adorez 3000 euskaragaztelania hiztegi praktikoa hartu genuen, eta kulturaz eta jakituri-az poltsa kargaturik, Iturretan gora abiatu gara autoetan, eguzkia lagun. Markinatik kilometro batzuk gora, azkenean iritsi gara bazkaltzeko tokira, non ermita bat dagoen. Hantxe itxaroten gintuzten Markinako karmeldarren sukaldari eta zerbitzari-ek. Bapo jan ondoren, erretserbako ardo onez

bustirik, kantuz hasi gara Pilare Baraiazarrak prestatutako bertso-sorta, eta ondoren *Txoria* *txori* kantua abestu dugu.

Karmel aldizkarian parte hartzen zuen Joxanton Artzez oroitu da Juan Mari Arrizabalaga, eta hunkiturik kontatu digu *Hegoak ebaki banizkio* kantuari buruz galdetu ziola Joxantoni hil aurretik azken Karmeldarren bazkarian, 2017an. Artzek esan zien jadanik kantua ez zela berea, herriarena baizik, baina berak olerki hari beste bukaera bat idatzi ziola.

Bukaera horren berri idatzi zuen Juan Mari Arrizabalagak 2018ko KARMEL aldizkarian (https://www.karmelaldizkaria.eus/hemeroteka/karmel-2018-1-301.html?id_art=983):

*Hegoak ebaki banizkio
neurea izango zen
ez zuen alde egingo.
Baina bonela ez zen gebiako
txoria izango
eta nik
txoria nuen maite.*

*Aiei, maite dudalako
nahi ez dudana nahi behar!
urruntzen ikusi;
urruntzen, ezin burbilago behar dudana
maite dudalako.
Urruntzen ikustearen saminak
ni poztu behar..
txoria txori dudalako maite.*

*Ainara Maia Urroz
2022ko urria*

OLERKIAK**LIBRE, BERRIZ ERE**

Lehen ilunabarra kanpoan,
ostiral arrats honetan,
hogeita hamar urte barnean,
zer poza hori ikustean!

Txorikumea habiatik ateratzean,
lehen saltoa egin beharrean,
bizi berri baten hastapen horretan,
kuraia, beldurra, nahasten buruan.

Zertan gelditu da Herria?
Nolako aldaketak izan dira?
Ezagutuko ahal dut nere etxea?
Hogoita hamar urtez, gauzak aldatu dira!

Den-dena berria da,
Den-dena nahasia da,
Lagunak, familia, hor dira,
itxaropena sortzen ari da.

Ilunabarraren ondoren, goizaldea da agertzen,
etengabeko zikloa da beti errepikatzen,
burdin barren atzean ez dira ikusten,
haien edertasunak begiak dauzkite koloreztatzen.

Xerar Urrutia

LILIA

Zure ile luze kixkurtuak,
perla-mordo beltz dirdirak,
leporaino lerratzen direnak,
jainkosaren adats ederrak.

Umiltasunezko irriñoa,
argitarazten aurpegia,
bisaiaren goxotasuna,
ninfaren edertasuna.

Manikiaren gorputza,
lirain bezain luzea,
haitzurdinean zizelkatua,
irudia ematen duena.

Ametsezkoa ala egiazkoa?
Ilusioa ala ameskeria?
Gau hontan agertu zautana.
Amodioaren lilura.

Xerar Urrutia

AMODIOAREN HATSA

Nahiko nizuke adierazi,
kantu hau, dizudana idatzi.
Hitz hauek daitezela isuri,
zure bihotzean gaindi.

Musika honen goxotasuna,
oihartzunaren amodioa,
zuri eskaini nahi dizudana,
josten gaituen melodia.

Larrungo haizearen ferekak,
txistu berrarmonizatuak
mendiko ahotsaren abestiak,
sortu kantu amultsuak.

zubia...

Denbora mugiezin gelditzen da,
xaramela polit hau entzunda,
zure bisaiaren irudia
lainoetan marrazten da.

Kantuen notak hegaldatzen dira,
airean zintzilikatzen dira,
berriro hedatzen, jausten dira
besarkatuz zure gorputza.

Xerar Urrutia

Olot-erantz eraman zuen enara (edo oreneta) hau Garizuma-aurreko haizeak, apirilaren 1ean, eta (O)lotarako poema hau idatzi zuen apirilaren 6ko gauean hotelean:

ORENETA

Txantxangorrien basoan
Ainara hegalaria bizkorrek
haizea urratzen dute
eta zure izena poema bilakatzen.

Txantxangorrien basoan
uren eta lurren artean zubi
enara hegalaria bizkorrek
haizean idazten dute zure izen poetikoa eta
Aingeru batek eramaten nau bizitzan aitzina.

Uren eta lurren artean
aireanugarria piztu da
sumendiko herensugea iratzarri da
kraterraren gainean pausatu eta
S.O.S. oihukatu dudalarik mutu eta isil.

Uren eta lurren artean
zainen arteko airean
Oreneta naizela erran didate
mendi katalanek
Canigo mendia elurturik dagoela eta
magnolia zabaltzen delarik
Pirineo zabalean.

Zeruan idazten dut zure izena
poema bat bilakatuz.

Ainara Maia

ETORKIN

Etorkin, etorkin, etorkin,
hementxe zaitugu geurekin
nahiz eta izan erabat sinestezin!

Urrutietako lur galduetan
maitasun buztarri oparoan
ekarri zintuzten mundura
amets eta asmoak
duintasunez gauzatzera.

Baina...
Haurtzarotik jo zintuen
olatu zapaltzaileak
maitasun ugariak
pizturiko irriñoa
itzali egin zizun
ezinak eta urriak;
ez du aurkitzen aterik
zure askatasun egarriak,
ez du inolako eskolarik
zure buru jakin-minak
makal, ahul eta galtzaile egin zaitu
inguru bortitzaren erasoaldiak.

Non dira zure ametsak,
non zure etorkizunerako esperantzak?

Kate hondatzaileak eten, alde egin, irten,
horra zure barneko garrasi eta oihu ozen,

bururaino eraginez sarkor, eta ezin eten
lelo erasokor, buruhauste eta zoramen...

Hemen ezin naiz bizi, ezin dut garatu ametsik.
Banoa, banoa, nahiz eta maiteenak utzi,
nahiz eta saminak eta suminak barrua kiskali.

Europara abiatu nahi dut,
baina zenbat trikimailu,
zeinen garesti eta zeinen anker!
Ia dugun guztia eralgi eta xahutu dugu
ontziratzearen truke
patera xume eta gauzeztan honek
itsasontzi izena merezi baldin badu.

Eta zenbat gaude barruan?
Denok elkarren gainean,
honako mendian, ekaitza heltzean,
zaldiak batzen diren tankeran.
Eta horixe irtenbide bakarra
mafia hiltzaile eta zantarra
bilakatu baita monopolio gotorra
agintarien babesean edo albora begiratzean
makalenen eta behartsuenen kaltetan.

Mediterraneo zeharkatu behar
baina txalupa xume eta ziztrin honentzat
eskuragaitz eta ezinezko betebeharrak.
Uhinek gorakada egitean
edota enbataren bulkada iristean
hor garabiltzate gu dantza zoroan,

batera eta bestera, nora ezean,
 larri eta estu arrisku baltzean,
 egunak eta gauak goibeldura latzean,
 zalantza eta ziurgabetasunaren zorabioan.

Baina badirudi itsasontzi bat
 hurbiltzen ari zaigula
 eta ematen du badiegula axola
 eta beraien asmoa gu askatzea,
 uretatik salbatu eta jasotzea dela:
 gure begiak dirdiraz argituz,
 gure bihotz taupadak zirrarez bizkortuz,
 gure bekokiak beherantz bultzatzen dituen
 burutapenen zama astuna arinduz,
 gure aurpegiak itxaropenaren argiz itxuraldatuz.

Zeharkaldi luze eta ilunaren ostean
 egunsentiaren poza
 nabari da txalupa osoan
 mundu osoarentzat bertan behera egotetik
 bizi garela eta gure bizia aurrera ateratzea
 norbaitzuentzat garrantzitsua dela egiaztatuz.

Hartu gaituzte, jaso gaituzte,
 babestu gaituzte, sendatu gaituzte,
 amesturiko lur berrietarantz garamatzate,
 gure ezinak euren jarrera gizatiarrez
 suspertu, indartu eta eraldatu dizkigute.
 Gora zuek!
 Gure aitortza eta oihu biziak
 inolako akidurarik eta etenik ez dute.

Azkenik, nahiz eta makal eta esku hutsik,
iritsi zara gurera,
ametsak egia bihurtu gurarik,
lur berrian, gizarte berrian
duintasuna eskuratu nahirik,
etsaigoak baztertzen saiaturik,
guztion senidetasuna
oinarrizko egia dela
harremanetan gauzatzea bilaturik.

Etorkin, etorkin, etorkin,
gera zaitez geurekin
zeure amets eta asmo denekin
kudeatuz atsekabe eta atsegin
dagokizun geroa garatuz
gaindituz uhin eta erpin.

Lontzo Zugazaga

BERTSOAK

KOSTITUZIÑOTIK KONTZEZIÑORAKO ZUBIA

Doinua: Euskal Herritik aparte (X, Amuriza)

- 1.- Bertsotan nire agurra
goratuz Mungiko lurra
eta oraintsu martxan jarri dan
Taket-en ikurra,
uxatu barne beldurra
doana ez da gezurra
kontatuko dot bija bateko
histori laburra.
- 2.- Durangotik Zornotzara
astero joaten gara
modan dagozan taberna eta
pub ilunetara,
billeteak mara-mara
karteretatik atara
ia amuan neska zarren bat
ia jausten bada.
- 3.- Nahiz kartera gori-gori
eta garri buelta lodi
neska bat ezin inon aurkitu
tristea da hori,
galdetuta edonori
daukoz lau edo bost nobi
neuretzat be bat eskatu neutsan
San Antoniori.
- 4.- Igandeko goizaldera
antza diru usainera
agertu jatan neska panpoxa
lirain bat aurrera,
bertan pentsa neban zera
joatea Astun-era:
nik itxaroten nebana ez da,
bija astune da
- 5.- San Antoniok babesa
niretzat zelau sorpresa
edurrerako konbenzitzea
izan zan erreza,
baina suerte aldrebesa
eski ekiporik eza
lortzeko arin bisita neban
Korte Ingelesa.
- 6.- Mendi gainean laiñoa
ezin topeu kamiñoa
lotuta kotxe barruan firme
konstituziñoa,
agur nire iluziñoa
pentsa eban engaiñoa:
“zuretzat bere bihar izango
da Kontzeziñoa”.

- 7.- Gabaz izan zan borroka
joan nintzen ate joka
erantzun eustan: "zertara dator
horrenbeste kopla,
ni hotzitutte nago ta
ezin erantzi erropa",
sartu zan ohian bero-berotan
ni sofara bota.
- 9.- Goizez hamarrak aldera
igo mendi tontorrera
hartu genduan eskiatzeko
profesional era,
erori jatan gainera
oker neukan ixterrera:
berak olgetan jarraitu eban
ni ospitalera.
- 11.- Hainbeste kalte psikiko
kollarin eta garriko
zubiak kalte handiak sortu
daustaz nerekiko,
inork eztau igerrriko
nazenik tonto lapiko:
erabaki dot geldituko naz
mutil zahar betiko.
- 8.- Esku narruak doi-doiak
bardin eski ta bastoiak
Goretex-agaz tapeu ebazan
beheak eta goiak,
eztau parkatan sasoiak
baina alperrik orroiak,
erabil barik bueltau nebazan
hamabi kondoiak.
- 10.- Hainbat mendi tontor gaiña
ta edurrezko panpiña
ikusi neban anbulantzian
txoratzeko aiña,
alegindu nintzen baiña
halako neska sorgiña
etxeratu zan Inmakulada,
Garbi ta Birgiña.
- 12.- Guzti hau egia dala
bakotxak jakin daiala
burutik ezin kendurik nabil
hango karnabala,
izatea informala
ez ete dogu normala
orain zubiak pasetan dodaz
funditan jorнала.

Karlos Ibarzabal

egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!

(urteko harpidetza: bakarrik 18 €).

Ordainketa

Izena-deiturak - - - - -
Kalea - - - - - Zbkia. - - - - Solairua - - - - -
Herria - - - - - Tfnoa. - - - - Postakoadea - - - - -
Herrialdea - - - - -

Banku edo Aurrezki Kutxa - - - - -
Kontu korrantea/libreta _ - - - -
Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

* * * * *

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza
Karmengo kalea, 5
48270 Markina- Xemein (Bizkaia)
(Tel. 946 166 019)
www.karmelaldizkaria.com/karmel